

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-06-30
ASTELEHENA
459. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



JAGOBA DOMINGO

Topa egin dute Espaloiarengatik

Goibeko euskara elkarteko bazkide asko batu ziren zapatuan 10. urtemuga ospatzeko galan | 11

Josemari Velez de Mendizabali
emango diote Urrezko Zeledoa | 29



TCC taldea onena Bergarako
'semicup' txapelketan | 26



Beñat Zamalloa aretxabaletarrak
jaso du Rikardo Arregi saria | 31

Gaur ere danbor hotsak entzungo dira Eskoriatzan

Nagusien danborrada izan da San Pedro jaietako ekitaldi nagusietako bat asteburuan; gaur, astelehena, haurren danborradak hartuko dio lekukoa. | 12



Batailoiak plazan danborradaren amaieran. Harrotasun egunari keinu eginez, danborradako batailoietak batek, eskuin aldekoak, ortzadarra irudikatu zuen koloretako kamisetak jantzita.

IMANOL GALLEGU

Debagoieneko sei enpresa eta elkarte, '.eus' domeinuaren Aitzindari Taldean

Zapatuan aurkeztu zituzten .eus domeinuaren aitzindariak Bilboko Kafe Antzokian. 92 eragile dira domeinu hori oraingoz erabiliko dutenak; erakunde publikoak, euskalgintza, enpresak eta hedabideak dira. Debagoieneko sei daude multzo horretan; Goiena Komunikazio Taldea, esaterako. | 5

Gaur hasiko dira indusketa lanak Lezetxikin

20 bat lagun arituko dira uztailaren 19ra bitartean | 6

"Bidegorri tramu berriek erabilera banatzen lagundu dute"

Unai Erroitzenea | Mugikortasun foru zuzendaria | 3



Estela Biain eta Sergio Gartzia onenak Torreauson

Ehun korrikalarik hartu zuten parte krosaren 17. aldian | 22



Biain eta Gartzia podiumean. | M.B.

Cevital, 18 milioi ordaintzeko eta 1.300 lanpostu sortzeko gertu

5,5 milioitan hobetu du aurretik egindako eskaintza | 7

Txirrindulari gehiago, baina ez nahikoak

- Bidegorrietako bidaietatik %28 soilik dira bizikletaz
- Bidegorrietan bizikleta bultzatu nahi du Aldundiak
- Eguneroko gauzetarako erabiltzera animatu nahi du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bidegorrietan bizikletaz gero eta bidaia gehiago egitea, horra hor Gipuzkoako Foru Aldundiak duen erronka eta, oraingoz, bete ez dena, 2013ko datuek, berriek, erakusten dutenez: Gipuzkoako herri arteko tramuetan ipinitako kontagailuek emandako datuen arabera, 2011tik 2013ra bitartean %5,5 txirrindulari gehiagok erabili zituzten bidegorriak, baina, denetara, txirrindularien kopurua oraindik marjinala da: erabiltzaile guztien %28 bakarrik (iaz, 889.000, zenbaki borobiletan). Oso antzera gertatzen da kontagailuak dituzten Debagoieneko tramuetan: Eskoriatza-Aretxabaleta ibilbidean, iaz erabiltzaileen %19 izan ziren txirrindulariak; Soraluze-Mekolalden, %32; eta Antzuola-Bergaran, %17.

Debagoieneko tramuetako erabilera datuei begiratzuz gero, atentzioa ematen du neurtutako hiruetatik bitan Gipuzkoako batez bestekoa baino nabarmen gehiago txikitu dela erabilera azken bi urteotan. Salbuespena Eskoriatza-Aretxabaleta tramua da, izan ere, hor 186.879 joan-etorri egin ziren iaz, aurreko urtean baino 5.791 gutxiago baina 2011n baino 44.758 gehiago; Soraluze-Mekolalden, berriz, nabarmen egin du behera kopuruak 2011 ezker, izan ere, 182.405 joan-etorri izan ziren iaz denetara, 2012an baino ia 7.000 gutxiago eta 2011n baino 40.425 gutxiago; eta Antzuola-Bergara tramuan, iaz 46.098 bidaia egin ziren bizikletaz eta oinez, 2012an baino

11.560 gutxiago eta orain hiru urte baino 12.224 gutxiago.

Datuak zertxobait hobeak dira bizikletazko bidaiez hitz egiten badugu. Hala, Soraluze-Mekolalde tramuan asko handitu da azken urteotan bizikletaz egindako joan-etorrien kopurua: 2011n, bidaien %18 izan ziren bizikletaz; 2012an, %23; eta iaz, %32. Eskoriatza-Aretxabaleta tramuan, 2011n baino %4 bidaia gutxiago egin ziren bizikletaz; eta Antzuola-Bergaran, datua %17ren bueltan egon da hiru urteetan, bilakaera positiboa hortaz, baina Gipuzkoako batez bestekoaren (+%5) azpitik hala ere. Edozein modutan, Gipuzkoako batez bestekoa baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da txirrindulariek asko erabiltzen dituztela bereziki tramu batzuk. Adibidez, Endarlatsan, bidaien %60 izan ziren iaz; Zumarraga-Azkoitian eta Tolosa-Alegian, %44 eta %43, hurrenez hurren; eta Astigarra-Martutenen, %35.

Erabiltzaileak, pozik

Kontagailuez gain, inkesta bidez ere batu ditu datuak Mugikortasun Foru sailak. Debagoieneko tramuak nabarmentzen dira hor, izan ere, balorazioa eskatu da hainbat tramuren inguruan eta, horietatik, erabiltzaileek ondoen baloratutako tramua Eskoriatza-Aretxabaleta izan da (hamar puntutik 8,2 eman zioten erabiltzaileek; Gipuzkoako batez bestekoa 7,7 izan da), eta laugarrena, Soraluze-Bergara, 7,6 punturekin. Bakarrik txirrindularien

balorazioa kontuan hartuta, Eskoriatza-Aretxabaletak ere puntuazio handiena lortu zuen, 8,1; eta Soraluze-Bergarak, hirugarren onena, 7,7. Batez bestekoa 7,6 izan zen.

Euriak eragina izan du

Datu orokorrak hartuta, 2012tik 2013ra erabiltzaile gutxiago izan zituzten Gipuzkoako bidegorriek: hain zuzen, %1,4 gutxiago. Hala, 2012an, 3.264.576 bidaia egin ziren, eta 2013an, 3.211.592, batez beste 8.823 bidaia eguneko. Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituren sailak esaten duenez, "kontuan hartu behar da 2013. urtea oso euritsua izan zela, 2012a baino %41 euritsuagoa".

Dena dela, 2013ko datua azken bi urteotako antzekoa da eta bidegorrien erabilera kontsolidatu egin dela aditzera ematen du; izan ere, 2008an kontagailuak ipini zirenetik, oinezko bidaiek %60 ugartu dira, eta bizikletazkoak, bikoiztu baino gehiago. Erabilera gehien handitu zen 2008tik 2011ra bitartean.

Esandako datuak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sareko 17 bideri dagozkie, hain zuzen kontagailuak dituztenei. Debagoienean herri arteko tramu gehiago dago bukatuta, baina oraindik ez dute kontagailurik.

%83, gizonezkoak

Bidegorrian bizikletaz gero eta gehiago ibiltzera animatzeaz gain, zehazkiago, bidegorriak eguneroko joan-etorrietarako erabiltzera animatzea da Foru Aldun-



Gizonezkoa bizikletan, Arrasate-Oñati bidegorrian. | RUBEN CUESTA

diaren helburua; hain zuzen, derrigorrezko mugikortasuna delakoa bidegorriz gero eta gehiago egitea gipuzkoarrek. Gaur egun, bizikletaz egiten diren bidaia guztietatik %29 daude derrigorrezko mugikortasunarekin lotuta, hau da, lanera joateko, erosketak edo gestioak egiteko...

Beste datu deigarri bat hau da: bizikletazko joan-etorriak batik bat gizonezkoek egiten dituzten arren (txirrindularien %83 dira gizonezkoak), eguneroko gauzetarako emakumeek erabiltzen dituzte gehienbat bidegorriak. Hala, bizikletazko joan-etorriaren arrazoa galdetzerakoan, emakumeen %23k esan zuten lanerako zela (gizonezkoen %18k); gestioak, bisitak edo erosketak egiteko, emakumeen %13k (gizonezkoen %3k); eta ikasketetara joateko, emakumeen %7k (gizonezkoen %5ek).

Gizonezkoek emandako arrazoi nagusia kirola egitea izan zen (gizoneen %48k erantzun zuten hori, eta emakumeen %19k); eta emakumeen kasuan, aisialdia edo paseatzea (emakumeen %39k esan zuten hori, eta gizoneen %26k).

Lanera, bizikletan

Bidegorriak eta bizikletak "mugikortasun tresna garrantzitsu bihurtzeko", Aldundiaren esanetan, Bizikletaren Estrategia aurrera eroan nahi du Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Foru sailak. Izan ere, "Europako beste lekuetako portzentajeetatik oso urruti" dago oraindik Gipuzkoa: "hainbat lekutan mugikortasuna-

ren %20 bizikletaz egiten da eta, hemen, %2,4".

2014tik 2022ra bitartean egingo da plana. 2015erako, kudeaketa plana egingo du Aldundiak.

Lehenengo pausotako bat Debagoienean eman dute: Foru Aldundiak eta Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko udalek "esperientzia aurreratua" ipiniko dute martxan, lantokietara joan-etorriak bizikletaz edo oinez egitera animatzeko. Proiektu horren aurkezpenean Arrasateko alkateak, Inazio Azkarragaurizarrek esan zuen moduan, "Debagoienean eta Gipuzkoan, eguneroko sortzen diren joan-etorri gehienak (%36 inguru) lanak eraginda derrigor egin beharrekoak dira, eta horietatik erdiak 7,5 kilometro baino laburragoak dira, eta beraz, oinez edo bizikletan egingarriak". Horretara animatzeko kanpaina egingo dute lau erakundeek. Proiektuak 30.000 euroko aurrekontua dauka.

Udalekin eta Foru Aldundiarekin hainbat enpresa batzartu ziren proiektuaz hitz egiteko; zehazki, hauek: Auzo Lagun, Copreci, Chinchurreta, Elektra, Fagor Automation, Fagor Electronica, Jose Arana egoitza, Lagun Aro, LKS, S. Carrascal, Ternua eta Tete de la Course.

26.680 metro egiteko

Herri barruko sareari ere bultzada eman gura dio Foru Aldundiak. Horretarako 250.000 euro banatu ditu laguntzatan, eta partida handiena -35.600 euro- Bergarak izango du, merkatuko bidegorri

DATUA

%5,5

BIDAIA GEHIAGO

Gipuzkoako herri arteko 17 bidegorri tramutan, 2012an baino %5,5 bizikletazko bidaia gehiago egin ziren iaz: denetara, 889.000.

%2,4

BIDAIA

Gipuzkoako bidegorrietan bizikletaz egiten diren bidaien %2,4 bakarrik daude eguneroko gauzekin lotuta: lana, ikasketak, erreka...

44.760

JOAN-ETORRI GEHIAGO

Eskoriatza-Aretxabaleta tramuan, oinezko eta bizikletazko 186.880 joan-etorri egin ziren iaz, 2011n baino 44.760 gehiago.



UNAI ERROITZENEA | MUGIKORTASUN FORU ZUZENDARIA

"Bidegorri tramu berriak egoteak erabilera banatzen lagundu du"

Nola baloratzen dituzu 2013ko erabilera datuak?

Balorazio orokorra oso positiboa da. Lurraldean, 3.211.000 joan-etorri egin ziren gure bidegorri sarean, eguneko 8.823, eta %28 bizikletaz. Kopuru totalak alderatuta, %1,6 jaitsi zen, baina iazko urtea aurrekoa baino %41 euritsuagoa izan zen.

Bizikletazko erabilerak beste bultzada bat behar duela dirudi.

Bai. Gipuzkoa aitzindari da eta gauzak lortzen ari da. Hala, 2008-tik hona bikoiztu egin da bizikletazko joan-etorrien kopurua; baina urruti gaude European aitzindari diren herrialdeetatik.

Tramu batzuetan askoz gehiago ibiltzen da jendea bizikletaz beste batzuetan baino. Zergatik?

Bidegorriaren izaeraren arabera eta distantzien eta lotzen dituen guneen arabera, askotan bizikleta gehiago erabiltzen da eta egunerokoarekin lotura handiagoa dute tramu horiek; beste tramu batzuek aisiarekin lotura handiagoa dute. Askotariko faktoreak daude.

Ondoen baloratutako tramuak zergatik daude hain ondo baloratuak?

Sare orokorra oso ondo baloratua dago: batez beste 7,5ko balorazioa ematen diote oinezkoek eta txirrindulariek eta faktore asko egon dai-

tezke: eguneroko joan-etorrietarako aukera berri bat delako, segurtasuna ematen dielako... Ondo baloratzen denean, bizikletazkoen eta oinezkoen artean elkarbizitza ona dagoen seinale ere izaten da. Gaizki baloratzen denean, beharbada elkarbizitza hori ez dago, edo mantenu kontuekin lotuta dago balorazioa...

Bereziki jaitsi da erabilera tramu batzuetan...

Soraluze-Bergaran, %13 jaitsi da, eta eguraldia faktore bat izan daiteke baina, bestalde, egunero hortik ibiltzen zenak erabiltzen jarraituko du, baina beharbada aisialdirako erabiltzen zutenak orain beste gune bat dauka, adibidez Arrasate-Oñati. Azpiegitura berri horrek banaketa horretan lagundu du.

Antzuola-Bergaran, bidegorria lehen puntu batera iristen zen, eta orain, Deskargako obren ondorioz, zati bat moztuta dago eta seguru nago horrek eragina izango zuela.

Oñati-Arrasate tramuaren gaineko daturik baduzue?

Kontagailuak aurren jartzeko asmoa dago, baina pertzepzioa ona da. Ikusi besterik ez dago jendeak egunero nola erabiltzen duen. Zati



GFA

handi baten, eguneroko joan-etorrietan ibiltzen da jendea, eta hori ikusteak poza ematen digu.

Bizikletaren Estrategian, ze pauso emango dituzue hurrengo?

Norbanakoek ekarpenak egiteko aukera irekiko da laster. *Gipuzkoa-bizikletaz.net*-en. Iraileko lehen

hamabostaldian, tailerren bigarren erronda egingo da, eta estrategiaren aurrerapen dokumentuari ekarpenak egingo zaizkio. Gero,

Gipuzkoako bizikletaren estrategiaren behin-behineko dokumentua osatuko da; 2015erako, plan estrategikoa eta, urte bukaerarako, behin betiko dokumentua.

Eta lanera bizikletara joateko plana zertan dago orain?

Proba pilotu hori sustatuko duen aholkularitza teknikoa martxan jartzeko deialdia prestatzen gabiltza; irailetik aurrera izango da hori. Bestetik, asmoa dago enpresa interesatuendako aparkalekuak emateko. Deialdi hori ere lantzen gabiltza.

ESANAK

"Eguneroko joan-etorrien %36 lanak eraginda derrigor egin beharrekoak dira bailaran"

INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Bidegorriak eta bizikletak mugikortasun tresna garrantzitsu egin nahi ditugu"

UNAI ERROITZENEA
MUGIKORTASUN FORU ZUZENDARIA

tramua egiteko; Aretxabaletak 7.920 euro jasoko ditu herriko bidegorriaren proiektua idazteko; eta Arrasatek, 7.000 euro, Anboto kaleko zatia egiteko. Debagoieneko udal sarea 15.785 metro luze da, eta horietatik 6.708 daude eginda, eta 9.077, egiteko.

Hori, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sareari dagokionez. Debagoieneko herrien arteko loturak Gipuzkoako Bizi-

kleta Bideen Oinarrizko Foru Sarearen zati dira, bi ibilbidetan banatuta: Debarroa ibilbidea, Gipuzkoako sareko 4.a; denetara, 45.165 metro bidegorri. Honako tramuak bukatuta daude: Soraluze-Bergara (4.032 m), Aretxabaleta-Eskoriatza (1.699 m), Eskoriatza-zeharbidea (1.365 m) eta Elorregi-Oñati (5.912). Hauek gelditzen dira bukatzeko: Bergara-Elorregi (142 m eginda, 2.948 m planifika-

tuta), Elorregi-Arrasate (1.700 m eginda, 1.078 planifikatuta), Arrasate-Aretxabaleta (1.251 m eginda, 73 planifikatuta), Eskoriatza-Arabako muga (858 m eginda, 17.931 planifikatuta), Bergara-Antzuola (1.526 m eginda, 939 planifikatuta), Arrasate-Arrasate (Gesalibar) (2.487 metroak planifikatuta) eta Leintz Gatzaga (1.224 metroak planifikatuta). Hortaz, Debagoieneko herri arteko loturetan, 18.485 metro bidegorri daude eraikita eta 26.680 gelditzen dira egiteko.

Bergara-Elorregi zatia urte bukaerarako eginda nahi du Foru Aldundiak, eta Bergara-Antzuola, legealdi bukaerarako. Ekainaren 11n ekin zion Aldundiak Bergara-Elorregi tramuaren lehen faseko obrak lizitzatzeko prozedurari. 2,6 kilometro hartuko ditu eta lau metro zabal izango da. Bergarako Ibarra kale bukaeratik Tavesaren lurretaraino joango da, eta zati handiena Maltzaga eta Gasteiz arteko trenbide zaharretik egingo dute. BEZ barne, milioi euro pasako aurrekontua du, eta lau hila-beteen eginda egon beharko litza-teke. Behin obra hori bukatuta, Elorregitik Arrasatera eta Oñati-tira doazen tramuekin Bergarako lotzeko 500 metroko tramu bat bakarrik geratuko da egiteko.

Debagoienetik pasatzen den beste bidegorria, Gipuzkoako 6. ibilbidea, Beasain-Bergara ibilbideko Bergara-Urretxu bidegorria da. Hori 17.424 metro luze izango da; Debagoienetik 14.224 pasatzen dira. Horietatik 6.000 daude era-bilgarri, Bergarako Udalaren jabe-tzarenak.

TARIFA FINKOAK
INFORMATIKAN

Word.

Mekanografia.

Access.

Sistema Eragileak.

Power point.

Excel.

Internet.

IRAKASLEEN
FORMAZIOA

Irakasleen formatzailea.
(Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.

Pet

First

Advanced

Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.

ESKOLA
PARTIKULARRAK

LMH / DBH

Batzilergoa

Enpresa ikasketak

Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es

BIDEGORRIEN ERABILERA DATUAK (2013)

TRAMUA	ERABILTZAILEAK	2011-2013 BILAKAERA	TXIRRINDULARIAK
Eskoriatza-Aretxabaleta	186.879	+%31	%19
Soraluze-Bergara	182.405	-%18	%32
Antzuola-Bergara	46.098	-%21	%17
GIPUZKOA	3.211.592	-%1,4	%29

OHARRA: Iaz ipinita zeuden kontagailuetatik ateratako datuak dira.

ITURRIA: MUGIKORTASUNEN FORU SAILA



(B)

**Diru (B)eltza,
enplegu (B)eltza**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.



**ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

Aurkeztu dituzte '.eus' domeinuaren aitzindariak

- ▶ Askotariko 92 erakundek egin dute '.eus' proiektuarekin bat
- ▶ Goiena Komunikazio Taldea da aitzindari bat, hedabideen multzoan

LEIRE KORTABARRIA | BILBO
Zapatu eguerdian aurkeztu zituzten *.eus* domeinuaren aitzindariak, Bilboko Kafe Antzokian. 92 aitzindari horien artean, Goiena dago eta baita Debagoieneko beste zenbait ordezkari. Denera, erakunde publikoak, euskalgintza, enpresak eta hedabideak daude. Aitzindarietako zazpi aurkezpen mahaian izan

ziren, tartean Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabal, Euskal Hedabideen Elkarte, Hekimen ordezkatzan.

Abenduaren 3ra arte, bakarrik
Abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Egutegira arte, *.eus* Domeinuaren Aitzindariak izango dira aktibatuak egongo diren *.eus* domeinu-izen baka-

rrak. Aitzindarien Programari esker, ".eus" domeinuaren zabalpenerako kanalak eta euskarriak modu esponentzian hazi" direla eta proiektuak "bidearen hasiera duintasunez egiteko adina bultzada ekonomiko jaso" duela esan zuen PuntuEus Fundazioak
Aitzindarien zerrenda www.aitzindariak.eus gunean dago.

Abiarazte-aldia, segidan
Irailaren 16tik azaroaren 18ra arte, abiarazte-aldia etorriko da: mota guztietako erakunde publiko, elkar- te eta enpresek domeinu-izenak eskatu ahal izango dituzte, lehen- tasunez, eskaerak egiteko aukera publiko orokorrera ireki aurretik. Tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira.



JON BEREZIBAR
GOIENAKO KAZETARIA
"Lehen urratsetik eman dio Goienak babesa egitamoari, oinarrietan sinisten dugulako"

Teknologia berrien arloan dihardu Jon Berezibarrek Goienan eta hasieratik jarraitu du *.eus* domeinua aktibatu arteko prozesua.
Zertarako .eus domeinua?
Sarea zabalegia da eta ezinbestekoak dira erreferentzia eremuak. Euskararen eta euskal kulturaren esparrua izango da *.eus*-ek definituko duena, komunitate baten bilgunea eta Goienari, noski, hor dagokio egotea. Non kokatua ematen dizu. Esparru kulturalak garrantzitsuak dira Interneten, areago, hizkuntza gutxitu batentzat, indar batuketa eta erreferentziarako lekua ematen baitio euskaldunari eta baita erakundeari.
Aitzindarien Taldeko kide izatea ere garrantzitsua da.
Lehen urratsetik eman dio babesa egitasmoari Goienak, PuntuEus Fundazioaren oinarrietan sinisten dugulako. Eusko Jaurlaritzak, euskarazko hedabideak eta euskalgintzarekiko sentsibilitate berezia duten enpresa eta erakundeek osatzen dute taldea, baita Debagoieneko askok ere, eta hor dago Goienaren lekua.



Aurkezpeneko mahaiko aitzindariak; tartean, Goienako Iban Arantzabal, Alberto Barandiaranen ordezkari. | PUNTUEUS FUNDAZIOA

DEBAGOIENEN
AITZINDARIAK

ENPRESAK

Elay SL:
'www.elay.eus'

Grupo ULMA, S. Coop.:
'www.ulma.eus'

Laboral Kutxa:
'www.laboralkutxa.eus'

KULTURGINTZA

Emun Koop. E.:
'www.emun.eus'

Garabide Elkarte:
'www.garabide.eus'

Heteroarauarekin amaitzeko eta sexu askatasunerako aldarria egin dute Eskoriatzan

Harrotasun egunean, lehen bilkura egin zuen Debagoieneko Sexu Askapen Mugimenduak

M.B. | ESKORIATZA
Lesbiana, Gay, Transexual, Bise- xual eta Intersexual komunita- tearen nazioarteko egunean, zapatuan, lehen agerraldia egin zuen Debagoiensean sortu berri den Sexu Askapen Mugimenduak. Elkarretaratzea egin zuten Eskoriatzan, han San Pedro jaiak direla-eta, Txosna Batzordearekin elkarlanean antolatuta.
Izan libre. Debagoiena sexu askapenerantz lelopean egin zuten bilkura, helburu garbiarekin: "Normalizazioa da gure helburua; heteroarauarekin amaitu behar da", esan zuten deitzaileek.
Eskoriatzako elkarretaratzea talde sortu berriaren lehen urratsa izan da: "Gaur egun dauden

elkarteez hiri handietan antola- tzen dituzte LGBTI komunitate- ren Harrotasun eguneko ekital- diak, baina guk gura genuen hemen ere ikustaraztea", esan zuten.
Zapatu arratsaldean txosna- gunean egindako elkarretaratzea ez ezik, gaueko nagusien danbo- rradan ere egon zen beste alda- rrikapen keinu bat: batailoietako batek ortzadarra osatu zuten-eta, koloretako kamisetak jantzita.
Lan handia egiteko
Debagoieneko Sexu Askapen Mugimendua irailean hasiko da lanean buru belarri, eta bi lan ildo zehaztu dituzte. Alde batetik, sexu askapenean oinarritutako



Zapatuan Eskoriatzako txosna gunean egindako agerraldia. | JOSETXO ARANTZABAL

heziketa bultzatuko dute. "Nahi dugu ikusarazi posible dela Deba- goiena sexu askapenarekin bate- ragarri izatea. Kanpora joan barik hemen ere askatasunean bizitzea posible dela", diote taldeko kideek. Horretarako, tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak... antolatuko dituzte.

Bigarren lan ildoan heteroa- rauari, homofobiari eta sexis- moari aurre egitea jarri dute helburu moduan. Izan ere, bai- laran ere badago: "Debagoiensean badago, nahiz eta askotan azale- ratu ez eraso baten bitartez; ezku- tuan dago, eta horri buleta eman behar zaio. Aurreiritzi asko dago,

prototipoak ere bai... Eta hori aldatu egin behar da".
Bailarako Sexu Askapen Mugi- mendua erabat irekia da. Gaur egun Arrasate eta Eskoriatzako zenbait gaztek osatzen dute eta ateak irekita daude. Harremane- tan jartzeko debagoieneko.sexuas- kapena@gmail.com.

Garai bateko aztarnen bila arituko dira gaurtik Arrasateko Lezetxiki koban

Euskal Herriko zein kanpotik etorritako hogeitaz lagun arituko dira indusketetan uztailaren 19ra bitarte

IRATI GOITIA | ARRASATE

"Iazko kanpaina oso oparoa izan zen. Aurreko hiru kanpainetan beste atera genuen. Aurtengoa ere horrelakoa izango dela uste dugu. Izan ere, joan zen urteko mailan jarraituko dugu induskatzeko eta nahiko material azalduko dela pentsatzen dugu", adierazi du Alvaro Arrizabalaga arkeologo eta Lezetxikiko indusketetako arduradunak.

Gaur ekingo diote Arrasateko Lezetxiki kobako indusketei, beste urte batez. Urtero etorri ohi dira uda sasoiari. Eta gaurtik uztailaren 19ra bitarte hogeitaz lagun arituko dira aztarnategian lanean, bertakoak zein kanpotik etorritakoak dira. "Oso pozik gaude bueltan garelako", esan du Arrizabalagak.

Amaitzearen den bilaketa

Azkenengo urteotan kobazuloan gizakiak izandako presentzia zalantzan jarria zegoen, baina joan den urtean egindako aurkikuntzekin berriro argitu da gaia. "Lezeetako hartzen hezurdurak aurkitzen genituen batez ere,



Iazko taldea indusketa lanak egiten Arrasateko Lezetxiki koban. | GOIENA

baina iaztik berriro hasi ziren ugaltzen harrizko tresnak eta baita ere ehizatutako animalien hezurdurak. Horiak hautsita daude, hezur muina aterako", zehatu du Arrizabalagak.

Bestalde, arkeologoak dio Lezetxikiko indusketak ez dutela luze joko: "Laster amaituko dugu hemengo lanekin, baina ez dut uste aurtengoa izango denik. Badirudi kobazuloak beste metro

eta erdi edo bi metro jarraitzen duela". Gainera, aztertzen dabilen maila oso oparoa da eta horrek lana moteltzen du. "Dentsitatearen arabera aldatzen da lanaren erritmoa. Guztiz antzua

ESANAK

"Aurtengoa urte oparoa izango dela uste dugu"

"Dentsitatearen arabera aldatzen da lanaren erritmoa"

ALVARO ARRIZABALAGA
ARKEOLOGOA

bada, nahiko azkar garbitu daiteke. Material arkeologikoa aurkituz gero, ezin da horren bizkor joan. Normalean, 50 zentimetro edo 60 egiten dira kanpaina bakoitzean".

Diru laguntzak

Aldundiak 150.000 euro bideratu ditu Gipuzkoako indusketetara, tartean, Lezetxikira eta Aitzorroztzera. "2012a oso urte txarra izan zen, asko jaitsi zirelako laguntzak. Iaz pixka bat berreskuratu genuen eta aurtengoa berriro galdu dugu apur bat", dio Arrizabalagak. 5.000 euroko laguntza jaso dute Aldunditik. Hori udaletxetik eta Kobateko harrobitik jasotzen duten diruaz osatzen dute.

Bidegorriak atontzeko diru laguntzak jasoko dituzte udalek

ANE ELORDI | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak 250.000 euro banatu ditu Gipuzkoako hemeretzi udalen artean bidegorriak atontzeko, eta besteak beste, Aretxabaletak, Arrasatek eta Bergarak jasoko dute laguntza hori. Aldundiaren helburua da herrialdeko bizikleta zaleen sarea zabaltzea eta sustatzea, baita udalerrietan bizikletaren erabilera areagotzea ere. Diru laguntzekin udalek bidegorriekin lotutako proiektuak egin beharko dituzte, horrela, mugikortasun iraunkorragoa lortzeko helburuarekin.

Datuak

Aretxabaletan, herriko bidegorriaren proiektua idazteko 24.000 euroko aurrekontua egin du udalak, horietako 7.920 euro Aldundiak emango ditu.

Arrasateko udalak Anboto kaleko bidegorriko lanak egiteko 7.020 euroko diru laguntza jasoko du, eta aurrekontu osoa 49.725 eurokoa da.

Bestalde, Bergarako udalak merkatuko bizikleta bidea atontzeko 35.602 euroko laguntza jasoko du; lanak 79.116 euroko kostua izango dutela aurreikusten da.

Gizonezkoa buruan jo zuen ilobak Aretxabaletan domeka goizaldean; Ertzaintzak ikerketa zabalik du

Domeka goizean, eraso bat izan zen Aretxabaletan, 05:00ak aldera, Ertzaintzak esan duenez: hain zuzen, pertsona batek beste bat zauritu zuen objektu batekin, eta zauritua Santiagoko ospitalera eraman zuten. Domeka arratsaldean, Ertzaintzak Goienari esan zion ustezko egilea ez zutela oraindik atzeman eta ikerketak zabalik jarraitzen zuela. Domeka goizean ere, Aretxabaletako parrokoak, mezetan esan zuen erasotua sakristaua zela (69 urteko gizonezkoa), eta erasotzailea, haren iloba. Zurrumurruak saiheste aldera egin zuen abadeak jakinarazpen hori, Goienari azaldu dionez. Parrokoak azaldukoaren arabera, ilobak burdina batekin jo zuen osaba buruan. Dirudienez, osaba ilobak ez ziren elkarrekin bizi, baina bai elkarren ondoan.

Debagoienean dira Ukrainako eta Saharako umeak, uda pasatzeko

Joan den astean iritsi ziren eta oporraldia harrera familietan igaroko dute

I.G. | ARRASATE

Debagoienera iristen azkenak Oñatira etorri diren Ukrainiako haurrak izan dira, zapatuan iritsi ziren. Euren aurretik heldu ziren Sahara eta Ukrainiako beste ume batzuk ere.

"Indarrak hartzeko"

Banoia Txernobilekin taldearen bitartez etortzen dira Oñatira Ukrainatik umeak. Aurtengoa, denera, zazpi etorri dira. "Zapatuan iritsi ziren. Madrileratzen dute hegaldia eta guk autobus txiki bat alokatzen dugu. Neure senarra joan zen euren bila hara", kontatu digu Arantza Zubia taldeko kideak. Etorri diren haur gehienek errepikatu egiten dute, baina bi lehendabizikoz etorri dira aurtengoa. Haurrei dagokionez ere, bi berriak dira. Abuztuaren 23ra arte egongo dira hemen. "Oso pozik gaude. Gainera, normalean, azken egunera arte ez dugu jakiten etorri ahal izango diren. Aurtengoa, baina, bisatua emango zietela jakinarazi ziguten enbaxadatik eta hori oso garrantzitsua izan da guretzat".

Bestalde, Chernobil elkartearen bitartez ere etorri dira bai-



Ukrainatik Oñatira uda pasatzera etorri diren neska-mutikoak. | ARANTZA ZUBIA

larara Ukrainako neska-mutikoak: Aramaiora hiru, Eskoriatzara bat, Aretxabaletara bat, Bergarara bi eta Arrasatera bat. Elkarrekin garrantzia berezia eman dio aurtengoa harrera programari Ukrainan bizi den egoera politikarengatik. Guztira 233 haur ekarri dituzte, beste batzuetan baino gutxiago. Krisiak eragina izan du elkartetik uste dutenez.

Saharatik ere etorri dira bai-larara umeak. Guztira bost; Arrasatera, Bergarara, Aretxabaletara, Eskoriatzara eta Aramaiora

bana. Oporrak bakean egitasmoaren bitartez 400 etorri dira Euskal Herrira. "Bi hilabete hauetan indarrak hartzea izaten da helburua. Aste honetarako 45-50 gradu iragarpena egin dute han, adibidez. Medikarenera eramaten ditugu eta bi hilabetez elikadura orekatu bat eramango dute", dio Agurne Juldain, Nubi elkartearen kideak. Bestalde, salatu du ume hauek kanpamenduetan bizi direla Marokoren okupazioaren ondorioz eta arazo politikoa dela.



Cevitalen lantegia Bugian, Aljerian. | GOIENA

18 milioi ordaintzeko eta 1.300 lanpostu sortzeko gertu da Cevital

Aurretik egindako eskaintza ez ofiziala 5,5 milioitan hobetu du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Fagor Etxetresnen inguruko lehia bizi-bizi dago. Aljeriako Brandt -Cevital multinazionalak 18 milioi euroko eskaintza formala egin du enpresaren aktiboengatik, eta Euskadin 1.300 lanpostu agintzen

ditu. Halaxe zehazten du epaileari aurkeztu dion behin betiko eskaintzan.
Bestalde, Txileko fondo batek Edesarengatik eskaintza aurkeztu zuen domekan. Europa Press-en esanetan, zazpi milioi eskain-

tzen ditu eta Edesako 230 lanpostuetatik 100 gordeko lituzke.
Arantza Tapia sailburuak atzo arratsaldean esan zuenez, domeka –eta eskaintzak aurkezteko epea– bukatu aurretik laugarren eskaintza bat egon zitekeen.

300 lanpostu zuzen, hasteko
Ceivtalek jakinarazi duenez, egosketa eta etxetresna txikien negozioak eta garbiketa eta klimatizazio negozioen ekoizpen lerroak erosi nahi ditu. Garagartzan eta San Andresen daude azken horiek, hurrenez hurren; beraz, Garagartzako eta Eskoriatzako lantegiak eta San Andreskoaren zati bat erosi nahi ditu.
Lanpostuei dagokienez, horietatik 300 zuzenak izango lirateke eta lehenengo urtean sortuak, eta beste 400 lanpostu zuzen sortuko lirateke 2019ra arte.
Eskaintza horrek 5,5 milioi eurotan hobetzen du aljeriarrek aurretik egindako eskaintza ez ofiziala.

65 milioi Euskadirendako
"Aktiboak erosten diren momentutik bertatik" proiektua martxan jartzeko "gai" dela azpimarratu du Cevitalek, eta, gaineratu duenez, euskal ekonomiarendako 65 milioi euroko aberastasuna sortuko luke 2015erako. Kopuru horren %65 Euskadiko hornitzaileek sortuko lukete.
Edesa, Fagor, Aspes eta Splendid marken bizi-iraupena, laguntza tekniko guztia eta taldeak Malasian duen filialaren partizipazioak eta Txinan De Dietrich enpresarekin duen joint venturea erostea bermatzen du eskaintzak.
"Fagorren aldeko apustu" horrekin, etxetresnen negozioak multinazionalaren fakturazioaren laurdena ekarriko luke –gaur egun, %10.

Industriaren prezioak %0,7 merkatu dira urte betean

L.K. | ARRASATE
Euskadiren industriaren prezioak ez ziren aldatu apiriletik maiatzera, baina urte arteko tasa –azken 12 hilabeteetan industriako prezioek nola eboluzionatu duten adierazten duena– %0,7 jaitsi da, hau da, prezioak merkatu egin dira. Eustatek emandako datuak dira.
Inflazio handiena honako azpisektoreek izan zuten: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%0,4); Altzariak eta beste manufaktura-industriak (%0,4) eta Zurgintza, papergintza eta arte grafikoak (%0,3). Azpisektore deflazio-nistenak hauek izan ziren: Erauzketa industriak (-%1), Kokeria eta petrolio-fintzea (-%0,7), Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa (-%0,5) eta Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (-%0,5).
Urte arteko adierazleei begiratuta, prezioak gehien hazi ziren honako azpisektoreetan: Zurgintza, papera eta arte grafikoak (%1,4) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%0,9).

Fagor Automationek diseinu eta berrikuntza sari bat jaso du

J.B./L.K. | ARRASATE
Espainiako Makina-Erreminten eta Fabrikazioa Teknologien Disenu eta Berrikuntza sarietan aipamen berezia jaso du CNC 8060 simulatzailearengatik.
Fagor Automationek esaten duenez, "teknologia aurreratua erabili da diseinuan, eta horri esker bere sakonera nabarmen murriztu ahal izan da eta moldeko teknologia erabili da atzealde estaltzeko. Horrela, CNC 8060 itxura ergonomikoa duen CNCa da eta aproposa ingurune industrialetarako".
Sari hori AFMk antolatzen du (Advanced Manufacturing Technologies), BECen, Beaz Bizkaiko Berrikuntza Agentziaren babesarekin. Epaimahaia Eide, Ihobe, Spri, Tecnun, Eus-

kal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Ergogroup eta Osalan erakundeek osatuta zegoen. Berrikuntza, diseinua, ergonomia eta segurtasun irizpideak izan dituzte kontuan.
Eskaeretara egokituta
Honakoa dio Fagor Automationek: "CNC 8060ak diseinu estilizatua du eta makina-erreminten fabrikatzaileen egungo joeretara egokitzen da".
Aurrealdeko oratzeko zuloak kendu dizkio eta teklen tamaina murriztu dio fabrikatzaileak, eta horri esker gaika multzokatu ahal izan dira eta bi modeloetan multzo berdinak erabili (bertikalean eta horizontalean).

Urteko bigarren erdian, 6.000 lagunek langabe izateari utziko diotela esan du Urkullu lehendakariak

Euskadin erregistratutako langabezia murrizten joango da urteko bigarren erdian; hain zuzen, 6.000 lagun baino gehiagok langabe izateari utziko diote eta ekonomia modu "neurtu baina jarraituan" haziko da. Hala esan zuen Iñigo Urkullu lehendakariak egubakoitzean, Eusko Legebiltzarraren kontroleko osoko bilkuran, 2015eko aurrekontuen gaineko galdera bati erantzunez. Gaineratu zuenez, 2015ean Euskadiren BPG %1,7 haziko dela uste du bere lantaldeak.

Lanbai azokara 800 lagun joan ziren, eta 125 lan-elkarrizketa egin ziren denetara

Antolatzaileek iritzi ona agertu dute II. Lanbai azokaren gainean; "pertsona bakarrak lana aurkitzen badu, merezi izan du", esan dute MUko ordezkariak

L.K. | ARRASATE
II. Lanbai Enplegu eta Formakuntza azokaren balorazio ona egin dute antolatzaileek, eta honako datuak eman dituzte: 800 bisitari inguru izan zituen azokak, iazko antzera; 25 enpresak egin zizkieten lan-elkarrizketak beste horrenbeste hautagairi; eta denetara 125 lan-elkarrizketa egin ziren. Elkarrizketak egin zituzten enpresen artean, hauek izan ziren: AZK, Mondragon Lingua, LKS eta Laboral Kutxa. Ekainaren 19an egin zuten Lanbai.

Aukerak aprobetxatzera
Iaz Mondragon Unibertsitateak egin zuen halako lehenengo azoka, eta aurten, Arrasateko Udalak bat egin du iniziatibarekin, MUre-kiko hitzarmen bidez. Baina ez Udalak bakarrik: antolatzaile gisa, Arrasate Geroa Ganoraz, Eures, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzak ere hartu dute parte. Aurten, azoka MUko Goi Eskola Politeknikoak Garaian duen egoitzan egin da, baina, aurreko hitzaldi eta tailerretarako, Arrasateko Udalak Kultureteko instalazioak utzi zituen.



Aurtengo Lanbai azokako irudi bat. | VK COMUNICACIÓN

35 enpresatako ordezkariak elkartu ziren azokan, eta gazteen curriculumak jaso eta argibideak eman zizkieten hurreratutakoei. Laboral Kutxako ordezkariak esan zuenez, gazteak "naturaltasunez, ze egoera dagoen jakinda, edozein aukera aprobetxatzeko jarrera irekiarekin" joaten ziren curriculumak uztera.
Iaz, azokan bertan bi lagunek aurkitu zuten lanpostua, eta curriculumak utzi zuen jende askok. MUko arduradunek aurtengo

azokan esan dutenez, "halako azoka baten pertsona batek lana aurkitzen badu, merezi izan du antolatzea".
Ikasleak eta langabeak
Iazko azokara, batez ere, MUko ikasleak joan ziren; aurten, MUkoak, beste unibertsitate batzuetakoak eta Lanbide Heziketako ikasleak. Horrez gain, antolatzaileen helburua zen moduan, langabezian geratu den jendea ere joan zen azokara.

Ramon Flecha | Hezkuntza-ikertzailea

"Umeak ikasten duen dena inguruko guztiekin dituen harremanek baldintzatuta dago"

- Irakaskuntza Dialogikoaren korrontearen teorikoetako bat da Ramon Flecha
- Elkar Hezi ikastetxeak gonbidatuta, hango irakasleei formazio jardunaldia eman zien

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Oñatiko Elkar Heziko langileei formazio jardunaldia ematen izan zen Ramon Flecha (Bilbo, 1952) joan den egunean. Hezkuntzaz gain, Europan egiten diren ikerkuntzen inpaktu soziala ikertzen lan egiten du. Besteak beste, irakaskuntza dialogikoaz eta irakaskuntza-komunitateez hitz egin zuen Oñatin.

Elkar Heziko irakasleendako jardunaldia egin duzu. Nola ikusi dituzu, ze gaik interesatu izan ditu?

Oso irakasle motibatu eta interesatuak ikusi ditut. Ikasleei ematen ari zatzaizkien formazioa gero eta hobe izateko interes handia dute. Dagoeneko bada oso zentro ona, baina informazioaren gizarteak mailak asko igotzea exijitzen du eta, horretan, Europa atzean geratzen dabil eta hori igarri egiten da hezkuntzan, ekonomian eta jendartean. Irakasleek badakite hori eta gauzak gero eta hobeto egin nahi dituzte.

Zertan hobetu dezakete, hortaz?

Hiru gauzatan: denean —musikan, matematiketan, ingelesean...— ikaskuntza instrumentala egin; horrez gain, balioetan umeak hezten gabiltzan moduaz, badaude Espainiako estatuko komunitate zientifikoa asko kezkatzen duten kontuak, hala nola mutil batek neska bat hiltzen duen bakoitzean, mutilari sexua eskaintzen dioten nesken jarraitzaile-kluba sortzen dela. Hirugarren alde emozioak eta sentimenduak dira: adiskidetasun sentimendua Oñatik 18 urtera hezi behar da, guztiz eurekin fida ahal izan daitezen lagunak izan ditzaten neska-mutikoek.

Ikaskuntza dialogikoaren teorikotako bat zara eta horren aitetako bat gisa zaituzte.

Horren aita nazioarteko komunitate zientifikoa da; baina bai, rol bat izan dut, aurretik egin-dako aportazioak jasoaz, Paulo Freirerenak, kasu; 1969an eman zuen berak ekintza dialogikoaren teoria bat.

Labur, irakaskuntza dialogikoak hau dio: neska-mutikoek ikasten duten dena jende guztia-rekin —ikasgelan, patioan, etxean, Interneten...— dituzten harremanek baldintzatuta dagoela. Umearekin harremana duen jende guztia norabide berean boga egiteko ados ipini behar dela dio teoria horrek.

Eta nola ikusten duzu Elkar Hezi bide horretan?

Oso ondo, oso zentro ona delako eta, ona izan arren, hobetzen jarraitzea garrantzitsua dela badakielako.

Eta gurasoak? Badaude joera berri horietara zabalik?

Bai. Hezkuntza-ekintza arrakastatsuetara irekitzen direnean eskolak, familiak parte hartzen dute. Euskadin, hala egin duten ikaskuntza-komunitate asko dago. Inoiz parte hartu ez zuten familiak, honako perspektiba ikusten dutenean, gustatu egiten zaie eta parte hartzen dute.

Beraz, bukatu da hezkuntza eskolan bakarrik egiten den ustea.

Zorritzarrez, estatuan hala esan izan da denbora luzean, baina ikastetxeek esan izan dute hori. Curriculum-proiektuak klustroen konpetentzia eta beste inorena ez zirela ere esan izan zen. Familiak ez zuten halakorik esan, baina ikastetxeek esaten zutelako, familiak onartu egiten zuten.

Ikastetxeak eta familiak berdinak dira, parekoen arteko elkarriketa dute?

Zentro gehienetan, ez, baina Elkar Hezin, bai. Hemen berdintasunezko elkarriketa dago gurasoe-kin, aiton-amonekin... zentro honetan, eta arrakasta duten munduko zentro guztietan.

CREA zentroko fundatzaileetako bat ere bazara.

Bai. Diziplina askotariko ikerkuntza zentroa da, eta hainbat arlotan arrakasta aztertzen du: hezkuntzan, ekonomian, generoan... arrakasta zertan datzan. Ez ditu arazoak aztertzen, konponbideak baizik. CREA asko lantzen duen gai bat genero-harremanena da, zentzu guztietan, eta nola lortu gizon-emakumeen arteko harremanak onak izatea, eta gaztetxoek norekin harremanetan dauden ondo aukeratzen jakitea eta zentzu horretan euren burua ondo antolatu dezaten lortzea.

Eta non erakusten da hori?

Etxean, ez; zentroetan erakutsi behar da. Izan ere, neska-mutilek ez dizkiete inoiz gurasoei kontu

"Balioetan hezten gabiltzan moduan, eta emozioetan, hobetu behar da"

"Umearekin harremana duten denak ados ipini behar dira"



Ramon Flecha, egunean Oñatin. | LEIRE KORTABARRIA

intimoak kontatu, eta ez dizkiete inoiz kontatuko; beraz, zentroetan izan behar da irakaskuntza hori. Arrakasta handia duten ekintza batzuk daude: neska-mutillak horretarako gertatuta dauden beste neska-mutil batzuekin komunikatzen dira; azken horiek zentrorra joaten dira, berriketan egiten dute eta gauzak lortzen dira horrela.

Arraza-diskriminazioa ere landu izan duzu, ezta?

Bai; multikulturaltasuna asko lantzen dugu, CREA, mundu mailako zentro gisa, dibertsitate handikoa delako: baditugu ijitoak, musulmanak, juduak... denetarik. Barruan dibertsitate hori dugu-nez, erraza da guretako dibertsitate handikoa den mundu baten lan egitea.

Elkarriketa horrekin, Irakeko gerra garaian, adibidez, gure zentroko juduek eta musulmanek batera egin zuten lan. Harvard-en, egunero, batera otoitz egiten zuten musulmanek, juduek, agnostikoek...

Multikulturaltasuna ondo kudeatzen dute gaur egun ikastetxeek?

Ez dabilta ekintza arrakastatsuak egiten, baina hori ez da zentroen errua, baizik eta *burutsuena*, multikulturaltasuna dagoenean maila jaitsi egiten dela esaten dutenena. Zentroek arazoak dituzte, baina maila ez da jaisten ekintza arrakastatsuak egiten badira.

Zeintzuk izan litezke horiek?

Asko. Bat haxe da: ikasgela modu interaktiboan antolatzea. Kultura askotako neska-mutikoek elkarri laguntzen diote eta askoz historia gehiago, askoz fisika gehiago... ikasten dute, baina baita elkarrekin harremana izaten ere, eta hori da etorkizunean enpresetan gertatuko zaiena.

Katalunian hizkuntzak kudeatzeko modua hemen egin denarekin konpara daiteke?

Ez naiz horretan aditua, beraz, iritzi soila emango dut. Arrazoizkoa den moduan, Katalunian errazagoa izan da, katalana errazagoa delako dagoeneko gaztelania dakienarendako, eta hemen distantzia handiagoa dago bi hizkuntzen artean, baina bi lekuetan egin da ondo. Nazioartean, batzuetan eredu gisa ipintzen dira. Oso bestelako kasuak daude, hala nola Belgikan, Lovainako Unibertsitatearen kasua: egin behar zen hizkuntzaren kontura haserretu egin ziren eta bi unibertsitateetan banatu ziren. Hemen, kolaborazio moduak bilatu izan dira.

Gora datuak!

GOIENA TELEBISTAK 2.000 IKUS-ENTZULE GEHIAGO

CIES erakundeak egindako maiatzeko azken neurketaren arabera, Goiena telebistak 10.000 ikus-entzule ditu, egunero, astean barrena, Gipuzkoan; iazko abenduan baino 2.000 ikus-entzule gehiago.

Eskerrik asko zuri, bertakoa eta sasoikoa aukeratzearren.



HERRIAK

ELGETA

160 lagunek ospatu dute Espaloiaren 10. urteurrena

- Kultura eta euskara ardatz izan dituen proiektuaren alde egin dute topa
- Gauzak ondo bidean kudeatzaile berriak izango ditu, laster, antzokiak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Festa eguna izan zen zapatua Elgetako Espaloia kafe antzokian. Hamar urteotan Goibeko euskara elkarteak kudeatu du gunea, eta zapatuan lagunartean ospatu zuten urtemuga.

Aurreikusi moduan eta euria egin arren, iluntzean, Gasteizko Ilusionismo elkarteko hainbat lagun ibili ziren tabernaz taberna trikimailuak egiten. Sinestu ezinezko gauzak egin zituzten afaltzeko orduan ere mahaitik mahai.

Gala berezia

Afaldu aurretik urdaiazpiko eta gazta dastatzea egin zuten Espaloian, eta behin mahaian eserita ipuin bat kontatu zuen Amaia Arriaran bergararrak. Postrearen eta kafearengan ostean eman zioten hasiera galari.

Askotariko diziplinak jorratu dituzte Espaloian hamar urteotan, eta horien guztien adierazgarri izan zen gala. Asier Kidam magoa, Behi Bi Blues musika taldea, Gaizka Morales elgetarraren dantza ikuskizuna, Grace Hospital break dance taldearen saioa, Txaflas umoristaren bakarrizketa... mahaitik jarraitu zuten gala urteurrenoko ospakizunera gerturatutako 160 lagunek, eta bertatik entzun zituzten kafe antzokitik pasatako hainbat sortzailearen zorion mezuak ere. Aurrez grabatutako ikus-entzunezkoen bitartez aretoaren ibilbidea eskertu eta

zoriondu zuten, besteak beste, Rafa Ruedak, Pettik, Imanol Muruak, Ruper Ordorikak, Andoni Egañak, Yllana taldeak, Egoitz Lasak, Mikel Pagadik, Nagore Aranburuk, Anthony Blakek, eta Luis Piedrahitak.

Amaierako sorpresa ere izan zuen galak. Hamar urtean Magia Mostra egin ostean magia egitera ausartu ziren kultura taldeko Iban Arantzabal eta Josu de Vega. Pertsona bat tele-transportatzeko gai zirela esan zuten, eta boluntario bat eskatu zuten. Proba egitera prest agertu zen bakarrenetarikoa Josu Arantzabal izan zen, eta kutxa batean sartu zuten Arantzazura bidaltzeko asmoarekin. Bidali, bidali zuten baina Ipuruara, ortura, lantokira eta herriko plazara, eta azkenean Arantzazutik buelta egin gabe itzuli zen aretora.

Zorion mezuak

Goibeko euskara elkarteko bazkide asko elkartu ziren zapatuko afarian, eta topa egin zuten egingdako ibilbidea gogoan. "Zoragarria izan da ibilbide hau zuekin batera egitea", esan zien elkarteko presidente Iban Arantzabalek.

Erabiltzaileen aldetik ere esker oneko mezuak jaso zituzten kultura taldeko kideek: "Luxua izan da Elgetarendako", adierazi zien bazkide batek.

Orain, etapa berria zabaltzen da Elgetako kafe antzokian, eta baita 250 bazkide inguru dituen Goibeko euskara elkartearen ere.



Aretoagatik topa egin zuten afarian. | JOSETXO ARANTZABAL



Grace Hospital brake dance taldea. | J.A.



Arantzabal anaiak eta Josu Vega magia saioan. | LARRAITZ ZEBERIO

RAFA RUEDA
MUSIKARIA

"Benetan eskertzen dut mendi punta honetatik egin duzuen lana. Beharrezkoak ditugu Espaloia moduko aretoak eta hemen dagoen moduko jendearekin".

NAGORE
ARANBURU
AKTOREA

"Hamar urte jada! Egia esan poza ematen du horrelako toki bat, horrelako programazioarekin eta horrelako jendearekin. Etorri garenetan oso gustura egon gara".

RUPER
ORDORIKA
MUSIKARIA

"Oñatarrak ere etorri gara honaino eta beste asko etorriko dira. Benetan eskerrik asko egiten duzuenagatik. Gu ez gara deus horrelako tokirik gabe".

ANTHONY
BLAKE
MENTALISTA

"Benetan zorionak egindako lanagatik. Eta zu ikusle: jarraitu etortzen! Antzokiak kultura dira, demokrazia dira, askatasuna dira!"

Kudeatzaile berriak, laster

Lantalde bakarra aurkeztu da Udalak deitutako lehiaketara. Sebastian M. Rodriguezek, Batirtze Arantzabalek eta Virginia Imazek osatzen dute lantalde hori. Gauzak ondo bidean, uztaileko osoko bilkuran onartuko du udalbatzak esleipena, eta irailetik aurrera sartuko da indarrean.

Taldea berriak, ordea, uztail hasieran ekingo dio kafe antzokia ustiatzeari. Alde biak akordio batera iritsi dira uztailean zerbitzuak etenik izan ez dezan.



Udaleko kideak, txupineroak eta balkoi ederrenaren irabazlea. | JOSETXO ARANTZABAL



Euripean toreatzera irten zen ausarten bat edo beste. | IMANOL GALLEGO



Bandaren kontzertuak jendea batu zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Jaietako beroketa gauean umorea eta biboteak izan ziren nagusi. Irudiak Bibote lehiaketako irabazleak sariekin. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Eskoriatzan, eguraldiari aurpegi ona jarritz ospatu dituzte San Pedro jaiak

Txosna batzordeak antolatutako Bibote egunari esker, jaiak egun bat lehenago hasi dituzte

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Mende erdi betetzen dituen Eskoriatzako kirol elkarteko kideek bota zuten aurtengo txupina, zapatuan. "Ohore bat izan da eta oso pozik gaude", azaldu zuen elkarteko presidente Jabi Corbalek. Etxafuegoaren ostean, herriko bandak girotu zituen San Pedro jaietako lehen minutuak.

Txupinaren aurretik egindako margo lehiaketako sariak ere

banatu zituzten zapatu eguerdian. 3 eta 5 urte arteko onena, Enaitz Carmona izan zen. 6 eta 9 urte bitartekoa, Nahia Mateos eta 10 eta 12 urte arteko onena, aldiz, Ainhoa Loiti.

Epaimahaiaren ustez, Eskoriatzako balkoi ederrenaren jabea aldiz Bega Barko da. Barkok sorpresaz eta oso pozik jaso zituen Udal ordezkariak eman zizkioten orkidea eta 100 axtrokiak. "Sari

bat irabazten dudan lehen aldia da. San Pedro jaiei hasiera emateko modu bikaina da", azaldu zuen Barkok.

Egun bat luzeagoa

Txosna batzordeak antolatuta, egubakoitzeko Bibote egunarekin ekin zioten jaietarako motorrak berotzeari. *Photocall* eta festaren ostean, bibote originalenak ere saritu zituzten.

Bibote artifizial onenaren saria, Dorleta Kortazarrek jaso zuen –Frida Kahloz moztarotatu zen–; bibote natural politena, Mikel Letonarena izan zen; eta Txirrotutako Uranioak sari berezia, Asier Hermandezen biboteak jaso zuen.

Biboterik gabe, baina ondo pasatzeko gogo handiarekin, gazteek ederto pasatzeko aukera ugari izan dituzte. Lehen aldiz

gazte kuadrillek, nagusien antzera, jolasak egin zituzten zapatuan eta bigantzen aurrean ere abileziaz beteriko hainbat errekorre egiteko gai izan ziren. Bandaren emanaldia, buruhandiak, antzerkiak... Egitarau horrekin, normalean da euriak ere festekin bat egin izana.

Danborrada nagusi

Danborren burrunbadak ez zuen eskoriatzarrik etxean utzi, eta kaleak jendez bete ziren. Batailoi ezberdinek gogotsu jo zuten danborra eta umore ona izan zen nagusi. Aurten gainera, Harrotasun egunaren harira, batailloietako batek, euren kamisetekin ortzadar bandera sortu zuen.

Baina jaiak ez dira bukatu eta martitzen gauera arte, ez dituzte sanpedroak agurtuko.



MIGUEL ANGEL ARANA

"Nik egun guztia kalean ematen dut, horrela ospatzen ditut jaiak. Orain bilobarekin atera naiz berak buruhandiekin gozatu dezan. Datozen egunetan ere antzera egingo dut, jaiak etxetik kanpo gozatzeko dira".



JUNE ARMENDARIZ, IOSU ARMENDARIZ, MAIA ARMENDARIZ ETA OIHANA ERIZ

"Orain iritsi gara, baina familiarekin sanpedroak oso ezberdinak dira. Horrela ere ondo pasatzeko aukera dago, baina lehen egiten ez genuen bezala, alabekin egunez ibiltzearekin konformatu beharko gara. Hala ere ez pentsa, ederto pasatzeko asmoa dugu! Goizeko ekitaldien ostean, bazkaltzera joango gara, eta arratsaldean berriro etorriko gara".



SARA PAGALDAI, ANE ALONSO ETA LOREA PAGALDAI

"Buruhandiak izugarri gustatzen zaizkigu. Barraketara eta kaleko postuetara ere gerturatzen gara. Zortea dugu, eta gurasoak ongi portatu dira, gauean kontzerturen bat edo danborrada dagoenean etxera bueltatzeko ordua aldatu egin digute. Sanpedroak izugarriak dira!".



RUBEN GARCIA ETA ADRIAN GARNATEO

"Ez gara etxean geratzen diren horietakoak. Atzo danborradan parte hartu genuen eta gaur buruhandi bezala hasi dugu eguna, ondoren, bandaren kontzerturako aulkiak ere guk jarri ditugu, baina lanak ez digu festa egiteko gogorik kentzen. Gaur ere, egun argiz bueltatuko gara etxera".



Gazteek ederto pasa zuten eurentzako jolasetan. | IMANOL GALLEGO



Margo lehiaketako hiru irabazleak. | IMANOL GALLEGO



Umeek zein nagusiek egin zuten barre atzo arratsaldean Mikel Laskurain bergararrarekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Adin eta janzkera ezberdineko batailoiek hartu zuten parte nagusien danborradan. | IMANOL GALLEGO

ANTZUOLA

Umeek ere eguraldi txarrari aurre egin zioten Kalebarrengo jaietan

Giro eskasa zegoen arren, primeran pasatu zuten jokoetan eta buruhandien artean

LEIRE KORTABARRIA | ANTZUOLA
Eguraldi oso atsegina ez zegoen arren, hainbat herritar batu ziren zapatuan Kalebarrengo plazatxoan. Helduak hango tabernetako mahaien inguruan jesarri ziren eta umeek hartu zuren protagonismoa, eurendako antolatutako joko eta jolasetan. Baloiarekin jolastu zuten gehienek, eta beste batzuk ur-jokoekin dibertitu ziren.

Goienari ume batzuek esan ziotenez, buruhandiak bereziki gustuko zituzten gehienek, eta horien zain zeuden bitartean primeran pasatu zuten baloia-rekin jolasten.

Buruhandiak irtetearekin bat euria hasi zen, eta Kalebarrengo kioskoan babestu behar

izan ziren ume zein buruhandiak, baina hala ere gustura ibili ziren eta taldeko argazki-rako batera ipini ziren.

Musean egitera batu ziren ere zapatu arratsaldean zortzi bat gizonezko. Umore onean, "Kalebarrengo txapelketa" jokatzeko zebiltzala esan zieten kazetariei.

Gaur, San Martzial

Kalebarrengo jaiak domekan bukatu ziren, baina gaur, astelehena, Lizarraga auzoko San Martzial eguneko ospakizunek hartuko diete lekukoa. 18:30ean etxafuegoak botako dituzte; gero, meza nagusia, gazta-jana eta ardoa, eta 21:00etan, afaria eta mus txapelketa izango dira.



Pilotarekin jolastu zuen ume talde batek. | LEIRE KORTABARRIA



Musean jokatzera batu ziren zenbait gizonezko. | LEIRE KORTABARRIA



Kioskoan ibili ziren umeak buruhandiekin. | JOSETXO ARANTZABAL

Gutxituendako egunerokoa dena bizi izateko aukera izan da Oñatin

Mugikortasun arazoaren gainean kontzientziatu du Trauti elkarteak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Oñatiko Trauti elkarteak bere eguna ospatu zuen zapatuan, bigarren urtez. Helburua izan da elkartearen lana ezagutaraztea eta egunero mugikortasun arazoak dituztenen egoeraz kontzientzia zabaltzea. Horretarako, Foruen plazan zenbait ekintza egin zituzten: besteak beste, Gasteizko saltzaile baten eskutik, gorpildun jesarlekuak utzi zizkioten jendeari plazatik ibiltzeko, begiak estalita eta makilarekin egiteko moduko zirkuitua ipini zuten, pintxoak saldu zituzten eta bazkide berriak lortu zituzten.

Trautiko Rafael Kortabarriaren esanetan, II. Trauti Eguna ondo joan da: nahiko jende joan zitzaien eta neska-mutikoak gustura ibili ziren gorpildun jesarleketuetan, itsuen zirkuitua egiten



Umeak, gorpildun jesarlekua eta itsuen zirkuitua probatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

eta baita Ainhoa Villar hezitzaileak ekarri zituen laguntza-txakurrekin ere. Horrez gain, iaz 76 bazkide berri lortu zituzten eta aurten ere ondo joan zen izenematea. Bazkide bakoitzak bost euro bakarrik ipini behar ditu eta "urteko gastu batzuk libratzeko" ondo datorkiela esan zuen Rafael Kortabarriak.

Hantxe lanean zebilen Luke-ne Igartuak honakoa esan zuen: "Elbarriek dituzten zailtasunak ikusarazi gura ditugu egun honekin. Guk ezohiko egun gisa bizi dugun zerbait elbarriendako egunerokoa da".

Herriko obren errebasoa

Egubakoitzean egin zuen Trautiko urteko batzar orokorra, eta iaz oztopoak kentzeko egin ziren lanak errebasatu zituzten kideek: kiroldegia eta anbulatorio aurreko mailak kendu ziren, San Juan kalea ere egokitu zen, harlosa batzuk ere bai, eta denda batzuetara sartzeko arrapala ipini zen. Rafael Kortabarriak esan zuenez, iaz bizpahiru dendak egin zuten obra hori, eta aurten beste bat da gauza bera egitekoa. Kanposantuan ere, nitxoetara jaisteko jesarlekua ipini du Udalak eta obra gehiago egin behar ditu.

TXEMA MARTIN
HERRITARRA



"Bazkide egin naiz oraintxe. Egia esan, ez nago gaian jantzita eta ez nau gertutik harrapatzen, baina laguntza txiki bat eman gura dut".

ANTON MARTINEZ
TRAUTIKO KIDEA



"Iaz egin nintze bazkide. Gaur zerbitzari nabil, pintxoak eta edaria prestatzen. Jendea badabil, iaz baino gutxiago baina nahiko ondo".

PILAR ZUBIZARRETA
HERRITARRA



"Legazpitik etorri naiz oraintxe; lagun batzuk dauzkat eta atzo gonbidatu ninduten etortzera. Kontzientziatzeko balio du egun honek, bai".

ISABEL REBOLLO
TRAUTIKO KIDEA
LUKENE IGARTUA
TRAUTIKO KIDEA



"Bazkideak egiten gabiltza. Gura duenak bost euroekin lagun dezake. Oso ondo doa, orri batzuk bete ditugu. Egundak kontzientzia zabaltzeko balio du: gu ibili behar garen leketan ibiltzeko zailtasunak dituen jendea dagoela eta inguruko laguntza behar duela".

Iaz baino jende gutxiago, baina helburua beteta Ikasle Egunean

L.K. | OÑATI

III. Ikasle Eguna ospatu zuten egubakoitzean Oñatin. DBHko 3. mailatik Batxilergorako ikasleei parranda egiteko eta ondo pasatzeko eguna eskaintzea da helburua, eta betetzat jo zuten hori antolatzaileek.

Jende gehien, kontzertuetan

Ekintzak 12:30 aldera hasi ziren, triki-poteoarekin; 14:30ean, berdura azokan 60 bat lagun batu

ziren bazkaritarako; gero, uni-bertsitate ondoan jokoak egin zituzten. 19:30ean beste poteo bat egin zuten, eta bukatzeko, gauera arteko kontzertuak eta erromeria.

Iaz baino jende gutxiago ibili zela esan dute antolatzaileek; batez ere bazkaritarako, iaz gazte gehiago batu ziren. Gauean animatu zen jende gehiago jaiarekin bat egitera, kontzertuen harira.



Neska koadrila, bazkarian. | IMANOL SORIANO

Nagusienei omenaldia, errifa, bazkaria eta gehiago izan zituzten erretiratuek

L.K. | OÑATI

Oñatiko 240 erretiratuek ederki pasatu zuten domekan. Ospakizuna izan zuten: meza, Udalararen omenaldia eta nagusienei Udalararen eta Pake-Lekuren txapel eta zapi eta erloju banaketa –Miren Arrazola (95 urte) eta Victor Lopez de Okariz (92 urte)–, Oñatz dantza taldearen agurra eta dantzari txikien emanaldia, bazkaria Zubikoa

kiroldegian, bertsolarien saioa eta iluntzera arte dantzaldia izan zituzten. Nagusien sarietaz gain, errifan beste 14 sari banatu zituzten. Alkatea eta beste udal ordezkari batzuk ere bertan izan ziren.

Sari potoloenak honakoek irabazi zituzten: bi lagunendako Benidormera bidaia, Udalararen eskutik, Hilario Garciarendako; spa baten egonaldia, Purificacion Martinen-

dako; maleta sorta, Milagros Urta-zarendako; eta pultsometroa, Tere Lazkanoiturbururendako.

Dena antolatu moduan

Pake-Lekuko presidente Joxe Mari Igartua pozik zegoen: "Oso ondo joan da eguna; dena programatu moduan irten da". Musika bukatu eta gero, dena txukuntzen gertatu ziren batzuk.



Victor Lopez de Okariz eta Miren Arrazola, dotore-dotore bazkarian. | JOSETXO ARANTZABAL



Herri kirolak Biteri plazan, iazko udaleku irekietan. | JOKIN BEREZIARTUA

Gaur hasi eta uztailaren 18ra arte, udaleku irekiak

Aurten 2 eta 12 urte arteko 226 haurrek eman dute izena, eta 12 taldetan banatuko dira; hiru gunetan egongo dira: Musakola, San Andres eta erdigunea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Gaur hasi eta uztailaren 18ra arte herriko txikienek hartuko dituzte kaleak, hastera doaz-eta Txatxilipurdiren udaleku irekiak. 2 eta 12 urte arteko 226 umek eman dute izena aurten eta 12 taldetan banatuko dira. Ume horiekin guztiekin lan egiteko 25 hezitzailez osatutako lantaldea eratu du Txatxilipurdik.

Musakola, San Andres eta erdigunean egongo dira eta adinaren arabera orduetegiak zehaztu dituzte: Bilin-bolonka taldeko haurrak –2 urte– 10:15etik 12:15era, Beibilekukoek –3 eta 6 urte artekoak– 10:00etatik 13:00etara, eta azkenik Bihurrekixetan taldekoek –6 eta 12 urte artekoak– goizez 10:00etatik

13:00etara, eta arratsalde, gura izan ezker, 15:30etik 17:30era. Zaintza zerbitzua egongo da 09:00etatik 10:00etara.

Urteroko ekintzek ez dute hutsik egingo; esaterako, San Ferminetako entzierroa, uraren egunak eta Osintxuko gau bate-

ko egonaldia. Herrian bertan ere hainbat ekintza egingo dituzte.

Haurren autonomia lantzen
Hainbat dira udalekuotako helburuak: "Euskaraz jolastuz ondo pasatzea da garrantzitsuena, baina beste batzuk badaude: pertsonetikiko eta naturarekiko harremana sustatzea, haurren parte-hartzea eta autonomia bultzatzea... Haurren autonomiarena oinarrietako bat da guretako; haurrei entzun egin behar zaie, zeresan handia dute-eta", adierazi du Haur Saileko koordinatzaile Maialen Gorosabelek. Era berean, *txatxilarrak* gogotsu daudela dio Gorosabelek: "Udaleku bakoitza esperientzia eta erronka berri bat da, gogotsu gaude lanerako".

ESANAK

"Haurrei entzun egin behar zaie, zeresan handia dute-eta"

MAIALEN GOROSABEL | TXATXILIPURDI

Kepa Urteaga | Jaietako zinegotzia

"Orain arte moduan, jai baketsuak eta gozatzekoak izaten jarrai dezatela"

Sanjuanen balorazio positiboa egin du Urteagak: "Jendetsuak izan dira eta giro polita egon da", dio

J.B. | ARRASATE
Jaietako zinegotzi Kepa Urteagak San Juan jaien balorazio positiboa egin du. *Zeuk in, zeuk jan* bazkarian 500 lagun batu direla-eta, oso pozik azaldu da, baita kalean egon den "giroa eta jendetza" dela-eta. Jaiak aste barruan tokatu arren, espero baino jende gehiago batu dela adierazi du.

Ze balorazio egiten duzue aurten-go San Juan jaietz?
Positiboa. Eguraldiak lagundu edo ez, festa jendetsuak izan dira eta jai giro polita egon da. Ekintzen artean *Zeuk in zeuk jan* bazkaria nabarmenduko genuke, 500 lagun batu ditu-eta. Jendea kanpoan geratu zen, eta horrek erakusten du herritarrek gogotsu



Kepa Urteaga. | MONIKA BELASTEGI

daudela halako ekintza ezberdinetan parte hartzeko. **2015erako bazkari horretan aldatu diren alderdiak zeintzuk dira?**
Ikusi egin beharko dugu aurrez zenbat jende ematen duen izena. Espazioa mugatua da eta beraz, berba egin beharko dugu lekuz aldatu behar den edo ez.

Palentziako mendietara irteera, Besaideri esker

Murcia (2.351 metro) eta Fraile (2004 metro) gainak igoko dituzte, uztailaren 12an eta 13an

J.B. | ARRASATE
Besaide Mendizale Elkartek irteera antolatu du uztailaren 12 eta 13rako. Uztailaren 12an abiatuko dira Arrasatetik, goizaldeko bostetan. Egun berean Murcia tontorra egingo dute, 2.351 metrokoa. Hurrengo egunean, uztailaren 13an, Fraile gaina egingo dute, 2.004 metro dituen gailurra. Bi ibilbideak bost ordukoak izango dira.

Irteeran parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Horretarako, gaurtik uztailaren 2ra arte, Besaide elkartearen egoitzara gerturatu beharra dago, 19:30etik 20:30era.

Espeleologia ikastaroa
Bestalde, Besaidek jakitera eman du ekainaren 14 eta 15erako aurreikusita zegoen espeleologia ikastaroa uztailaren 26 eta 27ko asteburura atzeratu dela. Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatzen du eta Aralarko mendilerroa joango dira. Izena online eman behar da honako webgunean: www.gmf-fgm.org.

Bi modalitate daude, hastan ikastaroa eta hobekuntza. Biek dute prezio berbera: federatuendako 106 euro eta ez federatuendako 126,5 euro. Plazak mugatuak dira.



Bi mendizale Murcia gailurrera bidean, Palentzian. | BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Udalaren eta Ibai-Arteren arteko hitzarmena, herriko merkataritza bultzatzen jarraitzeko

Udalak eta Ibai-Arte merkataritza elkarteak hitzarmena sinatu dute herriko merkataritza bultzatzeko. 2009a ezker, urtero sinatzen dute lankidetzaren hitzarmen hori, elkarrekin urte osoan zehar garatzeko ekintza plan bat adosteko. Aurten 31.000 euroko ekarpena egingo du Udalak. Era berean, euskara sustatzeko konpromisoa hartu du Ibai-Arte: mezu idatziak eta jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo elebitan egingo dira. Eta elebitan egiten denean, euskarari lehentasuna emango diote.

Puntu beltzen bat ere izanda, ustezko sexu eraso kasu.
Bai. Udalak erabat gaitzesten du ustezko eraso hori. Halako jarre-
rak gure gizartetik kanpo egon beharko lirake; jaietan zein jaiak ez direnean. Txosnaguneko agerraldiarekin bat egin genuen, bertan egon ginen.

Nola erantzun zuen jendeak?
Ikusi da herria halako jarreraren aurka dagoela, argi eta garbi.

Borrokaldi jendetsuaren gainean ze balorazio egiten duzue?
Berdina diogu. Gu halako jarrera eta ekintzen aurka gaude, erabat. Azken lau urteetan halako bi gertaera izan ditugu eta beraz, ez dira horrenbeste. Horrekin esan gura duguna da sanjuanak ez direla festa polemikoak; gus-
tatuko litzaiguke bat bera ere ez gertatzea, baina... Orain arte beza-
la, jai baketsuak eta disfrutatze-
koak izaten jarrai dezatela.

Erredakziora barraken gaineko kritika bat heldu da. Jai gunetik urrun daudela, goizegi joan direla... Zer duzue esateko?
Izena emateko epea beste urteetan egin moduan ireki dugu eta etor-
tzen dira gura dutenak. Esan behar dugu guretako ez direla jaietako eskaintzarik garrantzitsuena, guk beste ekintza batzuei ematen die-
gu garrantzia. Lekua ez dela apro-
posa? Bada, erdigunean ez dugu besterik; Laubiden zezen plaza dago, Biterin beste ekintza batzuk egiten dira, eurek ez dute Ferixa-
lekua gustuko... Maiatzaren Lehe-
na plaza trantsizio puntu bat da gutxienez. Hala ere, jai giroa ekin-
tze jartzen dutela uste dugu.

Datorren urtera begira zer?
Urtero moduan, ahalik eta jai parte-hartzaileenak lortzen saia-
tuko gara, jendearen ekarpenei zabalik. Jaiak hobetzen saiatuko gara, beti egin dugun moduan.

Areto futbola etenik barik 24 orduz Zaldibarko pilotalekuan

Uztailaren 12an jokatu da txapelketa berezia; izen-ematea, hilaren 9ra arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Uztailaren 12an jokatu da Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa, eta antolatzaileek uztailaren 9ra arte emango dute aukera izena emateko. Batetik, 637 78 74 41 telefono zenbakira deitu edo Whatsapp mezua bidal daiteke, eta, bestetik, zaldibarko24orduak@gmail.com helbide elektronikora mezua bidal daiteke. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko du, 2095 5055 54 107482051 kontu korrante zenbakian. Kontzeptu moduan taldearen izena izango dena jartzea eskatu dute.

'Feedback' positiboa

Eider Murgoitio, Joan Ander Azkoitia eta Ander Arizaleta ari dira buru-belarri antolakuntzan. Aurtengoa hirugarren aldia izango da: "Urte osoko txapelketa antolatzen zutenak nekatuta zeuden 24 orduko ere antolatzeaz. Beraz, eurekin harremanetan jarri ginen eta ez zuten arazorik ikusi. Esan beharra dago edozein zalantzaren aurrean euren gaitasuna jotzen dugula eta laguntzeko gertu egoten direla beti", adierazi du Arizaletak. Txapelketa antolatzen hastearren arrazoia ekonomikoa izan zen, unibertsitateko proiektu baterako. Baina azken bi urtetan bestelakoa da helburua: "Jendeak eman digun *feedback* positiboaren ostean ondo pasatzeko antolatzen dugu. Futbol-zaleek eskertu egiten dute halako txapelketak antolatzea; gu horrekin geratzen gara".

Txapelketa eta kantxa berezia

Arizaletaren ustez, "berezia" da kantxa: "Inguruan ezin daiteke halako txapelketarik aurkitu, lekuagatik bereziki. Zaldibarrek duen historia, harrizko pareta... Gainera, gazteak beterranoen aurka ikustea ederra da, badago belaunaldiz belaunaldiko transmisio bat". Beste bereizgarri bat ere badu 24 ordukoak, antolakuntza taldeko kidearen arabera: "Beste txapelketa batzuekin alderatuta, ez dago zertan jokalaririk on izan; beroaldiak beroaldi, harreman ona da nagusi".

Hiru sari

Arauk Zaldibarko ligako berberak izango dira eta epaileak joka-



Bi jokalarik baloia lortzeko lehian, 12ko txapelketan. | GOIENA

ESANAK

"Futbol-zaleek eskertu egiten dute halako txapelketak antolatzea; gu horrekin geratzen gara"

ANDER ARIZALETA | ANTOLAKUNTZA

lariak eurak izango dira: "Normalean, talde guztiek partidu kopuru bera arbitratzen dute". Hiru sari egongo dira: talde irabazlearendako, garaikurra, bildotsa, urdaiazpikoa eta gazta; txapeldunordearendako, garaikurra, urdaiazpikoa eta gazta; eta jokalaririk onenarendako garaikurra. Ohi bezala, antolatzaileek barra bat jarriko dute edatekoarekin eta jatekoarekin.

Mondra futbol taldeak ohiko batzar orokorra egingo du etzi, uztailak 2, Kulturaten; 19:00etan hasiko da

Mondra futbol taldeak batzar orokorra egingo du eguaztenean, uztailak 2, Kulturaten. Lehen deialdia 18:30ean da eta bigarrena, berriz, 19:00etan. Hainbat gai landuko dituzte: 2013-2014 denboraldiko kirol arloaren laburpena eta kontuak onartzea, 2014-2015 denboraldiko aurrekontua eta denboraldi berrirako kirol proiektua onartzea, zuzendaritza batzordeko kide berriak aurkeztu eta onartzea eta mendeurrenako ekintzak amaitutzat jotzea. Ander Garai presidenteak gidatuko du batzarra.



Txalaparta erakustaldia Erdiko kalean, 12ko jaialdian. | TTAKUN TXALAPARTA TALDEA

Txalapartarien bigarren jaialdia uztailaren 5ean

J.B. | ARRASATE

Txalaparta hotsek bigarren urtez hartuko dute Arrasate. Ttakun taldearen eta Udaltaldearen eskutik, Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Urretxu eta Sestaoko txalapartariak elkartuko dira uztailaren 5ean. 10:00etan joko dute diana Goikobalu gaztelu zaharretik eta Altamirako igogailu berritik. 11:00etan, txalaparta saio libreak egingo dituzte Herriko plazan, pintxoekin eta tragoekin. 13:00etan irrintzilariek hartuko dute plaza eta, 14:30ean, bazkaria egingo dute Udaltaldearen elkartean. Bazkalostean tabernaz taberna egingo dituzte

saioak, albokariekin eta bertso-lariekin: Arrasatekoek Iturriotz (18:30) eta Ezkina tabernetan (20:00), Bergarakoek Taupan (19:00), Aretxabaleta-koek Ekaitzen (19:30), Urretxukoek Iratin (20:30) eta Sestaokoek Arrasate tabernan (21:00).

Ttakun elkartea, 1993tik

Ttakun elkartea 1993an sortu zen. Sorreratik ibilbide oparoa izan du taldeak, asko izan dira txalaparta jotzen ikastera gerturatutakoak. Egun, ikastaroak ere ematen dituzte; azkena maiatz eta ekaina bitartean izan da.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

"Rantxoz eta bakeroz betetako herri baten bizi gara, Burns-en"

Mondrauen euen Xabier Lete, bakaziñotan. Ameriketako Estatu Batuetan bizi zan, Oregonen, Burns-en: "Aita eta ama [bergararrak] duela 37 urtetik bizi dira han, 5.500 biztanleko herrian".

Burns-en 400 bat euskaldun euzela kontau euen: "Bizkaitar eta naparrak gehienak. Gure tiok hotela ipini zuen eta horra beti euskaldunak etortzen ziren. Horregatik kontserbatu dugu hain ondo hizkuntza; etxean beti egiten dugu euskaraz. Daukadan semeare ere erakutsiko diot euskara".

Bere bizimoduaz be egin euen berba: "Hango ekonomia egur, behi eta ardietan oinarritzen da, guztiontzat dago lana. (...) Kirol asko egiten dugu. (...) Neskei 21 urte arte ez diete tabernetan sartzen uzten, eta tabernak Zetarako itxita daude. Burns-en ez dago gauza handirik egiteko".

Mondrauen euela aprobetxate, jairik jai ibilli zan: "Herri askotako jaietan egon naiz. Arrasaten, sanjuanetan, tanborrero urten nuen; jendeak esaten zuen: 'Ese es el americano'".

XV. mendeko kontuak

"Hemendixe aterako ziran takarradan Joanikote eta Presebal, beste oinaztar batzuekin nahasian, ganboatar maltzurrek setiatuak zeukaten Mondragoeko hiribilduari su eman ziotenean. Kale artean ez kiskaltzearen, ihesari eman zioten; ez ziren oso urruti heldu, beherago zegoen Madalena errebaletan harrapatu eta hil egin baitzituzten".

Jerardo Elorzaren berbak die, XV. mendeko ahaide nagusixen burrukez. 1448ko ekaiñen 23ko Mondraueko erreketaz ebillen.

29. zenbakixe 1989-07-07



Kultura taldeendako laguntza eskaera, abian

M.B. | BERGARA
Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkar- teek, 2014an garatuko dituzten jarduera eta ekintzetarako diru laguntzak eskatzeko epea irekita dago.

Jarduera horiek Udaleko Jarduera, Kultur Talde eta Jaiak batzordeak dituen hel- buruekin bat etorri beharko dira, hau da, herrian kultura jarduerak eskaintzea, Berga- ran zein kanpoan burututako jardueretan Bergarako herria- ren izena ezagutzera ematea, herriko jardueratan parte hartzea eta Bergarako herri- tarren eta gainerako kultura elkarteen arteko lankidetz- a bultzatzea. Hori guztia, gizon eta emakumeen arteko ber- dintasuna bultzatuz.

Diru-laguntza banaketa honetatik kanpo geratuko dira elkar- te edo talde eskatzaileek zuzenean antolatzen ez dituz- ten jarduerak edo egitasmoak eta baita emakumeenganako nolabaiteko diskriminazioa aurrera eramaten duten talde edo elkar- teak.

Eskaerak astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:00e- tara, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar- ko dira GAOn argitaratu den egunetik –ekainak 20– hasita hilabeteko epean.

Bizikleta zaleek irteera antolatu dute uztailaren 12rako

Bergarako Txirrindulari Elkar- teak irteera antolatu du uztai- laren 12rako. 100 kilometroko ibilbidea egingo dute Baiona- ra. 07:00etan abiatuko dira Oxirondo azokatik, 18:00etan itzuliko dira eta afaria ere egingo dute. Interesa dutenek uztailaren 10era arte eman dezakete izena IBI eta Igartua bizikleta dendetan.

Musika Eskolako zenbaki sarituak jakinarazi dituzte

Ekainaren 20an Musika Esko- lako txartelen zozketa egin zuten eta hauek dira saritu- tako zenbakiak: Lehenengo saria, 2.106 –lehen erreserba, 5.261 eta bigarrena, 7.817–. Bigarren saria, 1.456 –lehen erreserba, 1.145 eta bigarrena, 7.365–. Hirugarren saria, 8.308 –lehen erreserba, 875 eta biga- rrena, 4.405.

Saria jasotzeko hiru hila- beteko epea dago. Epe horre- tan saritua agertuko ez balitz, erreserbako zenbakietara joko lukete.



Hanka Labankako senior taldekoak, finalaren ostean, Samurais madrildarrekin. | HANKA LABANKA

Hanka Labanka hockey taldea garaile Rivabellosan

Senior mailan gailendu zen, lau-ko txapelketan; Infantilek ez zuten zorterik izan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Hanka Labanka taldeak Rivabe- llosako hockey txapelketa ira- bazi zuen aurreko asteburuan. Senior mailan gailendu ziren, lau-ko txapelketan. Rivabellosa- ko Dragons, eta Madrilgo Samu- rais eta Pumas del Norte izan zituen kontrarioak.

Hanka Labanka hockey tal- deko Infantil mailakoak ere ari- tu ziren txapelketan, baina ez ziren horren fin ibili eta ezin izan ziren garaipenarekin itzuli etxera.

Penaltietan erabaki zen
Zapatu eta domekan jokatu zen txapelketa. Samurais taldearen aurka jokatu zuten finala berga- rrek. Hala eta guztiz ere, hasie- ra kaskarra izan zuten, 0-3 galtzen hasi ziren-eta. Partiduak aurre- ra egin ahala, ordea, hobera egin zuten eta seinako berdinketare- kin heldu ziren azken 7 minu- tuetara. 8 eta 6 aurretik jarri ziren, gainera. Baina Samurais taldekoek berdintzea lortu zuten azken unean. Horrenbestez, penalti jaurtiketetan jokatu zen

txapela eta, hor, finago ibili ziren bergararrak.

Infantil mailan, bestalde, laugarren geratu ziren Hanka Labanka taldekoak, partidu baka- rra ere irabazi barik.

Pozik esperientziarekin
Geroago eta zale, jarraitzaile eta jokalaria gehiago dituen Hanka Labanka elkartetik aurreratu dutenez, Rivabellosan bizi izan- dako esperientziarekin oso ase- ta geratu dira eta pozik itzuli dira etxera.

Aurten ere zenbait irteera antolatu dituzte uztailerako gaztelekuan eta izenematea zabalik dago

Arcachongo aquaparkera egun pasa eta Urbasako kanpinera asteburua igarotzera joango dira



Irudian Arcachongo aquaparka. | GOIENA

M.B. | BERGARA
Azken urteetan egin duten moduan, Xabalote gaztelekuan zenbait irteera antolatu ditu uztailerako, interesa duten herriko gazteen- dako.

Uztailaren 20an Arcachongo aquaparkera irteera antolatu dute. 06:00etan abiatuko dira autobus geltokitik eta 20:00etan itzuliko dira. Irteeraren prezioa 19 euro dira eta izenematea ekainaren 23tik uztailaren 17ra izango da, Xabalote gaztelekuan edo Jardun euskara elkartearen bulegoan.

Asteburua Urbasan
Uztailaren 26an eta 27an, berriz, Urbasako kanpinera joango dira eta han emango dute gaua. Hain zuzen, zapatu goizean abiatu eta domekako arratsaldean, bazkal ostean itzuliko dira. Prezioa 26 euro dira eta horren baitan sartzen dira 26ko afaria eta 27ko gosari eta bazkaria; lo egiteko lekua, eta autobusa.

Izenematea uztailaren 23ra arte egongo da zabalik Xabalote gaztelekuan edo Jarduneko bule- goan.

NIRE USTEZ



IOSU ELORZA

Different

Kanpai hotsa entzuten dut urrutira, txorien kantu artean ezkuta- turik, haizeak daka- rren doinu goxoa barneraino sartzen ari zait. San Martzial- go ermitatik datorrenaren susmoa dut, astean izango ditugun jaien hasieraren tes- tigu.

Betidanik harritu nau egun bera ospatzeko ohitu- ren ezberdintasun nabarme- nak. Pentsa, Bergarako kanpai hots eta aurrekuak, eskopeta tiro bilakatzen direla Frantziako mugatik gertu, ezberdinak gero gure eta irundarren San Martzia- lak ezta.

Ezberdintasunek egiten baitute posible gure egune- roko bizitza, pentsamendu eta izaera anitzek ahalbide- tzen dute elkarbizitza; nor berak berea defendatzea bazelakorik ez da, zure ideia eta argudioez baliatu, pen- tsatzen duzula erakutsi, existitzen zaren seinale –isi- lik geratu beharreko uneak ere badaudela ahaztu gabe.

Oso ezberdinak dira ere gutariko askoren iritzia monarkiaren gainean, gorria- ren kanporaketaz hartutako poztasuna edota erabakitze- ko eskubidearen aldeko giza kateak sorrarazitako ilusioa. Ezberdinak baikara denok, harrotasunez esanda, ez bai- tzen posible izango garen bezalakoak izatea horrelakoak izan gabe.

Ezberdinak izango gara bai, baina bati baino gehia- gori gustatuko litzaioke gu bezalakoa izatea, igandekoa bezalako egun batez disfru- tatzeko. Gora San Martzial!

"Ezberdintasunek egiten dute posible gure egunerokoa"

OHARRAK

NAGUSIEN OMENALDIKO ARGAZKIAK ESKURAGARRI DAUDE DAGOENAKO

San Joxepe erretiratuen elkar- tetik jakinarazi dutenez, maiatzaren 25ean egindako, 87 urteko nagusien omenal- dian ateratako argazkiak prest daude dagoeneko. Bada, argaz- kiok Juan Je argazki dendan daudela azaldu dute, ikusi edo eskuratu nahi dituzte- nendako.



Udalekuen lehen eguna, 2011an; aurten ere Eteon izango dira Txalokaren udaleku irekiak. | TXALOKA LUDOTEKA

Zuazola institutuaren 50 urteko historia batu dute liburu batean

I.G. | OÑATI

Zuazola 50 urte (1963-2013) liburu aurkeztu zuten egubakoitzean. Izenburuak ondo dioen bezala, institutuaren 50 urteko historia batzen du. Egileek adierazi zuten institututik pasatu diren ikasle, irakasle, langile eta guraso guztiei omenalditxo bat egiteko asmoz jaio zela proiektua, eta zortzi hilabeteko lanaren ostean, oso gustura daudela emaitzarekin. "Eskuar-tean duzun liburuxka hau begi alaiakin begiratzea nahiko genuke, irribarrea eraginda gogorapenak ekarriko dizkizulako, edo agian zuretzat arrotzak diren beste garai bateko kontuak erakutsiko dizkizulako", esan zuten aurkezpenean Leire Itu-

rrioz, Zuazola-Larrañako zuzen-dariak.

Liburuaren egileak Jerardo Elorza eta institutuko hainbat irakasle eta irakasle ohi izan dira. Elorzak Espainiako gerra aurreko kontuak batu ditu. Azken 50 urteetako historia eta gaur egungo kontakizuna ere jaso dute. Horretaz gain, elkar-rrizketen atala eta argazki bilduma ere badaude. "Instituturako bakarrik ez, Oñatirendako ere dokumentu garrantzitsua da", adierazi zuen Kepa Altube egileetako batek.

Liburua salgai dago hiru euroren truke Altunan, Ibarrrondon, Haritzan, Hirukarren, Oñatiko turismo bulegoan eta institutuan bertan.



Altube, Biain, Igartua eta Iturriotz, egubakoitzeko aurkezpenean. | I.G.

Udalak ez dio "inolako zilegitasunik onartzen" Espainiako koroari

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udalbatzak aho batez onartu zuen Bilduk Juan Carlos Borboikoaren abdikazioaren harira egueneko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioa. Hala, hauxe adierazi zuen: "Oñatiko udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, euskal herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeke dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen Espainiako koroaren inongo ordezkari".

Zinegotzi ez liberatuek jasotzen duten dirua beste modu batera banatzea ere bozkatu zuten udal ordezkariak, gai zerrendatik kanpo sartutako puntutzat onartu eta gero. Aurre-

rantzean, zinegotzi ez liberatuek jasotzen duten dirua alderdiek jasoko dute, diru laguntza moduan, Gizarte Segurantzaz arazorik ez sortzeko. Bestalde, Arrasateko jaietan izandako uestzko sexu eraso ere salatu zuen udalbatzak aho batez, eta ekainaren 28ra begira antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko deia ere egin zuen, "oraindik ere hainbat kolektibok arazoak dituztelako euren errealitatea bizitzeko", Maialen Urtzelai adierazi zuen moduan.

Zorionak Maider Arregiri

Bukatzeke, Mikel Biain alkateak Maider Arregi gaztea zoriondu zuen udalbatzaren izenean Euskal Herriko eskolarteko bertso-lari txapela irabazi duelako.

Heteroarauaren gaineko 'Arrakala' dokumentala ikusgai gaur eta eguenean, 16:00etan, gaztetxean

Antixenako gaztetzak prest du uztaileko egitaraua eta aste barruan egingo dira lehen ekitaldiak. Ekainari bukaera emateko *Arrakala* dokumentala eskainiko dute gaur, 16:00etan. Bilgune Feministak eta Topatuk elkarlanean eginiko proiektua da, heteroarauaren inguruan. Dokumental bera ikusteko aukera egongo da uztailearen 3an ordu berean. Bestalde, martitzenero kanpo zine emanaldiak egingo dituzte Antixenako parkean, 22:00etan, eta bihar eskainiko dute lehenengo filma.

Udan ere, jolas, ikasi eta kirola egingo dute umeek

Martxan dira gaurtik umeentzako udalekuak eta udako kirol eskaintza

IRATI GOITIA | OÑATI

Ikastetxeen udako eskaintzaz gain, Txalokak, udaleko kirol zerbitzuak eta gaztelekuak ere egin die euren herriko gaztetxoei eta horiek egin dute aukera.

Udaleku irekiak

Nobedade ugariarekin datoz udaleku irekiak Oihana Ugarte koordinatzaileak adierazi duenez. Besteak beste, asanbladak egingo dituzte. "Begiraleek eurek antolatu dute programazioa, baina umeek aldaketak egin ahal izango dituzte", azaldu du Ugartek. Hala, zehaztu du txikienekin, esaterako, arauak finkatzeko asanbladak egingo dituztela eta nagusiagoekin asanbalada egunak egingo dituztela.

Beste berrikuntzetako bat da kanpaldia. Zortzi eta hamar urte bitarteko umeak Urkulura joango

dira gaua pasatzera, kanpin dena eta guzti. Lehendabizikoz egingo dituzte baita zikinen eguna edo kulturartekotasunaren eguna. "Kultura ezberdinetako dantza, musika, jolas edo janak plazara atera nahi ditugu", dio Ugartek. Azken egunean, uztailearen 24an, apar festa egingo dute, bestalde.

Denera 351 ume hartuko dute parte udaleku irekietan, 36 talde-tan banatuta, eta 41 hezitzaile eta hiru koordinatzaile arituko dira lanean. Helburua da 4-10 urte bitarteko haurrei euskarazko aisialdi hezitzailea bermatzea.

Arte Udalekuak

Marraketan eta eskulturan trebatzeko aukera izango dute 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek arte udalekuetan, gaurtik hasita. Hamar gaztetzok eman dute izena eta

irakasle lanetan iazko berak ari-tuko dira (Ander Etxaniz eta Amaia Ochoa de Alda). Aurten gaztelekuan beharrean, Oñatiko Udalak Bidebarrietan eskulanetarako duen lokalean egingo dira. Artea eta kultura gaztetatik sustatzea da helburuetako bat.

Kirol eskaintza

Gaur hasiko da baita udako kirol eskaintza. 716 umeek disfrutatuko dute kirolaz udako hilabete hauetan, 23 kirol motaz, zehazki: tenisaz, badmintonaz, waterpoloaz, patinajeaz, eskaladaz.... Uztailearen 28ra arte eskainiko da kirol eskaintza zabal hau, baina abuztuaren egongo da igeriketaz eta ur-jokoez gozatzeko aukera. Zubikoan gauzatuko dira ekintzak, mountain bike-a izan ezik, hori Oñatiko inguruetan egingo dute.

Gerriko beltza lortu dute Aloñako bi karatekak

Aloña Mendiko karate saileko bi karatekak Getxon egin zuten gerrikoa eskuratzeko azterketa eta biek ala biek gerriko beltza lortu zuten. Zehazki, Kevin Martinek gerriko beltza eta Alberto Lerak gerriko beltzean Hirugarren Dan-a. Pozik dira biak egindako ahalegin guztiaren ostean, lortu dutelako helburua.



RICARDO ARRIZABALAGA

ESKORIATZA



Iazko mendi bizikleta martxa plazatik irteten. | GOIENA

Uztailaren 12an izango da aurtengo bizikleta martxa

Aurrez eman daiteke izena proban: uztailaren 8a baino lehen 'www.kirolprobak.com' webgunean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Berrikuntzekin dator zilarrezko ezteiak betetzen dituen Eskoriatzako Mendi Bizikleta Martxa; tartean, data aldaketa dago. Orain arte urriaren erdialdean egin izan bada, edizio honetan uztailera aurreratzea erabaki dute; hain justu, uztailaren 12an egingo dute. Udaleko Kirol aholkulari Rosa Lasagabasterrek jaki-

narazi du hiru arrazoi daudela data aldaketa egiteko: alde batekin, mendian ahalik eta eragin txikien izan dezan, uda omen dela sasoi onena horrelako probak egiteko; bigarrenik, urrian mota horretako martxa "larregi" daudela, eta bailarako gehienak ere hilabete horretan direla; eta hirugarrenik, udazken partean ehiztariak dabiltzala mendian.

Izen-emateari dagokionez, Lasagabasterrek azaldu du aurrez eman daitekeela izena *www.kirolprobak.com* webgunean. Hasiera batean, epea egubakoitzean, uztailak 4, amaitzen bazen ere, hori atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Uztailaren 8a baino lehen eman ahal izango da izena, hamar euroren truke. Dena dela, egunean bertan ere

zabalduko da izen-ematea, 08:15ean, plazan. Hamabost euro ordaindu beharko dituzte azken orduko parte-hartzaileek. XXV. Esko Xtrem martxa 09:00etan abiatuko da, plazatik.

Izena ematearekin batera zerbitzu hauek izango dituzte txirringulak: aseguru, anoa-postua, aldagelak, duxak eta bizikleta garbitzeko tokia. Horrekin batera, Lasagabasterrek gogorarazi du derrigorrezkoa dela kaskoa, eta zulatuen aurkako gurpilak eroatea ere gomen datzen da.

Helduendako bi ibilaldi

Baina dataz gain, berrikuntza gehiago daude; esaterako, ibilbideak berriak dira: bi ibilaldi egongo dira aukeran, baina biak helduei zuzenduta; iazko probarekin alderatuta, aurtengo ediziookan ez dute umeendako zirkuiturik antolatu.

Azken horren bueltan, Kirol aholkulariak gaineratu du Zikloturistak eta Areka BTT taldeetako kideek zailtasun tekniko eta fisiko handiko ibilaldiak gertatu dituztela: distantziari dagokionez, motzak 21 kilometro eta 1.100 metroko desnibel positiboa dauka; eta luzea 37 kilometrokoa da eta 1.700 metroko desnibela dauka.

Bidezidorretatik

Probaren gogortasunari dagokionez, bata gogorra dela esan daiteke eta bestea *extrem* delakoa. Lasagabasterrek nabarmendu du oso ibilbide "gorabeheratsuak" direla eta fisikoki "oso exigenteak". Horrez gain, zailtasun teknikoa dutela azpimarratu du; horren harira, azaldu du orain arteko martxak bide zabaletatik joan direla, bereziki, eta aurren, aldiz, ibilbidearen %45 bidezidorretatik doala.

NIRE USTEZ

TXOMIN
AZPITARTE

Ekaina, udako atea

Garrantzitsua da ekaina, esanahi berezia duelako; udako atarian gaude, eta San Juan bezperan udako solstizioa ospatzen dugu, gaitzak erretzen ditugu, etorkizun hobe baten esperoan. Eskoriatzan are garrantzitsuagoa da, 29an herriko jaiak ospatzen ditugulako. Udari bidea zabaltzen diogu, argitasun saioari eta lan egiten dutenendako atsedendariari. Eta hori guztiori kontuan izanda, etorkizun itxaropentsuari atek irekitzen dizkiogula dirudi, alde positibotik begiratuta.

Baina egoera sozio-politikoak optimismorako tarte txikia uzten du; ezin ditugu nahastu Aliziaren ispiuaren alde erreala eta fikziozkoa. Albistearen iturriaren arabera, arazoak konpontzen ari direla ematen du; ispiuaren fikziozko aldera begiratzera eragiten gaitu horrek.

Bestalde, herri moduan, Euskal Herrian aurrerapausoak ematen gabiltza, bide onean uste dut, baina ahaztu barik bidea luzea eta gogorra izango dela. Adibide bat: egonkortasun sozial eta politikoa lortze aldera pausoak ematen gabiltza; hori ispiuaren alde erreala izango litzateke. Fikzioetik begiratuta, dena konponduta egongo balitz bezala ikusiko genuke.

Horrek guztiorrek esan gura du askotan ez digutela uzten errealitatea ikusten. Arazoa da hori, gertu badugu ere ez garelako ohartzen; askotan inguruan mugitzen dena ikusi behar dugu, ispiuaren alde erreala izanda. Baina informazioa fikziozko aldetik iristen da, postulatu handietan fijatzen gara eta ez gara arduratzen autokritika lana egiteaz. Ez dugu pentsatu behar besteek konponduko dizkigutela arazoak, dena alde errealetik ikusten jarraitu behar dugu.

Eguenera arte eman daiteke izena patroigintza eskoletan

Katxalin Antxia aretxabale-tarrak emango dituen patroigintza ikastaroetan izena eman daiteke eguena baino lehen, uztailak 3, *modubatmoda@gmail.com* postan. Bi ikastaro daude: *Patroigintza zero* delakoa edo lehenengo kontaktua izan gura dutenendako; eta *Patroigintza Petite Robe Noire* edo oinarritzko ezagutzak dituztenendako.

ARETXABALETA



The Funes Troup taldea izango da etzi. | FOTO ARGAZKI MAHATU

Kale antzerkia izango da uztailleko eguaztenetan

Etzi hasiko dira emanaldiak, The Funes Troup konpainiaren 'Zirkoa' izeneko antzezlanarekin

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletan gertu dute uztailleko kultura egitaraua. Horren harira, azpimarratzekoa da eguaztenetan kale antzerkia izango dela herriko kaleetan barrena. Etzi,

uztailak 2, hasiko dira emanaldiak: The Funes Troup konpainiak *Zirkoa* antzezlanaren aurkeztuko du plazan, 19:00etan. Hiru pertsonaia alai karabana berezi eta ikusgarrian heltzen dira. Bizitzan ez

dira gai zer edo zer serioerik egiteko; absurdoaz irri egiteko eta horrela hobeto sentitzeko gaitasuna menperatzen duen taldeak harrituko ditu ikus-entzuleak.

Gainerako emanaldiak egun eta toki hauetan izango dira: uztailaren 9an, Trapu Zaharra *Konga* lanarekin izango da Durana kalean; 16an, Tiritirantes konpainiak *Hankaz gora* antzeztuko du kale berean; eta uztailaren 23an, Malas Compañiasek *Txatarra* izeneko antzezlanaren, Herriko Plazan. 19:00etan hasiko dira ikuskizun guztiak.

Kepa Errastiren film laburra

Baina kale antzezkiaz gain, bestelako ekintzak ere izango dira uztailan. Esaterako, 19an, zapa-tua, Kepa Errasti aretxabale-tarrak zuzendutako *Aitona mantangorria* film laburra aurkeztuko da, 20:30ean, Arkupen. Bestalde, 7x7 *kultura kalean* ekimenaren barruan, egubakoitzean, uztailak 4, Dirt Jump eta trialsin ikuskitzuna dago Herriko Plazan; eta 11n, The Romanticos taldearen kontzertua, Irilabarri plazan. Bestalde, zinema ere izango da.

Mural lehiaketa gertatu du Gazte Taldia

M.B. | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak bultzatutako Atxabaltako Gazte Taldia euskararen aldeko mural lehiaketa antolatu du 18 urtetik beherakoendako. Gaia euskara da eta marrazkia, librea; proposamenak A-4 formatuan edo formatu digitalean bada CD batean aurkeztu beharko dira uztailaren 18ko eguerdia baino lehen, Arkupen. Ezizena erabiltzaileek aurkeztu behar dira lanak.

Lehiaketaren irabazleak aukera izango du murala herriko horma batean egiteko. Horrez gain, abuztuaren 14ko gazte afarirako bi txartel eta jaietako bi kamiseta ere jasoko ditu sari moduan. Uztailaren 22an jakinaraziko da irabazlearen izena.

Alfonso Del Campo | Aramaio Pilota Elkarteko zuzendaritza taldeko kidea

"Zaletasuna piztea lortzen badugu etorriko dira emaitzak"

Ander Axpe eta Mikel Arriolabengoa entrenatzaileen aginduetara 30 pilotari ditu egun Aramaio Pilota Elkartek, bost taldetan banatuta

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bilbon jaioa, Arrasaten 25 urte eta Aramaion beste 30 bat egin ditu Alfonso Del Campok (Bilbo, 1958). 2008. urte inguruan erabaki zuten Aramaion pilota taldea sortzea. Elkartearen helburua argi azaldu du: "Herrian mugimendua sortu gura dugu, ez gara emaitzekin itsutuko".

Noiz eta nola sortu zen Aramaio Pilota Elkartea?


2007ko maiatza edo ekainean, Artea, Dima eta Otxandio taldeekin batera gonbidatu gintuzten txapelketa batera. Hurrengo denboraldian jende gehiago hasi ginen elkartzen eta 2007-2008 edo 2008-2009 denboraldian federatu ginen. Ordutik Araban jokatu izan dugu, eskolarteko txapelketan. Baina Araba txikia da, hau da, pilotari on batek ezin du asko aurreratu Arabara bakarrik mugatzen bada. Horregatik asko mugitzen gara; Lizarrara, Zornotzara, Olaztira, Zizurrera, Amurriora...

Zenbat pilotari dituzue?

Egun 30 pilotari ditugu, eta orain guztiak dira mutilak. Neskaren bat egon izan da, baina orain ez. Hasi eta gutxira 30 pilotari inguruk eman zuten izena eta ordutik kopurua mantendu dugu; Aramaio baterako kopuru ona dela esango nuke. Bost talde ditugu: pre-benjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak. Era berean, pilotari bat dugu gazte mailan: Oihan Bideburu. Aurten ez da ondo ibili lesioekin ibili delako, baina iaz Arabako txapeladuna izatea lortu zuen.

Lorpen handia al da hori?

Ondo dago. Hala ere, ez gara emaitzekin itsutzen. Mugimendua sortu gura dugu, neska-mutikoen artean pilotarako zaletasuna piztu. Herrian pilota-giroa sortu gura dugu, eta pilotariren bat ona datorrela ikusi ezker, irteera ematen lagundu.



Alfonso Del Campo. | JOKIN BEREZIARTUA

"Harreman nahiko estua dugu Udalarekin, ezin gara kexatu"

Zenbat entrenatzaile dituzue? Gustura ari zarete eurekin?

Bi begirale edo entrenatzaile ditugu, Ander Axpe eta Mikel Arriolabengoa. Pilotari eta orokorrean kirolari oso lotuak daude biak eta gazteak dira, bertakoak. Gustura gabiltza. Gura duguna da entrenamenduak gaztetxoendako erakargarriak izatea eta begiraleak ere gustura ibiltzea. Era berean, gurasoak inplikatzeko ondo legoke, ez daitezela bakarrik euren semea ikustera etorri. Baina guretako garrantzitsuen

da gaztetxoak pilotalekuan gustura ibiltzea; hori badago, etorriko dira emaitzak.

Nolako harremana duzue Udalarekin? Kexarik ba al duzue?

Harreman nahiko estua dugu. Diru-laguntzarik ez zaigu falta, eta hori eskertzekoa da. Era berean, kiroldegia eskatzen dugunean beti uzten digute. Urte batzuk gaizki pasa ditugu baina duela bi edo hiru urtetik hona hobetu egin dira gauzak. Partiduetara ez da sekula zinegotzirik etorri, baina ezin gara kexatu.

Nola antolatzen dituzue entrenamenduak?

San Martin eskolako egutegiaren arabera antolatzen ditugu, eta kiroldegian elkartzen gara. Hala ere, denboraldia ez da amaitu; hobetu eta aurrera egin gura duen pilotaria ezin daiteke bi hilabete eta erdi gelditi egon.

ELGETA

Soka-dantza egingo du aurten udalbatzak jaietako Herri Egunean

Zapatu eguerdian izango da, eta omenaldia egingo diete herriko hainbat elkarteri

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguenean, uztailak 3, hasiko dira Ferixa Nagusiko jaiak, Elgetan, eta Udalak aurreko astean banatu zituen esku-programak etxeko etxe. Orokorrean, aurreko urteetako egitura izango dute jaiak, baina badira zenbait berrikuntza.

Eguen eguerdian, esaterako, neska-mutikoen ongi-etorri ekitaldia egingo diete buruhandiei. Herriko plazan izango da ekitaldi hori, eta bertan izango dira, besteak beste, udalekuetako neska-mutikoak.

Udalbatzaren soka-dantza

Berrikuntzen artean aipagarriena, aurten, udalbatzak herriari eskainiko dion soka-

dantza da. Zinegotzi guztiek hartuko dute parte, bederatzi. Alkateak aureskua egingo du lehenik, eta haren atzetik zinegotziak nagusienetik gazteenera kokatuta aterako dira sokan plazara. Otsaila ezker astero elkartzen dira soka-dantza ikas-tera.

Dantza saio horrekin, herriko elkartek omendu nahi ditu udalbatzak, eta hainbat ordezkari aterako dituzte dantzara.

Txaranga bueltan

Iaz ez zen txarangarik egon, eta, falta sumatu zela iritzita, berriz ekartzea erabaki du, aurten, jai batzordeak. Barikuan izango da Elgetan Ustekabe txaranga.



Udalbatza soka-dantza ikasten. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Jaiak prestatzen hasi dira, laguntzarekin

Zortzi lagunek parte hartu dute batzarrean, "asmoak aurkeztu eta ideiak batu" dituzte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Iaz ez zen inor azaldu, eta aurten, berriz, zortzi lagun agertu dira herriko jaiak prestatzen hasteko Udalak deitutako lehen batzarrean. Eta oso pozik daude erantzun horrekin udal ordezkariak; deiak "arrakasta" izan duela eman du aditzera Iñaki Agirreurreta Kultura zinegotziak. "Ikusi duguna da jendea prest dagoela laguntzeko. Jaietako programa prestatzeko laguntza izateaz aparte, herritarren babes hori badagoela ikustea da garrantzitsua", dio Agirreurretak. "Eta gainera, etorri dena jende gaztea da, erreleborako", gaineratu du udal zinegotziak.

Aurrekontuaren eskasia

Batzarrean landutakoari dagokionez, berriz, Udalak jaietarako dituen asmoak "aurkeztu"

zizkien bertaratutakoei eta haien ziztuzten "ideiak" batu. Edozelan ere, "kontaktu txiki" bat izan da batzar hori. Besteak beste, jaien nondik norakoa Udalak duen aurrekontu txikiak markatuko duelako. "Hortxe gabiltza, adibidez, zapatuko afal-osterako ze talde ekarri asmatu ezinda, ze gure aurrekontuarekin zaila da", dio Agirreurretak.

Ekitaldi klasikoak izango dira

Bestela, aurtengo Andramari jaiak izango duten berezitasuna da Andra Mari eguna bera astelehenean tokatzen dela. Hori horrela, jaiak barikuan (irailaren 5ean) hasiko dira. Eta izango diren ekitaldien artean, ez dute kalerik egingo apar festak, Otxandioaren bisitak, herri afariak eta umeendako egunak, besteak beste.

ANTZUOLA

Sanjuanak Uzarragan

40 bat lagun elkartu ziren San Juan egunean Uzarragan. Giro onean arbola jaso zuten. "Nahiz eta gure festa xumea eta egoera triste baten ispilu izan, Uzarragan ohiturari jarraituz San Juan arbola jaso genuen", dio Jose Mari Iturbek. "Baikorrak izan nahi dugu; era batera edo bestera Uzarraga bizirik mantentzeko ahaleginarekin jarraitzen dugu; merezi duelako eta Antzuolaren historiaren zati garrantzitsua delako", gaineratu du Uzarraga Bizirik taldeko kideak.



JOSE MARI ITURBE

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko ekaineko zozketetako irabazleak

**Arrasateko
Eroski
hipermerkatuak
emandako
HP 2540
inprimagailua**
Jabier Egidazu
Landaluze
(Leintz-Gatzaga)



Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin



Arrikrutzerako sarrerak
Jon Ander Ugalde Ortubai
(Arrasate)
Ainara San Vicente Zumalde
(Oñati)
Blanca Lasa Balzategi
(Bergara)



Argiak emandako jokoak
Joxe Mari Muxika Arrieta
(Arrasate)
Jose Luis Iñarra Mazmela
(Bergara)



Harreman dendako otarra
Joxe Mari Anduaga
Uribeetxeberria
(Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Harremaneko otarra. Arrasateko Eroski hipermerkatuko dendan jaso beharko da. **Beste sariak.** Saria jasotzeko zatoz, GOIENAREN Arrasateko bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA. Otalora lizentziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05

Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

ATLETISMOA

Sergio Gartzia eta Estela Biain onenak Torreauson

- 24.23 eta 30.32ko denborak egin zituzten
- Santi Lizarrak jaso zuen antolatzaileen sari berezia

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Torreausoko 17. krosak 100 izen propio utzi zituen atzokoan, baina guztien ginetik, Sergio Gartzia eta Estela Biain azpimarratu behar dira: eurak izan ziren azkarrenak. Biak ala biak oñatiarrak, eta ibilbidea ondo baino hobeto ezagutzen dutenak. "Pozik" jaso zituzten txapeldunen sariak.

Eurekin batera beste 98 korrikalari abiatu ziren goizeko hamaitetan irteera puntutik. Olaterrainoko joan-etorria egin behar zuten. Guztira, 7,5 kilometro.

Gartzia, Lanz eta Agirre

Torreausoko lasterketa bizia da. Joaneko ibilbideak goraka egiten du eta tarte horretan ondo neurtu behar dira indarrak. Horren jakitun, lehen hiru kilometroetan elkarrekin joan ziren korrikalari guztiak. Baina, aurretik, erritmoa markatzen Sergio Gartzia, Ander Agirre, Ruben Lanz eta Cipri Burcio.

Hirugarren kilometroan erritmoa aldatu zuten Lanzek eta Gartziak, eta Agirre bergararrak bakarrik eutsi ahal izan zion aldaketari. Hala, elkarrekin egin zuten lasterketa.

Olatera heldu aurretik, Lanz eta Gartzia berriro saiatu dziren erritmoa aldatzen, baina ez zuten Agirre atzean utzi.

Lasterketaren erditik, Olatetik, hirurak pasa ziren elkarrekin. Puntu hartan Estela Biain zen emakume azkarrena. Oñatiarrak hasieratik erritmo ipini zuen,

eta segituen geratu zen bakarrik. Atzerago zituen La Blanca taldeko Eva Calle eta Miren Josune Bikuña oñatiarra.

Azken kilometroko aldaketa

Olatetik Torreausorako itzulerak beheraka egiten du, eta hor abiadura askoz handiagoa hartu zuten korrikalariak. Lanzek, Gartziak eta Agirrek elkarrekin egin zuten itzulerakoa ere bai, eta azken kilometrorra heldu aurretik, kontrarioen indarrak neurtu, eta eraso jo zuen Sergio Gartziak. "Azken eraso jo dudanean, zalan-tzeak nituen Agirrek nola erantzungo zuen. Banekien Lanz noraino heltzeko gai zen, baina Ander bergararrarekin zalantzak nituen", esan zuen bukaeran Sergio Gartziak.

Hiru korrikalariak lasterketa itzela egin zuten. Aurreko aste bukaeran Corpusetako Oñatiko XII. lasterketan egindako erakustaldia berretsi zuten atzokoan Torreauson. Maila handiko atletak dira oñatiarra, legazpiarra eta bergararra.

Bestalde, Olatetik pasa ziren ordena berberean sartu ziren helmugan emakume azkarrenak: Biain, Calle eta Bikuña. Nork bere erritmoa markatuz, lasterketa bakarrik egin zuten, bidean topatutako beste gizonetako batzuekin. "Eguraldi ederra egin du korrika egiteko, eta asko eskertzen dira zaleen eta etxekoan animoak", esan zuen bukaeran Miren Josune Bikuña.

Sari berezia

Sailkapeneko lehen hirurek jaso zituzten sariak, baina korrikalarien artean askorarik opariak zozketatu zituzten. Aurtengo sari berezia Santi Lizarrak jaso zuen: Torreausoko 17 krosak korritu ditu oñatiarrak.

SAILKAPENA

MUTILAK

1. **Sergio Gartzia** 24.23
2. **Ruben Lanz** 24.30
3. **Ander Agirre** 24.47

NESKAK

1. **Estela Biain** 30.32
2. **Eva Calle** 31.39
3. **M. Josune Bikuña** 32.20



Korrikalari tropela Torreausoko krosaren lehen metroetan. | JOSETXO ARANTZABAL



Gartzia, Lanz, Agirre eta Fernandez, lasterketa buruan. | IMANOL BELOKI



ANDER AGIRRE
HIRUGARREN MUTILA

"Lehia bizia izan dut Rubenekin eta Sergiorekin, baina azkenean hirugarren heldu naiz. Sergiok erakutsi du indartsuena zela. Pozik nago egindako lanarekin. Torreausoko lasterketa bizia, baina oso polita da".



MIREN JOSUNE BIKUÑA
HIRUGARREN NESKA

"Oso pozik nago egindako lasterketarekin, baina batez ere, etxean podiumera igo naizelako. Etxeko lasterketetan maila ona erakustea oso aberasgarria da, eta horregatik oso gustura nago. Askok bete nau gaurko podiumak".



JOSEBA ZALABETA
PARTE-HARTZAILEA

"Uste nuena baino denbora askoz hobea egin dut. Hasi orduko aldapa gora hasten da lasterketa, eta indarrak ondo gorde behar dira itzulerarako. Zorionez korrika egiteko eguraldi aproposa izan dugu eta gustura noa etxera".



AINARA DIAZ DE GUEREÑU
PARTE-HARTZAILEA

"Tropelaren atzealdean taldetxo bat osatu dugu eta erritmo lasaiean egin dugu lasterketa. Eguraldia lagun izan dugu eta neronek iazko denbora hobetzea lortu dut. Hortaz, oso pozik eta gustura nago".



SANTI LIZARRA
PARTE-HARTZAILEA

"Ez naiz korrikalari amorratua, baina, auzotarra izanik, orain arteko 17 krosak egin ditut. Torreausoko egiteko entrenatzen naiz, baina beste proba batzuetan ez dut korrika egiten. Hurrengo urtean ere hementxe egongo naiz".

25 | TXIRRINDULARITZA | Imanol Erlek irabazi zuen Askazubirako igoera kronometratua



Sergio Gartzia helmugan. | JOSETXO ARANTZABAL



Estela Biain, lasterketa bukaeran. | JOSETXO ARANTZABAL



Abixaran taldeko korrikalariak. | JOSETXO ARANTZABAL



Ramon Varela helmugan. | J. ARANTZABAL

SERGIO GARTZIA
IRABAZLEA

"Harrituta nago Corpuseko proban eta gaur egindako lanarekin"

Pozik zegoen oñatiarra, etxean lortu-tako garaipenarekin.



Corpuseko lasterketan indartsu ikusi zintugun, eta gaur ere bai. Hala da. Ni ere harrituta geratu nintzen aurreko astean egindako lanarekin. Min hartuta ibili naiz azkenaldian, eta kosta egin zait orain dudana mailara heltzea. Lasterketa batzuetan oso gaizki pasa dut. Baina, ahaleginak merezi izan du. Pozik nago. Gainera, etxeko lasterketatan maila ona ematea oso pozgarria da. Lagunen eta etxeko babes ezinbestekoa izaten da.

Lehia bizia izan duzu Lanz eta Agirrerekin. Bai. Elkarri kontrolatzen ibili gara. Hainbat erritmo aldaketa egin ditugu, eta azken kilometroaren aurretik egindako esfortzuak saria eman dit.

Korrika egiteko eguraldi aproposa eta ibilbide ezaguna. Horrek zure alde egin du gaurkoan? Asteon ibili naiz Olaterainoko itzulia egiten. Baina, egia da, ibilbidea oso ezaguna dela oñatiarrendako.

Aurrera begira zer? 1.500 metroak lau minututik behera egin gurako nituzke, eta hori lortzeko lan egingo dut. Bide batez, eskerrak eman gura dizkiet Argixaon nirekin entrenatzen duten korrikalari guztiei.

ESTELA BIAIN
IRABAZLEA

"Olaten beste neskekiko nuen tarte mantendu dut itzulerakoan"

Denboraldia amaitutzak eman zuen Estela Biainek, Torreauzoko garaipenarekin.



Zer moduz joan da lasterketa? Ondo. Gustora. Korrika egiteko eguraldi ederra egin du, nahiz eta leku batzuetan sargori puntua igarri dugun.

Hasieratik ipini zara aurrean. Nolako lehia izan duzue nesken artean? Egia esan, ez dakit. Hasieran nire erritmoa ipini dut eta horrekin egin dut lasterketa. Olaten, Evarekin eta Miren Josunerekin gurutzatu naiz, eta tarte zabala nuela ikusita, hori mantentzeko lana egin dut. Erritmoan ez dut apenas aldaketarik egin.

Ibilbidea oso ondo ezagutzen duzu. Bai, eta horrek lasterketa ondo antolatzeko bidea ematen du. Hasieratik lasai-lasai joan naiz. Olateraino indarrak ondo gorde behar dira, bestela itzulerakoa oso luzea eta gogorra egiten da. Ibilbide bizia da.

Eta, gaurko garaipenaren ostean, zer? Atsedena eta oporrak. Gaurko krosarekin denboraldia bukatutzak ematen dut. Eta egia esan, bukatzeko modu ezin hobea izan da. Laster, oporretara joango naiz etxekoekin. Oraingoan, lasterketak bukatu guztiei.



Lehen sailkatuak, podiumean. | MIREIA BIKUÑA

RAID ABENTURA

Nekatuta eta bustita baina pozik amaitu dute Oñatin

- 61 bikotek hartu dute parte Oñatiko bigarren raid proban
- Orientazioa oinarri, bizikletan eta korrika eman dituzte ia zazpi ordu

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

16:30 pasata hasi ziren Foruen Plazara bikote azkarrenak hel-tzen, hala ere, raid probatan azkarrena izatea eta irabaztea ez datoz bat. Izan ere, Arantzazun hasi eta Foruen plazara bitartean, proba bereziak egiteaz gain, balizak lortu behar zituzten han eta hemen, batzuk ezkutu eta beste batzuk guztiok ikusteko modukoak.

Mapa eta iparrorratza eskue-tan, Arantzazutik behera egin zuten 122 kirolarik zapatuan Oñatiko raid abentura proban. Iaz 39 talde irten baziren Foruen plazatik, aurten 61 bikote heldu dira bertara, helmugara. Oiongo txirrindulari elkarteak osatzen zuten Urtzi Iglesiasek eta Gorka Zaldibarrek lortu zuten puntu gehien, 81 hain zuzen, 6.35.41 denboran. Emakumezkoetan puntu gehien lortu zuen bikotea Idoia Rubial eta Teresa Canetek osaturikoa izan zen, 65 puntu, 6.32.14 denboran. Debagoienarrei dagokionez, oñatiarrak kasu honetan, V de Vendatta bikoteak –Asier Urdanpilleta eta Asier Alonso–, lortu zuen puntu gehien, 72 puntu, 6.40.15 denboran; eta talde mistotan, Amaia Bernalek eta Asier Olasagastik, 55 puntu lortu zituzten, 6.27.34 denboran.

Orientazio probarekin hasi

Orientazio proba, *score* erdi-urbanoa egiten hasi zuten Arantzazu aldean. Ondoren, bizikleta gainera igo ziren kirolariak eta egin beharreko zatirik luzeena egin zuten: Arantzazun hasi eta Iturrigorri ingurura lehenengo eta Aloña azpira gero –Urzelai gaineko zelaietara–. Han, bizikletak utzi eta trekkinga egin zuten Aloñako magaletako pagadi batean barrena. Ondoren, berriz ere bizikleta gainean igo eta San Lorenzo auzora egin zuten bikoteek, bertan *score* urbano bat egin eta helmugara abiatzeko.

Tartean baina, hainbat balizaren atzetik ibili ziren bikoteak eta proba bereziak ere egin behar izan zituzten. Parte-hartzaileen arabera, tirolinaren proba eta arku-tiroarena izan ziren dibertigarrienak.

Oñatikoa lehiaketa izan arren, kirolari askok gozatzeko eta raid proben munduan sartzeko aitzakia bezala hartzen dute proba. Hastapeneko raid proba bat dela ez da ahaztu behar; hala ere, lehiatzera doazenentzako pentsatutako proba da Oñatikoa eta horren erakusle da ez zela egon baliza guztiak lortzeko kapaza izan zen bikoterik.

Diziplinaren gorakada

Aurtengoan ere antolatzaileek pozik amaitu zuten egindakoaz. Ibilbidea aurreko urtekoari dagokionez aldatzea erabaki zuten eta dena ondo joan zela aitortu zuen Otamendik. Parte-hartzean egondako igogerarekin ere oso pozik zeuden; izan ere, Gipuzkoan ere kirol modalitate horren inguruan mugimendua sortzen ari da azken aldian eta horrek isla izan du Oñatiko proban.



Arantzazun Raid abentura hasteko prest. | JOSETXO ARANTZABAL



Tirolinaren proba. | ANJEL LERA



Arku-tiroa proba berezia. | MIKEL ARREGI



Mapa eskuetan orientatzen. | MIKEL ARREGI



Bizikleta gainean egin beharreko proba. | JAGOBA DOMINGO



OLASAGASTI ETA BERNAL OÑATI

"Pozik gaude egindakoarekin, tarteka gogorra egin zaigu, baina uste baino hobeto ibili gara. Tirolinarena kurioa iruditu zaigu, bat edo beste uretara joan da, baina polita izan da. Arku-tiroan kale egin arren ondo egon da".



HERNANDEZ ETA SENOSIAIN IRUÑA

"Lehenengoz izan gara Oñatin eta benetan ederra izan da. Nekatuta heldu garen arren, egun paregabea izan da. Gora eta behera ibili gara, baina esperientzia polita izan da. Pena bat izan da herri kiroleko probako soka apurtu egin dela".



RAMOS ETA OSINAGA ARTEA ETA OÑATI

"Bizikletari eman diogu garrantzia handiagoa eta benetan ederra izan da. Herriko bazterak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu eta eguraldia lagun izan dugu. Iazko ibilbidea gogorragoa izan zen, gaurkoa polita izan da".



DANIEL SANCHEZ LIZARRA

"Trekking zatian estrategia txarto egin dugu eta hoge minutu sobratu zaizkigu. Baliza asko bidean utzi ditugu, bestela denborarik ez genuela izango pentsatzen genuelako, baina uste baino azkarrago amaitu dugu".

TXIRRINDULARITZA

Imanol Erle izan da azkarrena Askazubirako igoera kronometratuan

17 txirrindularik parte hartu dute Zubillagako proban

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Imanol Erle oñatiarrak irabazi zuen Zubillagako jaietan ospatutako Askazubi baserrirainoko igoera kronometratua: 17 minutu eta 51 segundu behar izan zituen. Bigarren sailkatu zen Endika Mantecon segurarra eta hirugarren, Lander Villar aretxabaletarra. "Igoera ikusgarria egin dute guztiek, baina irabazlearen erakustaldia itzela izan da. Bigarrenari bi minutu atera dizkio", esan zuen Jonathan Soares, antolatzaile taldekoak.

Irabazlea oñatiarra izanik, igoera ezagutzeak abantaila eman ote zion galdetuta, haxe antolatzaileen erantzuna: "Lehenengo hirurek ezagutzen zuten igoera. Aurretik probatu izan dutelako. Halako igoera baten Imanol Erlek egin duen denbora egiteko, hanka indartsuak behar dira. Ezinbestekoa da indarra bizikleta gainean ibiltzeko", azpimarratu zuten antolatzaile taldekoek.



Endika Mantecon, Imanol Erle eta Lander Villar podiumean. | JOSEBA URTZELAI

500 metroko desnibela

Oñatiko eta inguruetak txirrindulariek ezagutzen dute Askazubirako igoera. Akaso bizikletan igo izan dutelako edo hango malda oso gogorak direla badakitelako. Bada, Zubillagako San Pedro jaietan erronka itzela ipini zuen jai batzordeak: lehen igoera kronometratua. Hiru kilometro eta

300 metroko igoera. Tarte horretan, 500 metroko desnibela gainditzen da.

Zubillagako auzotarrek botatako erronkari 17 txirrindularik erantzun zioten. Gehienak oñatiarrak, tartean Zubillagako lau-azkarrena, Unai Elortza izan zen-, eta Debagoieneko beste hainbat. Baina Askazubirako



Imanol Erle irabazlea, aldapa gora. | JOSEBA URTZELAI



Unai Elortza oñatiarra, Zubillagako lehena, hortzak estutzen. | JOSEBA URTZELAI

igoeraren oihartzuna haratago joan zen, eta Legazpi eta Segura aldeko ziklistak ere egon ziren. Eta, horiek animatzen, bide baterrean, zale asko. Gehienak auzotarrak eta oñatiarrak. "Egia esan, oso pozik gaude igoerak eman duenarekin. Parte-hartzaileek nekatuta, baina pozik bukatu dute, eta ikusleek ere gozatu

ederra hartu dute", zioen Soaresek. Denen erantzuna ikusita, hurrengo urtean bigarren igoera egiteko asmoa agertu zuten.

Igoeraren ostean, sari bana-keta ekitaldia egin zuten eta irabazleak txapela eta garaikurra eramane zituen egindako ahaleginaren truke. Luncha ere izan zuten guztiendako.

KARABINA TXAPELKETA

Felix De la Cruz izan da tiratzaile onena Elgetan

Norika etxeak antolatutako lehen karabina txapelketa jokatu da Elgetako frontoian

IMANOL BELOKI | ELGETA

Elgetako frontoian jokaturako tiro txapelketan 56 pertsonak hartu zuten parte atzo, domeka. Bi kategoriatan banaturako txapelketa izan zen; lehen kategoria, 400 eurotik gora balio duten karabinena izan zen; bigarrena, 400 eurotik beherako kostua duten karabinena. Parte-hartzaile guztiak bigarren kategoriakoak izan ziren, izan ere, lehen kategoriako parte-hartzaile profesionalik ez zen agertu txapelketara.

Felix De la Cruz izan zen punteria onena erakutsi zuena, 92 punturekin. Bigarrena, Joseba Leon izan zen puntuazio berdinarekin, baina berdinketa hausteko finala jokatu zutenean lehenak, sei tiro jo zizkion erdi-erdian dianari eta bigarrenak berriz bost. Azkenik, podiumean hirugarren sailkatua Ander Aguado izan zen, 86 punturekin.

Txapelketan parte hartu zuten askok euren karabina eramane zuten, baina sekula tiro egin



Bi parte-hartzaile tiro egiteko prest. | JOSETXO ARANTZABAL

gabekoak eta karabinarik ez zuten ere tiro egiteko aukera izan zuten. Izan ere, karabina herri-tarrei gerturatzeko asmoarekin antolatu zuten lehiaketa.

Marisa Perez antolatzailearen esanetan, lehenengo urtea izate-

ko "emaitza onak" lortu dituzte. 56 parte-hartzaile egon ziren eta datorren urtean ere txapelketa antolatzea espero dute.

Sari bikainak irabazleentzat

400 eurotik beherako balioa duten

karabinetan sari bikainak izan ziren. Lehenak 1.500 euro eta Hawk GRS karabina eramane zituen. Bigarrenak, 100 euro eta Spider GRS karabina; eta hirugarrenak, 75 euro eta Dragon karabina bat jaso



Ikusle ugari batu zen Elgetako frontoian probaz disfrutatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL



Parte-hartzaileetako bat tiroa egin aurreko momentuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Bi talde lehiatzen, eta zaleak adi-adi partidua jarraitzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Hiru jokalarik baloia begira. | JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA

TCC taldea onena semicup txapelketan

- Lazto Txapel taldea menderatu zuten 3-1eko emaitzarekin, Bergarako Seminarioko finalean
- Parte-hartzaileek eta antolatzaile taldekoek balorazio positiboa egin dute

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Bergarako TCC taldeak irabazi zuen zapatuan hango Seminarioko jolaslekuan jokaturako semicup txapelketa. Finalean Lazto Txapel taldea menderatu zuen 3-1eko emaitzarekin. Finalarekin eta sari banaketa ekitaldiarekin bukatu zuten 15 orduko areto futbol txapelketa. Lehenengo eta bigarren sailkatuen sariak banatu ostean, jokalariek onenaren txanda heldu zen. Semicup txapelketako jokalariek onena TCC taldeko Aitor Oregi izan zen, eta ezusteko jokariaren saria Tzelsea taldeko Eneko Kortabarriak jaso zuen. "Egia esan, txapelketa boro-bila izan da. Oso pozik gaude 18 taldeek erakutsitako jarraitzaileekin."

Ikusleak ere egon dira. Batez ere, goizeko partiduetan. Arratsaldean, euriarekin, giroa apur bat moteldu egin da. Dena den, uste dugu gure helburua bete dugula", esan zuten antolatzaile taldekoek. Eta

DATUA

18

TALDE

Horiek dira Bergarako semicup txapelketan parte hartu zuten taldeak.

zein zen txapelketaren helburua? "Neguan zehar Labegaraletan egiten dugun txapelketarako gonbidapena egin gura genuen. Talde gazte gehiago behar ditugu, eta areto futbola kalera atera dugu. Ea bada, talde gehiagok izena ematen duten", esan zuten.

Labegaraletakoa irailean

15 orduko areto futbol txapelketaren ostean, Labegaraletakoarekin hasiko dira, irailean. Ordu-rako deialdia udako oporren ostean egingo dute antolatzaileek, eta orduan jakingo dute zapatuko txapelketak emaitzak ematen dituen. Bi taldek izena emateko asmoa agertu zuten.



Beste partidua bateko une bat. Jokalariek erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Atezaina gelditua egiteko unean. | JOSETXO ARANTZABAL



Ordezko jokalariek, aulkitxoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Taldea bat. | JOSETXO ARANTZABAL



Jokalaria, baloia zapaltzen. | J.A.

Eneko Lizarralde | Gipuzkoa taldeko txirrindularia

"Garaipen batek konfiantza ematen du, morala igo, anbizioa handiagotu..."

- Tolosan irabazi ostean, Galizian egon da asteburuan, selekzioaz
- Ziklismoa eta ikasketak bateragarri egin ditu; hori bai garaipena

XABIER URZELAI | BERGARA

Ponferradatik –Galizia– erantzun digu Eneko Lizarralde (Bergara, 1993), Euskal Selekzioaz Espainiako Txapelketan parte hartzeko bezperan. Elkarrizketa hau irakurtzen duzuerako, baina, Galizian lehiatzeaz batera domekan ere Irungo lasterketan ibilita egongo da. Baina halako *egurtuak* eramangarriagoak dira, zalantza barik, joan den martitzenean Tolosan lortu zuen garaipena modukoekin. Afizionatu mailan lehena.

Helmugan botatako oihuren ostean, ahotsa errekuaratu?

[Barre] Bai, bai... Helmugako bideoa pasa didate, eta bai, uste baino oihu handiagoa izan zen. Sentipen asko egoten da hor.

Esprintean? Hamabi lagun atzean utzita? Noiztik zaitugu horren azkarra azken metroetan?

Lagunek ere hori esan didate... [Barre] Kontua da lasterketako azken zatian taldetxo bat baino ez ginela geratu, halako erritmoan joan ginen jendea geratzen joan zen, eta Altzo azkeneko pasa genuenean hamabi lagun baino ez ginen geratu. Gure artean eraso ahaleginak egon ziren, eta taldean azkena nintzenean erasotzea erabaki nuen. Tarte bat lortu nuen, eta 500 metroren faltan gainera etorri zitzaizkidan. Zorua bustita zegoen, baina arriskatzea erabaki nuen. Kale artean ez zuten lortu ni gainditzea, eta azken metroetan ere eutsi egin nion.

Olano eta Indurain. Ez da saria jasotzeko konpainia txarra...

Momentuan horren pozik nengoen konturatu ere ez nintzen egin, edo ez nion inportantziarik eman. Baina gero... Bai, ondo gordeko



Eneko Lizarralde, joan den martitzenean, Tolosako sari banaketan, Olanorekin eta Indurainekin batera. | KARLOS MEDRANO

dut argazki hori. Olano izan zen nire lehenengo idoloa, Beloki etorri zen gero. Eta Indurain, bueno, denok dakigu ze handia izan den Indurain.

Halako garaipenek zentzu handiagoa ematen diote egiten duzuen esfortzuari?

Bai, zalantza barik. Egunerok izaten ditugu sari txikiagoak, baina lasterketa bat irabaztea... Horrek morala ematen du, konfiantza

eta anbizio handiagoa... Kristoren bultzakada da.

Jakinda, gainera, ze zaila den kategorian irabaztea.

Irabaztea beti da zaila, baita kade- te edo gazte mailan ere. Baina 23 urtez azpikoetan dagoen maila oso handia da, eta benetan da zaila. Lasterketa askotan aurrealdean ibilita ere lehenengoa izateko faktore asko egon behar dira aldeko. Tolosan lehenengoa izan

den Eneko ez da beste lasterketa batean 22. postuan amaitu duen Eneko baino hobea.

Askotan esan ohi da maila honetan ikasketak eta txirrindularitza ez direla bateragarriak. Hankaz gora utzi duzu esaldi hori.

Baina oso gogorra da. Ingeniari- tzako hirugarren urtea amaitu berri dut, eta datorren urtean proiektuaz jardungo dut, pasa da gogorrean. Baina gogoan dut

"Tolosan zorua bustita zegoen, baina arriskatzea erabaki nuen"

"Lasterketa bat irabazteko gauza asko izan behar dira aldeko"

"Pirinioetatik bueltan ondo egon nahi nuke Antzuola sarirako"

lehenengo urtea nekagarria izan zela. Loari ordu asko kendu nizkion. Zorionez, klasean nengoe- nean, entrenatzeko desatzen egoten nintzen.

Kontrara, egun osoa burua bizikletan zentratuta izan beharrean, eskolako kontuek entretenitzeko balio izango dute, bizikleta gainean bolada txar bat izanez gero, batez ere.

Zalantza barik. Ez dakit erren- dimenduan zenbateraino eragin- go duen denbora ikasketen eta bizikletaren artean partekatzeak. Ondo lo egitea, ondo entrenatzea, atsedean hartzea... garrantzitsuak dira, eta ikasten ari zarenean, ba...

Zer esan nahi du Euskadiko Selekzioan aukeratuaren artean ego- teak?

Oso polita da. Gazte mailan ere egondakoa naiz, eta gure herriko koloreak daramatzen maillota janztea polita da.

Ze asmorekin zaudete?

Irabaztera irtengo gara, horixe da gure zuzendari Jon Odriozolak barruraino sartu diguna, irabaz- tera irten behar dela beti. Erlo- juperako Jon Ander [Insausti] oso indartsu dago, ea erakustal- dia ematen duen, eta errepideko lasterketarako garaipenerako hautagai asko ditugu. Uste dut oso talde indartsua dugula, tal- deko ia erdiak lasterketaren bat irabazi du aurrean. Ea, batetik, hautatzaileak zer esaten digun, eta bestetik, lasterketa zelan joa- ten den. Zortzi itzuli eman behar dizkiogu zirkuitu bati, eta bi igoera gogor ditu. Ikusteko dago non erabakiko den proba.

Eta datozen hilabeteotan zer?

Uztaillean hainbat itzulitan har- tuko dut parte, tartean, Leonen. Akaso, hori izango da itzuli garrant- zitsuena. Gero, taldekideak aste- bete joango gara Pirinioetara, entrenatzera; ea handik bueltan Antzuolarako sasoi onean nagoen. [Uztailaren 13an da Antzuola saria] Eta uztail amaieran atsedean har- tuko dut, urteko azken zatiari begira. Egia esatearren, ondo eto- rriko zait atsedendaldi hori, asko- tan ez da jakiten fisikoki edo mentalki dugun behar handiagoa. Eta oporren ostean ekingo diogu denboraldiaren azken zatiari. Baina hor, ikusi egin behar gel- dialdiaren ostean gorputzak zelan erantzuten duen.

Azken garaipena, duela 12 urte

Afizionatu mailan lasterketa bat irabaztea ez da gauza erraza, eta horra datu bat, hamabi urte atzera egin behar dira Debagoieneko ziklista batek lasterketa bat irabazi zuenetik. 2002an Asier Atxak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa, Bergaran.

Lokatza Ziklismo Eskolako lagunei esker jakin dugu, baita ere, bergararren artean hamabost urte pasa direla azken garaipenetik. Orduan, Jon Unamunok jaso zituen besoak, Gasteizen.



Atxa, Bergaran, helmuga zeharkatzen; Markel Irizar, atzean. | JUAN LUIS JUAREZ



Jon Unamuno, 1999an, Gasteizko Virgen Blanca sarian. | JAIME ORTEGA

Iñaki Larrea | Hazitegi taldeko ikertzailea

"Espazio aberatsa irudikatzen dugu askotariko jolasak egiteko"

Eskoletako kanpo espazioek duten garrantziaz dihardu Larreak; haurren ikaskuntzan oinarritzeko dira, eta ez zaie beharrezko arretarik eskaintzen

ANE ELORDI | ARRASATE

Iñaki Larrea hezkuntza alorreko ikertzailea da, baita Mondragon Unibertsitateko kidea ere. Beste ikertzaile, guraso eta irakasle batzuekin batera Hazitegi taldeko partaidea da. Hazitegik Haur Hezkuntzan oinarritutako ikerketak egiten ditu. Eguaztenean jardunaldiak izan ziren Huhezín, eta kanpo espazioak izan zituzten hizpide.

Ikastetxeko kanpo espazioak aipatzerakoan, zehazki, zein gunez ari gara?

Tradizionalki, *jolastoki* hitza erabili izan da kanpo espazioaren zati handienari deitzeko. Guretzat, kanpo espazioa da jolasteko tokiaz gain beste ekintza batzuetarako erabilgarria dena; familiak egoiteko edo beste aukera batzuetarako tokia ere badelako.

Aipatutako espazio horrek behar duen arreta jasotzen du?

Ez, nire ustez, arreta handiagoa jartzen da barruko espazioetan. Barne espazioetan asko hausnartu da azken urteetan; alegia, txokoak direla, toki irekiak direla. Baina kanpo espazioaren ideia ez da mahai gainean jarri oraindik, eta ikastetxe gehienetan hausnarketak egiteke daude. Europako zenbait herrialdetan haurrek ordu asko ematen dituzte bertan, onuragarria dela ikusi dutelako; izan ere, garrantzitsuak dira.



Iñaki Larrea, Hazitegiko kidea. | TXOMIN MADINA

"Kanpo espazioa ez da mahai gainean jarri oraindik; asko dago hausnartzeko"

Jolasteaz gain, ze beste ekintza egin daitezke espazio horietan?

Jolasa garrantzitsua da eta ez da gutxietsi behar, baina jolastokiak oso mugatuta daude diseinuari dagokionez: porlan asko, eta futbol eta saskibaloia kantxa asko.

Guk espazio aberatsa irudikatzen dugu, jolas desberdinak egiteko aukera ematen duena eta ez kirolera mugatuta dagoena.

Zeintzuk dira kanpo espazio batek izan ditzakeen onurak?

Euskal Herri mailan ez da ikerlanik egin. Baina Europako ikerketak aintzat hartuta, kanpo espazioetan haurren arteko harremanak aberasten dira, haurren ikaskuntza prozesuan lagungarria da eta gauzak *in situ* ezagutzen dira. Adibidez, egokiagoa da naturaz hitz egitea, naturarekin hartu-eman zuzenean egonda.

Txertatze egutegi bateratuak zortzi txerto biltzen ditu

Zenbait proposamen eta gorabeheraren ondoren, 2014rako adostu zuten umeen txertatze egutegia

ANE ELORDI | ARRASATE

Jabier Agirre pediatrik *Guraso.com* atarian egindako sarreraren, umeen txertatze egutegia izan du hizpide; gai korapilatsua izaten ari da. Izan ere, orain arte, zantza izan dute gurasoek, ez baitute jakin txertoa noiz jarri umeei, herrialde bakoitzean egutegia ez zelako bera.

Umea bizi deneko lurraldeko osasun agintariek txertatze egutegi desberdinak proposatzen zituzten; horren ondorioz, Ipar Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan desberdinak dira. Aspalditik egu-

tegia bateratzeko asmoa agertu dute zenbait adituk, 2013an hurrengo urterako proposamena egin zuten, eta aurten, 2014an, txertatze egutegi bateratua adostu eta martxan jarri dute Espainian.

Zortzi txertodun egutegia

Txertatze egutegi bateratuak zortzi txerto biltzen ditu: poliomielitisa, difteria-tetanosakukutzeztula, *b* motako haemophilusa, meningitisaren kontrako txertoa, barizela eta giza papiloma.

Txertoak ez dira derrigorrezkoak, baina gaixotasunak harapatzea ekiditen dute eta aditu

gehienek gomendatzen dituzte; hala, haur gehienek hartzen dituzte. Gainera, Espainiako Osasun Ministerioak 2014rako immunizazio programa adostea lortu zuen, eta horrela, egun Espainiako Estatuko herrialde guztietan txertatze egutegia bera da.

Txertatze egutegi bateratua ere, adostu egin da txerto bakoitza zenbat urterekin hartu behar den. Hori dela eta, eskuragarri dago 0 eta 16 urte bitartean haurrak hartu behar dituen txertoak zeintzuk diren eta zenbat urterekin hartu behar diren.

Orokorrean, osasun arloko langileek eta Jabier Agirre pediatrik ere txertoak jartzea sustatu eta gomendatzen dute; izan ere, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, haurren artean, txertoei esker bi milioi eta erdi heriotza saihesten dira munduan. Hala ere, txertoak hartzea borondatezkoa da.

Ezetz esatearen orde, baietza eta alternatibak proposatzearen alde

ANE ELORDI | ARRASATE

Ohikoa izaten da haurrei ezetz esatea: gurasoek sarritan ezetz esaten diete seme-alabei, eta horrek haurren haserrea edo ezinegona areagotu egiten du. Armando Bastida blogariak bere blogean gai hori izan du hizpide; haren ustez, ezetzaren ostean baietak dauka eragin-kortasun handien. Alegia, umeei egin dezaketena esatea komeni da, eta ez ezin dutena egin.

Ezetzak umeengan eragin negatiboa dauka; izan ere, haurrak gogotsu egin nahi duen zerbait debekatzea ekartzen du askotan. Gainera, ez arrazoi-tzeak ez dio egoerari mesederik egiten. Bastidaren ustez, egokia da zenbait egoeratan haurrek

egoeraren gidaritza izatea; esaterako, jolasean edo garrantzi txikiko ekintzetan. Baina arazoa sortzen da gurasoek egoera desatseginak ekiditeko gai ez direnean.

Baietza ezetzaren orde

Haurtzaroan gurasoen sorkuntza maila ere garrantzitsua da; ekintza bat debekatzeko orduan, beste alternatiba bat proposatzea komeni da. Horrela, haurrari egin ditzakeen gauzak zeintzuk diren esaten zaio. Hori da gakoa, debekuen aurrean alternatiba positiboak eskaintzea; esaterako, museo bateko pasilloetan ezin dela korrikarik egin, baina espioitzan jolas daitezkeela.



Neskatala haserre. | ABRAHAMCINO

IBILALDIA

Labeak eta ur-jauzia ikusteko aukera Aiako parkean

ANE ELORDI | ARRASATE

Ola eta Aitzondo lotzen dituen 4,5 kilometroko ibilbidea da proposatutako hurrengoa. Apropo familia giroan egiteko, haurrekin, inguruko ola eta Aitzondoko ur-jauzia ikusteko aukera polita da.

Ibilaldia Irungo Meaka auzotik has daiteke, eta porlanezko bidea dago ibilaldi osoan. Bertan, XIII. mendeko ola bat dago, egun sagardotegi bilakatu dutena. Ibilbidean zehar Belbio eta Belbioberrri baserriak igaroko dira, eta, horren ondoren, Karburoko etxearen hondakinak daude. Etxea zeharkatu eta bidea jarraituta, erreka ertzetik, ur-jauzira heltzeko aukera dago. Txoko ikusgarria eta berezia da, batez ere, udaberrian edo errekek ur asko daraman garaletan. Erreka ertza labainkorra izaten da; horrenbestez, kontuz ibiltzeko ingurua da.

ERREZETA

Madalenak etxean erraz egiteko zenbait argibide

ANE ELORDI | ARRASATE

Adin guztientzako madalenak egiteko errezeta erraza da hurrengoa. Beharrezko osagaiak ere aise lor daitezke: arrautzak, olio, azukrea, azukre hautsa, irina eta legamia, hain zuzen.

300 gramo irin, olio eta azukrea nahastu behar dira, krema lodi bat egin arte. Ondoren, legamiaren eta irinaren txanda izango da; gutxinaka gainerako osagaiei botako zaizkie, eta guztiak espatura batez irauliko dira. Behin oreka ondo eginda dagoela, paperezko moldeetan banatuko da. Labea 220 gradura sartuko da, eta bertan utzi behar da hamabost minutuan. Kolore gorrixka hartzen dutenean orratz bat sartuko zaie; orratza garbi ateraz gero, eginda dauden seinale; bestela, labean utzi behar dira denbora luzeagoan. Azkenik, azukre hautsez apainduko dira.



KULTURA

Urrezko Zeledoa: Josemari Velez de Mendizabalen eta Aramaioaren saria

- Josemari Velez de Mendizabali emango diote 2013 Urrezko Zeledoi errekonozimendua
- Aramaiok beste bi saridun eman ditu: Rafa Mendialdua eta Sabin Salaberri

LEIRE KORTABARRIA | ARAMAIO

Josemari Velez de Mendizabal idazle eta ikertzaile aramaioarra da 2013 Urrezko Zeledoi sariaren irabazleetakoa bat. Bera eta Asun Gorospe maeztuarra saritzea erabaki du aurten Urrezko Zeledoiak erakundeak. GOIENAK berarekin berba egin zuen sariaren berri eman eta gutxira, egubakoitzean; idazle eta Eusko Ikaskuntzako kideak bezperan jaso zuen albiste, eta "oraindik *shock*-etik irten gabe" zegoela esan zion komunikabide honi.

Berarendako ez ezik, Aramaio herriarendako ere bada saria, izan ere, idazleak berak azpimarratzen duenez, dageneko hiru dira Urrezko Zeledoa jaso duten Aramaio semeak: Velez de Mendizabalez gain, Rafa Mendialdua eta Sabin Salaberri dute. Mendialduari 2003an eman zioten, Arabako Koruen Federazioako presidente izateagatik eta abesbatzetan egin duen lana saritzeko; eta Sabin Salaberri, 2005ean, musikan izan duen ibilbidea eskertzeko.

Hain zuzen, honakoa gaineratu zuen Velez de Mendizabalek: "Oraindik *shock* handiagoa izan da jakitea zeintzuk izan diren eragileak: batez ere, Aramaioetik irten da eta eskabidea, eta nire hautagaitza sinatu dutenen artean daude gaurko alkatea, Ramon Ajuria, eta baita aurrekoak ere, Julian Untzueta, Iñaki Nafarrate, eta baita Sabin Salaberri eta Rafa Mendialdua ere. Horrek emozio-natu egin nau".

Arabaren aldeko lanaren sari

Urrezko Zeledoiak 1962an hasi ziren ematen, eta urtero Gasteizen ematen den sari garrantzitsuena da. Oro har, Arabaren inguruan, arlo askotan, ekarpena egin duten lagunak saritzen dira; Arabaren izen ona eta prestigioa handitzen eta zabaltzen lagundu dutenak, hain zuzen ere. Era berean, saridunak Urrezko Zeledoiak erakundearen kide bihurtzen dira.

Velez de Mendizabalen kasuan, sariaren berri emateko prentsaurrekoan, bere curriculumaz hitz egin zuten eta Gasteizen eta, oro har, Arabaren inguruan berak



Josemari Velez de Mendizabal eta Asun Gorospe, Urrezko Zeledoa eskuetan dutela. | GOIENA

egindako dibulgazio lana azpimarratu zuten.

"Taldea interesgarria da"

Sariak banatzeko ekitaldia irailaren 26an izango da, Gasteizko Principal antzokian. Hor jasoko dute zeledoa aurtengo saridunek eta, horrekin batera, Urrezko Zeledoiaren Fundazioa kide bihurtuko dira. Hori beste ardura bat izango da Velez de Mendizabalen bizitzan. Fundazioa dagoeneko

ondo ezagutzen du eta aurten bertan hitzaldi bat egin zuen, haiek antolatuta. Aurrerantz, taldekide gisa egin beharko du lan: "Urtean egiten dituzten ekitaldietan parte hartuko dut, hitzaldiak direla, mahai inguruak direla, hedabideetarako artikulak direla...".

Eta lantalde horretako kide izatearekin pozik dago aramaioarra: "Erakundea gustatzen zait gauza batengatik: profil guztietako

pertsonak direlako". Aurtengo beste sariduna kirol arlotik dator; eta aurreko beste saridun asko ezagutzen ditu Velez de Mendizabalek: Jose Angel Cuerda (Gasteizko alkate ohia), Jose Mari Sedano (esataria eta Gasteizko jaietan aditua), Javier Cameno (Aste Koralararekin eta Deportivo Alavesekin lotura duena), Angelines Cobas (Radio Vitoriako esataria)... "Taldea interesgarria osatzen dute", dio aramaioarrek.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

"Nire bi sari nagusiak jaioteritik etorri zaizkit"

Aramaio Seme Kutunaren izendapena eta Urrezko Zeledoa dira Josemari Velez de Mendizabalendako jaso dituen errekonozimendu maiteenak.

Arabaren inguruan egin duzun dibulgazio lana azpimarratu du Fundazioak.

40 urte pasa dira kulturaren munduan hasi nintzenetik. Lehendabiziko artikulua Gasteizen idatzi nuen, eta gero asko eta asko idatzi dut, batez ere prentsan, Arabari buruz. *Hoja del Lunes* delakoan hasi nintzen, 1980an, eta lau urtez astero botatzen nuen artikulua bat Arabari buruz. Gero horrekin liburua egin genuen eta 83an publikatu genuen. Gero, Arabari buruz asko eta asko egin dut: irratan, telebistan, Radio Vitorian saio bat izan nuen, Eusko Ikaskuntzaren bitartez, eta hor gai dibulgatiboak lantzen nituen. Eta Arabako medioetan kolaboratu dut sarritan.

Jaso izan dituzun errekonozimenduen artean non kokatuko zenuke hau?

Ditudan bi errekonozimendu handienak dira, hain zuzen, Aramaio Seme Kutun izendatu nindutenekoa eta hau; hauek dira nire lanaren ordainez orain arte jaso ditudan bi sari nagusiak. Eta azpimarratzekoa da biak etorri direla nire jaioteritik, eta pozik egoteko modukoa da hori.

Urrezko Zeledoi zarenez gero, Gasteizko jaietan egongo zara?

Beti egoten naiz. Uribarri-Gangoan nengoela harrapatu ninduen albisteak. Jaietara urtero joaten naiz, aitzakia batekin ez bada beste batekin. Orain, Zeledoiaren jaietsierara gonbidatu naute.

San Pedro eguneko meza erreferente 'klasiko' bilakatzeko bidean Bergaran

Koru Parrokialaren eta Stoltz organoaren doinuek bete egin zuten eliza

PEDRO GARITANO | BERGARA

Atzo, domeka, Bergarako San Pedro parrokiak bere egun handia ospatu zuen, eta baita bertara gerturatu ziren hainbat fededun eta musikazalek ere. Hori horrela izateko, bat egin zuten oraindik ere Bergaran dauden aukerek; hala nola, ingurune paregabeak, San Pedro parrokiaren 12 kanpai galantek bueltaka, Stoltz-Frères organo erromantiko zoragarriak –bere organista titularra den Aitor Oleak eman zion dizdirarekin–, eta Rosa Narbaizak zuzendutako sekulako Koru Parrokialak.

Hain zuzen ere, bertaratukoek ondo baino hobeto gozatu ahal izan zuten atzokoan lehen urteurrena bete zuen Koru Parrokialaz.

Perosiren *Misa Pontificalis* entzun ahal izan zen San Pedroko meza nagusian, maila oso onean gainera, eta bukatzeko Eslava maisuaren *Tu es Petrus*. Horrekin guztiarekin, merezitako txalo zaparradak eman zion bukaera ikuskizun ederrari.



Koru Parrokiala Rosa Narbaizaren zuzendaritzapean atzo, domeka, San Pedro parrokian. | JOSETXO ARANZABAL

Organoa egoera kaskarrean

Jon Molina parrokoak emandako mezaren ostean, hainbat komentario entzun ziren San Pedro eguneko meza nagusia Bergarako

ekintza erlijiosoen barruan erreferente *klasiko* bihurtuko dela adieraziz. Hala izan dadila, organoak soinu egiten duen bitartean, behintzat. Erromantikoen barruan

munduan gutxi dira hura bezalakoak, baina ez badugu neurririk hartzen *iragarritako heriotza* baten aurrean aurkituko gara. Isildu egingo da betiko.

'Zirkoa' kale ikuskizuna eguaztenean Aretxabaletan

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak antolatuta kaleko ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da uztailaren 2an, izango da. The Funes Troup taldeak *Zirkoa* ikuskizuna egingo du 19:00etan Herriko Plazan.

Gorka Pereira, Rodrigo Lacasa eta Xabi Larrea aktoreek umore absurdua erabiliko dute egoera dibertigarriak kontatzeko, eta, akrobazia saltoekin, dantza zoroekin eta trebetasun harrigarriekin borobilduko dute *Zirkoa* ikuskizuna.

Uztailaren 9an, Trapu Zaharra talde ezagunak *Konga* ikuskizuna eskainiko du Durana kalean, 19:00etan. Hilaren 16an, berriz, Tiritirantes antzerki eta zirku konpainiak *Hankaz gora* lana erakutsiko du, malabarismoak, akrobaziak, sua eta umorea uztartzen dituen, eta hilaren 23an, Malas Compañías taldea *Txatarra* lanarekin joango da Aretxabaletako Herriko Plazara, 19:00tan.

KRONIKA

Behi Bi, baby, Behi Bi... blues



Behi Bi Blues bikotea disko berria aurkezten Laino skateparkean. | IMANOL SORIANO

FITXA

MUSIKA

BEHI BI BLUES, DISKOAREN AURKEZPENA

Estiloa: Blues.

Non: Laino Skatepark, Bergara.

Eguna: Egubakoitza, ekainak 27.

Iraupena: Ordu eta erdi.

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Egun lanpetu baten ostean heldu zen Behi Bi Blues bikotea Bergarako Laino Skateparkera. Gitarra eta armonika eskuetan Gipuzkoako hainbat txokotan ibilita –Donostiako goxoki denda baten jo ostean, esaterako– nekatuta, baina ume berria etxean ezagutza eramateko gogoz. Diskoa Bergarako jaietan aurkeztu bazuten ere, egubakoitzekoa berezia izan zen. Izan ere, Lainon hainbatetan ibilia da bikotea, eta batez ere, Azkaiter Pelox bergararra.

Emanaldia lasai hasi zuten Azkaiterrek eta Gaizkak, Lainon afaldu berri zeuden ikusleei afaria digeritzera laguntzeko prest. Hala ere, gutxi kosta zitzairen betiko dinamikan sartzea, aho soinuaz, eta egubakoitzean bereziki soinu goxoa zuen gitarrarekin. Tremolo efektuaren itzalpean Azkaiterren gitarrak blues erritmoak bata bestearen atzetik jaurtitzen zituen eta Gaizkaren armonikak, diskoan garrantzia eta protagonismo handia duenak,

dotoreziaz jarraitu zien Grestch gitarraren oihuei.

'Zamburleiker' atzean utzita

Diskoko hamaika kantuek jo ez zituzten arren, estreinako lanaren errepaso luze eta sakona egin zuen bikoteak. Esan bezala, blues erritmoek agindu zuten, besteak beste *Zure xarma*, *Bluesaren bide luzea* edo *Astelehen trumoiatsuak* kantuekin. Hala ere, ohi bezala, funky zein bossa nova doinuek edo Cramps estilora egindako erritmo lizunek ere tartetxo izan zuten Lainon.

Zamburleiker diskoaren bira amaitutzat eman zuen Azkaiterrek aspalditxo. Hala ere, *Jantzi peluka* eta kaleratu berri duten diskoan berriz ere grabatu duten *Orioko itsas ertzean* –Ottis Reddingen *Sittin' on the dock of the bay*– kantuek jo zituzten. Familia giroan joan zen kontzertua eta oraingoan gainera, eguraldi onak kontra egin zuen, skatepark kanpoan barruan baino jende gehiago zegoen-eta.

Horri aurre egin zion Behi Bi Bluesek, eta Gaztelupeko Hotsak disko etxeak kaleratutako diskoaren kantuek hainbat bertsioarekin tartekatuta zituzten. Beste batzuen artean Bill Halley-ren *Rock around the clock*, Rolling Stones ingelesekin *Honky Tonk Woman* edo amaitzeko jo zuten Stray Cats-en *Rock this town*. Jaia borobildu eta amaitzeko Juanjo festara batu zen eta lagunarteko jam saio bat egin zuten.



Oñatiko Abesbatza eta Bergarako Orfeoia San Migel parrokian. | JOSETXO ARANTZABAL

Estreinako "borobila" San Migel parrokian

Etxeko lanak ondo eginda, segurtasunez hasi eta Oñatiko parrokian ederto gozatu zuten musikariek

JAGOBA DOMINGO | BERGARA
Ikasturteko sei hilabetez lana gogotik egin ostean, atzo saria jaso zuten Bergarako Orfeoia eta Oñatiko Abesbatzak. Oñatiko San Migel parrokia goraino bete zen Bach eta Vivaldiren pieza barrokoez goatzeko irrikaz eta musikariek ez zuten hutsik egin. Ohiko urduritasunak ez ziren agertu; izan ere, entseguetan lan handia egin dute eta horrek estreina-koan konfiantzaz taularatzeko aukera eman zien. Segurtasun hori, gainera, publikoak segituan sumatu zuen eta ordu eta erdiz emanaldi "serio eta borobila"

eskaini zutela esan zuen Karlos Etxaniz bergararrak. Vivaldiren *Gloria* obrarekin ekin zioten. Ostean *Credo* eta Bach-en *Cantata 131* interpretatu zituzten. Amaitzeko, Gounod-en *Ave Maria* abestu zuten.

Hurrengorako "irrikan"
Atzo Oñatin egin beharrekoa egin da, datorren zapatuan Bergarako San Pedro parrokian izango dira, 19:00etan. Sarrerak kultura etxean, Lazkano zapata dendan eta Pikuperen bulegoan daude salgai, 8 eurotan. Etxanizek "irrikan" dau dela gaineratu zuen.

Gauetz eta kalean, kontzertu ederra egin dute Ganbarakoek ikusle mordoaren aurrean

J.D./M.A. | OÑATI
Bidaurretako monasterioaren ataria argiztapen bereziz apaindu zuten, eta abesbatzek ere, ederki bete zuten euren lana. Jazza eta habanerak izan ziren gaueko izarrak, eta euskal kantu, gospel edo musika erlijiosoz osatu zuten errepertorioa. Ganbara Gazte abesbatzak izan zuen kontzertuari hasiera emateko ardura. Pianoa, baxua, kontrabaxua eta perkusioa izan zituen lagun Ganbara Gazte abesbatzak. Chicott-en *A little Jazz Mass* piezarekin hasi zuten kontzertua. Ganbara Abesbatzaren txanda izan zen ondoren. Rachmaninov-en *Bogoroditse*

Devo eta Morten Lauridsen konposatzailearen *O Magnum Mysterium* obrekin eman zioten hasiera kontzertuari. Gero etorri ziren, habanerak. Javier Bustoren *A tu lado* lehenik, eta ondoren Minguezen *Amor esto es amor* edo Albert Alcarazen *Lo que necesito de ti*. Amaitzeko Ganbara Gazte abesbatza atera berriz ere eszenatokira, *Don't worry, be happy* eta *Aquarius Let Sun Shine* abestera. Kontzertuari bukaera borobila eman zioten bi abesbatzek elkarrekin, Josu Elberdinen *Segalariak* abestiarekin eta R.Ray-ren *He never failed me* gospel kantua erekin.



Ganbara Gaztekoak bidaurretan. | JOSETXO ARANTZABAL

Beñat Zamalloa kazetari aretxabaletarrak "oso pozik" jaso du Rikardo Arregi saria

2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaz egindako jarraipenagatik saritu dute

M.B. | ARRASATE
Beñat Zamalloa kazetari aretxabaletarrak Rikardo Arregi saria jaso du. Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren helburua eta Zamalloak 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaz zenbait hedabidetan egindako jarraipenarengatik jaso du lehen saria. "Idazkera ona eta dotorea erakutsi du, edozein delarik erabilitako generoa", esan zuen epaimahaiak, eta Zamalloa oso pozik azaldu da: "Epaimahaiak nire lanaz egin duen irakurketarekin oso pozik nago. Nik aurkeztu nuen sariketara *Berria*-rako egindako lana, baina baloratu dute beste hedabide batzuetarako ere egindakoa, Hamaika Tebistarako eta Bizkaia Irratirako egindakoa, esaterako, beraz, oso pozik nago". Zapatuan banatu zituzten 26. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak



Batzarrrika, Goikoetxea, Goenaga eta Zamalloa. | GOIENA

Andoaingo Bastero kulturgunean. Eta hantxe jaso zuen 9.000 euroko saria Zamalloak. "Ekainaren 2an jakinarazi zidaten, eta sekulako zoriona izan zen", esan zion Goienari sari banaketa ekitaldiren ostean. **Beste bi sari**
Garikoitz Goikoetxea *Berria*-ko kazetariak eskuratu du kazetari

berriaren saria, iazko udan Euskal Herriko biztanleriaren inguruan eginiko erreportaje sailarengatik. Horrez gain, *GAL 30 urte Berria*-k eginiko multimedia lanari eman diote epaimahaiaren aitortpena. 1983 eta 1987 urteen artean GALek egindako ibilbidearen eta atentatuen kontaketa da lan horren ardatza.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



ALDAPE taberna ALDAPE Jatetxea Iturriotz kalea 41 Arrasate Tel.: 943 79 63 69 Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaeretako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).	ALZU ALZU, S.L Ehiza eta arrantza Arantzazuko Ama, 2 Oñati Arropetan %10eko beherapena.	AZPEITXI JATETXEA AZPEITXI Jatetxea* Aranerreka kalea 13, Bergara Tel.: 943 76 55 00 Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.	Esko Sport ESKO SPORT Kirol denda Intxaurtxueta 5 Eskoriatza Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.	ESTACION SERVICIO ARRASATE Gasolindegia San Andres 7 Arrasate % 2ko gasolindegian erregeia erosita. % 2ko dendako produktuetan.
GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak GAES Entzumen zentroa Otalora 18 Arrasate Zurradero 10 Bergara %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)	GAHIR fisioterapia osteopatia GAHIR Fisioterapia / Osteopatia Aranburuzabala 6 behea Eskoriatza %50eko deskontua lehenengo kontsultan.	GRACIAN Mertzeria GRACIAN Mertzeria Bidekurutzeta kalea 6, Bergara 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.	instituto optico INSTITUTO OPTIKOA Bidekurutzeta 10 Bergara %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..	ione moñux fisioterapia zentroa IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa Burdinate plaza 2 Bergara Lehenengo sesioa, sesio erdi..
itsaslur ITSASLUR Jatetxea Zerkaosteta kalea 3 Arrasate Tel.: 943252632 Txuleta zaharra: %10eko deskontua ekainean eta uztailan	JAUJA KIROLAK JAUJA KIROLAK Irizar pasealekua 1 behea, Bergara Produktu guztietan %5eko deskontua..	LONBIDE OINETAKOAK LONBIDE Oinetakoak Bidekurutzeta kalea 5, Bergara Produktu guztietan %10eko deskontua.	MAGDALENA GASOLINDEGI MAGDALENA Gasolindegia Santxolopetegi auzoa Oñati % 2ko deskontua gasolindegian erregeia erosita.	Markiegi MARKIEGI JANTZI DENDA Olarke kalea 2 Arrasate Produktu guztietan %10eko deskontua.
MIREN GARAI MIREN GARAI Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate Tel.: 943 799 690 Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.	ML ML Ile-apaindegia Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965 "Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua. Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.	MULTIOPTICAS lehen zerbitzu optikoetan MULTIOPTICAS Optika Juan Carlos Guerra, 1 behea Arrasate Ibargarai, 16 Bergara %15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..	NEBRASKA NEBRASKA taberna Zarugalde 35 - Arrasate Tel.: 943 79 09 39 MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan Interneteko menuetan %5eko deskontua	NINIKALORADENDA NINIKALORADENDA Ramon Maria Lili, 8 Bergara %10eko deskontua artikulu guztietan.
PORTALOI OPTIKA PORTALOI optika Erdiko kalea 10, Arrasate %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).	ARRIKRUTZ oñatiko obak ARRIKRUTZ Kobak Araotz Auzoa Oñati Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).	SARA MERENDERUE SARA MERENDERUEA Jatetxea Meatzerreka auzoa 19, Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate Tel.: 943 77 15 86 Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).	TABERNA-BERRI JATETXEA TABERNA-BERRI Jatetxea* Durana kalea 26, Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67 Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.	ZABALA Jatetxea ZABALA Jatetxea* Labegarieta 14, Bergara Tel.: 943 76 42 57 Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

POLI-TICKS

GURE MUSIKA TALDEAK



Hirukotea diskorako egindako argazki saioan. | IKER AIZKORBE ETA JOSU TXINTXURRETA

"Diskoa taldearen aurkezpen txartela da, zuzenekoan erakusgarri bat"

- Hirukotea Urrezko Pua lehiaketaren ondorioz sortu zen
- Ilusio eta gogoz dabilta diskoa aurkezteko zuzenekoak prestatzen

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Patxi Luque gitarrista –Zilarrezko Puaren irabazlea– da PoLi-tiCs taldeko aurpegi ezaguna; hala ere, haratago doan proiektua da. Aurkezpen txartela duela aste batzuk jaso dute eta asteburuan bertan zuzenean estreinatu dute.

Non hasi zen abentura?

Duela bi urte inguru hasi zen. Urrezko Pua lehiaketara aurkeztu nintzen bi helbururekin: bate-tik, nire burua ezagutzera emateko; eta bestetik, eta garrantzitsuena, talde bat sortzeko jendea bilatzeko. Hasieran, bakarrik aurkeztu nintzen, baina antolatzailleek talde batekin aurkeztu behar nuela esan zidaten eta orduan laguntza eskatu nuen. Momentu hartan sortu zen taldea; hasieran, ni [Patxi Luque], *Xuster* baterian, *Txarra* baxuan eta *Murray* gitarran ginen; azken horrek taldea utzi behar izan zuen eta ordutik hirukote gara.

Esan bezala, lehiaketara aurkeztea taldea sortzeko aitzakia izan zen, eta helburua; lehiaketak bere baitan ez zidan axola, talde bat egin eta lan egiteko gogoia eta ilusioa zuen jendea ezagutzea zen, eta helburua lortu nuen.

Orduan sortu zen taldea.

2013ko otsailean hasi ginen talde bezala. Lokaleko egokitze lanak egin genituen eta gure kantuetan lanean hasi ginen; izan ere, zuzenekoetan bertsio bakarra jotzen dugu, Gary Moorereña. Izatez bederatzi kantu propio ditugu, diskoan lau kaleratu arren.

"Taldea bat sortzeko aitzakia izan zen lehiaketa"

Zer dela eta?

Hasierako asmoa aurkezpen txartel bat egitea zen, maketa bat. Hala ere, orain EP edo disko deitzen diogu, hasieran espero genuena baino emaitza askoz ere hobe lortu dugulako. Produktzioa nahiko landu dugu eta diskoa entzuterakoan nabari dela uste dugu. Lau kantu bakarrik grabatzeko beste arrazoi bat dirua izan da. Gure kabuz egin dugu dena; beraz, dirua gure poltsikoetatik irten da; guregatik balitz, kantu guztiak grabatuko genituen, baina... Gure ustez, taldearen erregistroak argi islatzen ditu lanak. Izan ere, koordinada jakin batzuetan mugitzen bagara ere, estiloetan nahiko eklektikoak garela uste dugu.

Kitarshokak-en grabatu duzue.

Bai; Eibarrera jo genuen. Gainera, estudioa estreinatu genuela uste dugu. Aitor Sologastoa izan da teknikaria, lagun bati esker eza-

ZERTZELADA



POLI-TICKS

Estiloa: Hard-rock, heavy.

Egilea: PoLi-tiCs (Aretxabaleta, 2014).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 19:47 minutu.

Gitarra ardatz, (hard) rock irekia

Patxi Luque gitarra jotzaileen La Púa de Oro lehiaketa irabazi izanagatik nuen ezaguna. Orain, PoLi-tiCs taldea osatu du eta honako lau kantuetan gitarrak protagonismo handia du, jakina. 'Mi sangre' gaztelaniaz abestutako balada epikoa da punteoz jositakoa; 'Burdin aho' AHTrizuzendutako gezi pozointsua, abesterakoan Aitor Gorosabelen ukitua hartzen duena eta tenpo lasai baina erritmo indartsua duena. 'My way' Kaliforniako speed-metal da, trinkoa eta bizia, instrumental oso landua. Eta taldeari izena ematen dion 'Politics' horien kontrako eraso oldarkorra izateaz gain, punk-rockaren jenioa duen hard-rock indartsua, kantu borobila.

IKER BARANDIARAN

gutu genuen; egia esan, pertsona oso zorrotza eta metodikoa da, emaitzan zeresana izan du. Grabazioa, baina, odisea hutsa izan da. Azaroan hasi eta martxora arte ezin izan genuen amaitu. Osasun arazoak izan genituen; *Txarra*-k lunbalgia dela-eta bajaran eman zituen hilabete pare bat, *Xuster*-ek

eztarrian arazoak izan zituen eta teknikaria ere gaixo egon zen. Gure asmoa astebetean grabatzea zen; hala ere, dena okertu zitzaigun eta prozesua luzatu egin zen. Hurrengorako ikasbidea badakigu, estudioa erretirora bezala joango gara, buru-belarri diskoan lanera. Oso zaila da lana, familia eta grabazioa aldi berean bateratzea.

Bertako materialarekin grabatu duzue, gainera.

Bai; nik neuk hainbat gitarra, anplifikadore eta pedal probatu nituen; esaterako, PRS, Fender eta Gibson gitarrak; Marshall 800, Crate eta Mesa Boogie anplifikadoreak eta hainbat overdrive pedal. Nik, [Xuster] Yamaha custom bateriarekin grabatu nuen, baina hurrengoan nirearekin grabatuko dudala argi dut. Kontua da entseguak klaketa barik egiten genituela, eta estudioan klaketarekin nahiko txarto pasatu nuen; ordutik hona, klaketarekin entseatzen dugu!

Beraz, emaitzarekin pozik... orain diskoa aurkeztera.

Joan den asteburukoaz gain, uztailearen 18an Antzuolan izango gara eta 25ean Soraluzen; etxean. Kontzertu hori oso berezia izango da guretzako; izan ere, *Xuster*-ek eta biok [Luque] oraindik ez dugu etxean jo eta zirrara berezia sortzen digu kontzertu horrek. Diskoak ere bertan jarriko ditugu salgai; hala ere, taberna batzuetan jarri ditugu salgai dagoeneko; esaterako, Oñatiko Aker, Aretxabaletako Izotz edo Arrasateko Ederra tabernetan.

Eta izena nondik dator?

Izatez, *tiks* ingelesez parasito odol-xurgatzaile esan nahi du. PoLi-tiCs izenaren baitan hainbat gauza daude; esaterako, Patxi Luque PLC bezala aurkezten da eta maiuskulak horren harira datoz. *Poli-Tiks* hitza, gainera, AEBetan politikari ustelak izendatzeko erabiltzen da. Hainbat gauza batzen ditu izenak.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Bergaran, Askaruntzen. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Hirugarren solairua. Leiho guztiek kanpora ematen dute. Etxea ikusteko edo prezioari buruz hitz egiteko deitu telefono zenbaki honetara: 665 70 11 95

Bergara. Etxebizitza salgai Bergarako Ibargarai 15ean. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta garaje itxia prezioaren barne. Eguzkitsua. Aukerarikaina. 215.000 euro. Interesatuak deitu telefono hauetara: 626 81 71 28 edo 678 86 50 41

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdigunetik gertu, bi logelako etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan. Bikote batendako aproposa da. Hilean 500 euro. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 650 40 19 95

Donibane Garazi. Apartamentua errentan ematen da uztailean, abuztuan eta irailean. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Etxe inguruan baratza eta barbakoa. Asteko 330 eutotik 390 eurora artean. Interesatuok, deitu zenbaki honetara 0033 559 37 16 66 edo idatzi mezu bat mendizangoan@yahoo.fr helbidera.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

Bergara. Etxebizitatzikia edo estudioa hartuko nuke errentan. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 616 39 49 91

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratu egiteko aukerarekin. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugun bilangile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje bikoitza errentan hartuko nuke, ahal izanez gero, Bergarako erdigunean. Deitu zenbaki honetara: 638 73 57 37

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Pertsona euskalduna umeak zaintzeko. Pertsona euskalduna behar dugu arratsalde ordu batez 7 eta 5 urteko bi ume zaintzeko. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 652 74 57 42

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi eta umeak zaindu, bulego, atari zein elkarteak garbitu edo dendari. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 943 08 14 33

Arrasate edo inguruak. Ekainean eta uztailean zehar umeak zaindu edo ikasketekin laguntzeko neska euskalduna gertu. 616 32 73 08

Arrasate. Emakume euskalduna gertu etxeak garbitu edo zaintza lanetan jarduteko. Gloria. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 658 72 15 83

Arrasate. Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 632 84 02 30 eta Sonia Gomezengatik galdetu.

Arrasate. Emakumea, geriatria laguntzaile titulua duena, gertu nagusiak zaindu edo ospitalean gauakegiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 25 05 72 edo 658 70 56 94.

Bergara. 20 urteko mutila gertu konponketa eta berritze lanetan aritzeko. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 638 62 85 02

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informeak dituen, umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 649 3771 26

Bergara. Neska gertu 19:00etatik 21:00etara lan egiteko. Deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Bergara. Pertsona arduratsua eta informeak dituen garbiketari lanak egiteko prest. 696 27 25 34

Debagoiena. 22 urteko neska euskaldun eta arduratsua haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Deitu zenbaki honetara: 677 54 43 10

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: umeak eta nagusiak zaintzen, taberna eta sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abar. Interesatuok, deitu telefono zenbaki hauetara: 638 2573 91 edo 943 79 80 05

Debagoiena. Neska arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizizaten edo bestela. 631 34 00 17

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzen edo garbitasunean aritzeko gertu. Astelehene-tostiralera, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Orduka ere bai. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 688 484 776

Debagoiena. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 11 01

Debagoiena. Neska gertu lanerako: sukalde laguntzaile, garbiketari, nagusiak eta umeak zaintzen eta abar. 663 40 92 67

Debagoiena. Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen, ostalaritzan eta abar. Autoa daukat. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen eta taberna zainatarien garbitasunean. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 631 28 22 03

Debagoiena. Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketari ere jardun naiteke. Lege papereak eguneratuta dauzkat. Interesatuok, deitu telefono zenbaki hauetara: 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu edota garbitasunean jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda, egunez zein orduka. 610 99 70 46

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu edota garbiketari lanetan jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketari egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 686 71 77 93

satuok, deitu telefono zenbaki honetara: 602 46 11 63

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Uztailean zehar goi mailarako matematika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Pneumatika eta abar. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

Trikitia. Uztailean, Bergaran, trikitia jotzen erakutsiko didan norbait beharko nuke. 690 77 66 03

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztietan. HE0 eta Cambridge-eko azterketak gertatzeko ere bai. Talde txikiak. Goizetan, eguerdian edo arratsaldean. 618 91 32 89

6. MOTORRA

601. SALDU

BMW 528i salgai. Aire girotua, kanbio automatikoak eta CD irakurgailuarekin. 610 46 99 12

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. ematen dira opari. Oso politak dira. 666 40 65 58

Txakurkume polita. Txakurkume emea, txuribeltza, txikia, bi hilabetekoa, alai, familia bila dabil. Umeentzako oso aproposa. 661 45 02 96

Txakurkumeak opari. Txakurmeak ematen dira opati. Ama Border Collie eta aita ezezaguna. Txakurkumeak konpromiso barik ikusteko aukera. 663 38 40 52 edo 663 91 12 61

8. DENETARIK

802. EROSI

Lijagailua eta martinetea. Bigarren eskuko zintazko lijagailua eta martinetea (mailu piloia) erostea interesatzen zait. 635 00 69 26

Ordenagailua. Mahaigaineko ordenagailua erosiko nuke. 656 75 76 98

Ortua. Ortu txiki bat egiteko lursaila erosiko nuke Aretxabaletan. Deitu 606 56 97 49 telefonora

806. GALDU

Patinetea galduta. Oxelo etxeko Freestyle patinete morea galduta genuen duela hilabete edo gehiago. Mutiko batena denez, asko eskertuko genuke aurkitu duenak bueltatuko balu. Eskerrik asko. Deitu 667 53 40 07 zenbakira.

ETXeko Sukalderaino

Aitor Uriarte | Musikaria

- Oñatiko Latzen heavy talde ezaguneko abeslaria izan zen
- Hainbat musika estilotan jardun du, baina heavy sena duela dio

"Esperimentatzea gustuko dut eta neure erara ibiltzen naiz sukaldean"

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Oñatiko Latzen heavy metal taldeko abeslaria izan zen Aitor Uriarte *Uri* (Oñati, 1976), baina horren ondoren beste proiektu batzuetan ere ibili da; besteak beste, Usurbilgo Sen eta Bilboko Une taldeetan.

Aitor Uriarte... zelakoa da?

Zoriontsu izatea helburu duen tipo bat, eta kuriositate handia duena.

Ze harreman duzu sukaldearekin?

Oso jatun ona naiz, eta konpainia onean jatekoarekin disfrutatzea gogoko dut. Eta ondorioz, sukaldean ere gustura jarduten dut.

Zein da zure espezialitatea?

Patatak errioxar erara, esango nuke. Esperimentatzea gustuko dut eta neure erara ibiltzen naiz.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Bidaia on batera; ezagutzen ez dugun beste kultura batean murgiltzera, esaterako.

Eta etsairik handiena zertara?

Bidaiatzera, baina bakarrik.

Eta zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Lagunekin oso gustura egongo nintzateke. Eta pertsonaia ospetsu bat aukeratzekotan, Nelson Mandelarekin.

Abeslaria izan zara Debagoieneko heavy talderik arrakastatsuenetako batean. Nolatan?

Futboleko entrenamendu ostean dutxan kantuan jardutetik lagunarteko proiektu bati hasiera eman genion, eta egia bihurtu zen, gainera. Lan asko, ordu asko eta ilusio asko joan ziren gero proiektu horren bueltan.

Zer eman dizu heavyak?

Hainbat musika estilotan jardun dut, baina egia da heavyok oso

leialak garela, eta, hain zuzen, barruan dut heavy sen hori.

Mikrofonoa esku artean duzu...

Ez naiz oso mikrofono-zalea, baina egia da gustuko dudala bai sortzea, bai abestea.

Mikrofonoa ala gitarra?

Mikrofonoa.

Dutxatzean abesteko ohiturarik baduzu?

Bai; azkenaldian, Pirritx eta Porrotxen kantuen alabarekin.

Musikan, inor miresten duzu?

Bai, asko. Bat esatearren, Bob Marley, karisma handiko figura izan zen-eta bere garaian.

Alabak reggaetona du gustuko. Orduan zer?

Bueno... aurrera. Baina beste estilo batzuk ere badaudela erakutsiko nioke.

Zer da musika munduan gustatu ez zaizuna?

Musikaren industrializazioa eta merkatu horretan sortzen den lehia.

Oñati ala Arrasate?

Oñati, baina Arrasate asko eman dit eta lagun asko ditut.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Zoriontasuna; osasuna; eta hiru-garrena, komodina izan dadila beste mila desio betetzeko.

Zure bizitzako anekdota bat.



Aitor Uriarte gitarra jotzen. | AITOR URIARTE

"Azkenaldian Pirritx eta Porrotxen kantuen abesten ditut alabarekin"

Gertaera pila bat, baina orain ez dut akorduan bat ere.

Abeslaria izateko zer da ezinbestekoa?

Gogoa eta egiten duzuna sinistea.

Damu zara...

Ez... gertaera txarrek ere ikas-teko balio dutelako. Beharbada, musikari eskainitako denboraren eraginez beste kontu batzuk ezin egin izanaz; kanpora ikastera joan, esaterako.

Zer errepikatuko zenuke?

Semea edo alaba izatea; gainera, bigarrena bidean dator.

Zerk beldurtzen zaitu?

Maite ditudanak galtzeak.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Alabarekin disfrutatzen eta aspaldian egunero kalera joaten naiz harekin.

Nora ospa egingo zenuke gustura?

Mila lekutara, bidaiatzea oso gustuko dudalako. Rapa Nui-ara egindako bidaia, esaterako, magikoa izan zen. Hori bai, beti Euskal Herrira itzultzeko gero.

Ze esaldi edo aholku konpartituko zenuke?

Bidea garrantzitsuagoa dela hel-muga baino, eta, ahal den heinean, bidearekin disfrutatzen.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

GEREZI 'CLAFOUTIS'-A

Uda sasoian gereziak barra-barra azaleratzen dira; eta nahiz eta Euskal Herrian uda sasoi handirik ez izan, merkataritza-etxe handiak, betiko frutadendak eta baita orain dela gutxi kebab-en ugazabek zabalduetako saltokiak bete egiten dira ginda mota horiekin.

Gaur proposatu behar dizue-dan postrearen berba frantsesez ahoskatu ezin izanak ez dit eragozpenik eragiten errezeta bera prestatzeko. Komikoagoa izango litzateke, akaso, elebakarra den amamari *clafoutis* berba zela esaten duen entzutea.

Edozein modutan, behin postre edo merienda gozo hori lantzea erabaki nuenean, gerezi-tarta moduan bataiatu nuen, eta, horrenbestez, halako *arazoak* desagertu egin ziren.



Gerezi-tartan masatik kanpo ikusten dira gereziak. | THE COOK ROCKER

Egiteko hainbat modu

Frantzian, Lemosinen du jatorria postre horrek. Izena, berriz, *clafotis*-etik dator, *clafir* aditzetik, hain justu. Aditz horren esanahia da *bete* (masa, gereziekin).

Eta herrialde anglofonoetan, *clafouti* ere idatzi izan ohi dute.

XIX. mendean Frantzia osora hedatu zen *clafoutis*-a, eta ospe handia lortu zuen.

Lemosinen eta Auvernia, madariekin eta sagarrek ere egiten dute. Kasu horretan, *flagnarde* edo *flaugnarde* izena hartzen du *clafoutis*-ak.

Frantziako beste zenbait eskualdetan, berriz, mahaspasekin zein okaraneekin ere egin ohi dute postre hori. Eta aukera ere bada pikuekin, ahabiekin, masustekin... egiteko.

Fitxa

- Denbora: 50 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGIAK

- Irina, 100 g
- Azukrea, 100 g
- Lau arrautza
- Esne-gaina, 200 ml
- Esnea, 50 ml
- Gurina, 50 g (baina urtuta erabili behar da)
- (Gurina erabili beharrean olio erabil daiteke)
- Gereziak, 300 g.

Prestaketa

1. Pazientzia handia hartu eta gerezi bakoitzari hezurra kendu behar diogu. Gorde gereziok.
2. Katilu batean osagai guztiak (gereziak izan ezik) nahastu egin behar dira. Ez da beharrezkoa hori ordena jakin batean egitea.
3. Hori guztia irabiatu, pikor bako masa lortu arte.
4. Molde bat gurinarekin edo olioarekin koipeztatu.
5. Bertara bota behar dira irabiatutako masa eta hezur bako gereziak.
6. 180 gradu eta 35 minutu labean nahikoa izango dira Frantziako tarta tipiko horretaz gozatzeko.
7. On dagizuela!



Google Maps aplikazioa autoko nabigatzailean. | GOOGLE

Auto eta telebistetara sartu da Android bete-betean

'Google I/O' biltzarra egin berri dute nobedade oso nabarmenak aurkeztuta

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Urteroko garatzaileen aurreko aurkezpenera egin berri du Google-k, *Google I/O* delakoa. Urteko ekitaldirik entzutetsuena izaten duten horretan, datozen 12 hila-beteetarako gidalerro nagusiak aurkeztu dituzte; Apple-ri aurrea hartzea jomugan, betiere. Android L sistema eragilea, Android TV telebistetarako eta autoetarako, Android AUTO aurkeztu ditu.

Android lehen lerroan

Android L-rekin sistema eragilearen erabateko eraldaketa iragarri dute. Diseinua garbitu, sinpletasunera jo eta menuen errotiko aldaketa dakar itxura berriak. Kudeaketa ezaugarriak dagokienez, bateriaren iraupena luzatzeko hobekuntzak dakartza

sistema eragilearen bertsio berriak eta RAM memoriaren ere eragingo du. Bertsio berria, gainera, 64 biteko telefonoek ere erabili ahaliko dute.

Autorako sistema osoa

Nobedade berriekin bete-betean sartu da Google autoetarako sistema inteligenteen alorrean. Android AUTO sistema aurkeztuta, Android darabilten gailu eta sistema guztiak elkarren artean lotu eta planteamendu integrala proposatzen dute Google-koek. Autoetan Google Maps integratuta doa eta baita Google Now asistente digitala. Autorako soluzio integrala aurkeztu duen lehen konpainia izan da oraindik sakon ukitzeko dagoen alorrean. Aplikazio eta zerbitzu bateraga-

rrien zerrenda luzea ere aurkeztu zuten garatzaileen batzarrean.

Telebista berria

Telebistaren berpizkunde digitalan behin eta berriz saiatu dira konpainiak eta orain Google-en eraso berria dator. Android TV dauka izena telebistetarako sistemak eta mugikorretarako sistema eragilearen moldaketa da. Eduki eta jokoak Google Play-ra konektatu eta *smartphone*-aren bitartez, telebista bera eta edukia kontrolatzeko aukera dauka.

Nobedade ugari aurkeztu dituzte *Google I/O*-n eta *wearable*-etan ere (erlojuak, jantziak, kuantifikazio gailuak...) eskaintza zabaldua. Argi utzi dute Google-koek lehenak izan gura dutela orain.

Moto 360 erloju adimendua aurkeztu berri du Motorolak

J.B. | ARRASATE

Motorolak aurkeztu du bere *smartwatch* ala ordulari adimendua. Sarean zabaldutako bideo bat besterik ez dago erloju berriaren ezaugarrien berri ematen. Lehenik eta behin, gailu berriak duen itxura tradizionala da atentzioa eman duela. Itxura horregatik, hala ere, funtzio erabat harrigarriak aurkeztu ditu Motorolaren berriak eta Android sistema eragilea darabilen edozein gailurekin berehala konektatu eta haren luzapen gisa funtzionatzeko dago sortua. Honela, jakinarazpenak erakutsi, agenda begiratu ala Google-en kontsultak egin dai-

tezke erloju adimenduan. Pantaila eta botoi bakarra ditu eta botoi hori aktibatuta jartzen da martxan erlojua. Google Now aplikazioaren bertsio egokitua darabil Motorolaren ordulariak eta pantaila edozein argiztapen egoeratarako egokitzen da begietara, ia atzeman barik. Atzamarrak ezker-eskuin eroanda nabigatzen da erlojuaren eta aginduak ere hala ematen dira. Teklatua barik, ahots bitartez ere eman daitezke aginduak. Diseinuari dagokionez, orbe eta uhal aukera zabalarekin merkaturatuko dute. Noiz, ez dute iragarri baina beranduenez Gabonetako kanpainarako prest



Motorola 360. | GIPSOE

izatea da espero daitekeena. Erlojua martxan ez dagoenean ordua erakusten da uneoro, halako erresoluzio eta distira gutxiarekin, ezen benetako erloju tradizionala ematen duela adierazi duten probatu aukera izan dutenak.

Bilatzaileetan geroago eta bilaketa gutxiago egiten dira

J.B. | ARRASATE


Beherako bide geldoan bai, baina bilaketak, geroago eta gutxiago egiten dira Interneten eta joera honek sarearen historian mugari izan den garaia amaiera jar liezaioke. *Shareaholic* webguneak kaleratu berri duenez, bilatzaileak ezagunenetan egindako bilaketek behera egin dute, sare sozialetatik zuzenean sartutako bisiten mesedetan.

Guztiak behera

Urterik urte, behera egin dute Google, Yahoo, Bing eta Ask.com bilatzaileetan egindako bilaketek. Google-en gainontzeko bilatzaile guztietan egindako kontsultak batuta halako 17 bider gehiago egiten dira bilaketak baina guztietan behera egin du kopuruak modu nabar-

men baten. Honek esan gura du, bilatzaileko emaitza baten bitartez webgune batera egindako bisita kopuruak behera egin duela. Iazko urte amaieratik hona gehien galdu dutenak, %31tik gora, AOL, Yahoo eta Bing dira. Google-ek %17,20 galdu du epe horretan bilaketetan soilik.

Goraldian, orain, sare sozialean bidez iritsitako bisitak dauka. Hala, aipatu ikerketak erakusten du joera orain sare sozialetako profilak jarraitu eta horietan gomendatu ala bideratutako edukietara jotzen dutela erabiltzaileak, partekatutako esteketara egiten dela, alegia. Facebook-eko erabiltzaileak dira esteketan gehien klikatzen dutenak eta gutxien Google+-ekoak.



Abendutik maiatzera bitarteko bilakaeraren grafikoa. | SHAREHOLIC

'Emoji' berriak argitaratuta, hatz luzea duena barne

J.B. | ARRASATE

Aurten 240 *Emoji* ala txatetarako ikono berri egongo dira erabiltzeko moduan. Berrien artean egongo dira hatz luzea erakusten duen ikono bat, espioi bat ala *agur vulcaniarrak*, besteak beste. Fabrikatzaileek erabaki beharko dute orain, sistemetan txertatu ala ez. Whatsapp eta antzeko mezularitza eta txatetan erabiltzen diren iruditxo adierazkorak dira *Emoji*-ak. Unicode Consortium delako batzordeak kudeatzen du ikonoen argitalpena eta banaketa eta horren ostean, enpresen baimenarekin, iOS ala Androiden teklatuetan jartzen dira eskuragarri.

Hala erabakitzen badute, laster 250 emoji berri erabili ahaliko dira elkarrizketetan.

Espainiako enpresen ia erdiak software pirata darabil

J.B. | ARRASATE

Espainiako enpresen PC-en %45ak pirateatuta dagoen softwarea erabiltzen du IDC-k BSarentzat egindako ikerketa baten arabera. Inkesta bereko emaitzetatik bi puntu hazi da ehunekoa bi urtetan eta 758 milioi euroko balioa estimatu diote lizentziarik gabeko software horrek utzitakoari. Mundu mailan Asia-Pazifikokoan dago pirateatze mailarik altuena, %61, baina Espainiako egoera Mendebaldeko Europarekin alderatutako, nabarmena da. Hain zuzen, 16 puntu altuagoa da Espainian. Europaz gain, Estatu Batuetako tasa baxuegatik oso urruti kokatzen da Espainia eta adituek diote oztopo izan daitekeela datozen urteetako garapenenean.

TELE-BEGI



OIHAN
VEGA

Borboidarren diktadura 2. zatia

Duela bi aste, lerro haue-tan bertan hitzegin nuen Borboien dikta-durari buruz. Telebis-ta kate publiko zein pribatu guztiek eman zioten oihartzu-na Juan Carlosen abdikazioa-ri. Zer esanik ez bere semearen kargu hartze ekitaldiari!

Telebista kate guztietan, erregea gora, erregea behera... ze aldaketa suposatuko ote duen honek, zer ez... Baina ze lotsa-gabekeria da hau! Nahi dudan telebista saioa ikusi gabe gera-tuko naiz nire zergekin ordain-tzen dudan alferrikako erakun-de zaharkitu horri protagonis-moa emateko?

Hori gutxi balitz, Madrile-ko kaleetatik egin zuten des-file barregarri horrekiko manipulazioa ikaragarria izan zen. Ibilbidean polizia gehiago zegoen ustez egon beharko liratekeen jarraitzaileak baino. Madrileko Udalak dirutza xahutu zuen kaleak Francoren garaian baino Espainiako ban-dera gehiago jartzen eta hori guztia TVE telebista publikoan saldu zuten urteko gertakaria bailitzan; planoak moztuz, errealizazio oso zainduarekin, ez nabaritzeko, benetan, kaleak erdi hutsik zeudela.

Beraz, aldaketa? Ez da ezer aldatu, Borboien diktadurapean segitzen dugu eta telebistek erre-gimen hori elikatzen dute.

ASTEA GOIENAN				
GOIENA TELEBISTA				
ASTELEHENA, 30	MARTITZENA, 1	EGUAZTENA, 2	EGUENA, 3	EGUBAKOITZA, 4
				
'Harmailatik'	Arkarazo auzoa	'Tertulia'	'Amaia DJ'	Elgetako jaiak
Oñatiko Torreauezoko krosa eta Oñatiko Raid abentura ikusi ahal izango dira <i>Harmailatik</i> kirol saioan. 19:30	Aretxabaletako Arkarazo auzoa gertutik ezagutzeko aukera izango da martitzene-ko saioan. 20:00	Emakume baserrita-rrak izango dira prota-gonista eta bailarako hiru emakume izango dira saioan. 19:00	Gaztetxoek eskatuta-ko musika eta bideo-klipen saioa egunean, Amaia Txintxurretak aurkeztuta. 19:30	Elgetako festetan ospatutako mozorro jaia ikusi ahal izango da <i>Debagoiena</i> zuze-nean saioan. 20:00
12:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	12:00 Harmailatik	12:00 Atik Zra	12:00 Tertulia	12:00 Debagoiena zuzenean
12:45 Tripa-zorri	12:30 Tripa-zorri	12:50 Onein	13:00 GITBk 10 urte	12:35 Ikusmira
13:30 Debagoiena zuzenean	13:10 7 Akorde	13:25 Harmailatik	13:35 Ikusmira	13:00 Atik Zra
14:30 Berriak	13:35 Amaia DJ	13:55 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak	13:50 Zorion Agurrak
15:00 GITBk 10 urte	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
15:35 Ikusmira	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	15:00 Onein	15:00 7 Akorde	15:00 Amaia DJ
16:30 Berriak	15:30 Onein	15:00 Onein	15:30 Onein	15:30 Onein
17:00 Kantari	15:55 Zorion Agurrak	15:30 Harira	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
17:30 Atik Zra	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:30 Berriak
18:20 Ikusmira	16:30 Berriak	16:30 Berriak	17:30 Tertulia	17:55 GITBk 10 urte
18:25 Zorion Agurrak	17:00 Ikusmira	17:00 Kantari	18:30 Berriak	18:30 Berriak
18:30 Berriak	17:15 GITBk 10 urte	17:30 Jaiak: Arrasateko jaiak	19:00 7 Akorde	19:10 Jaiak: San Pedro jaiak
19:00 Amaia DJ	17:55 Ikusmira	18:30 Berriak	19:30 Amaia DJ	20:00 Debagoiena zuzenean
19:30 Harmailatik	18:25 Zorion Agurrak	19:00 Tertulia	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	19:00 Kantari	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 7 Akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Jaiak: San Pedro jaiak
21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Amaia DJ	22:45 Debagoiena zuzenean
22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	22:00 Tertulia	22:30 Debagoiena zuzenean	23:15 Berriak
22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:00 Berriak	23:45 Gurean gaur
23:00 Berriak	21:30 Berriak	23:30 Gurean gaur	23:50 Debagoiena zuzenean	00:05 Debagoiena zuzenean
23:30 Gurean gaur	22:00 7 Akorde	23:50 Debagoiena zuzenean	00:20 Amaia DJ	00:35 Jaiak: San Pedro jaiak
23:50 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	00:20 Tertulia		
00:20 Harmailatik	23:00 Berriak			
	23:30 Gurean gaur			
	23:50 Debagoiena zuzenean			
	00:20 7 Akorde			

ARRASATE IRRATIA

Gaur estreinatuko da 'Uda giroan' irratsaioa, Arrasate Irratian

Igo autobusera! irratsaioari lekukoa hartuko dio *Uda giroan* saioak gaur, astelehe-na. Egunero, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 10:00e-tan eskainiko da saioa eta Musakolako igerilekuetako soroslearekin bat egingo da igerilekuko kontuen azken berriak jasotzeko.

Julian Sagasta organistaren liburu eta diskoa zozketatuko dira

Xabier Ugarte eta Jose Anto-nio Azpiazuk idatzitako Julian Sagasta organistaren liburua eta diskoa zozketatuko dira egubakoitzeko zozketan. Ber-tan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo beste-la idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Animatu, hartu parte eta zorte on, entzule!

Futbol kanpusari buruz, Igor Arenaza gaurko irratsaioan, 107.7an

Geroa Sortuz futbol kanpusa-ri emango diote hasiera gaur, astelehena, eta egubakoitzera bitartean gaztetxoek futbol kontuak ikasteko aukera izan-go dute Aretxabaletan. Ber-tako koordinatzailea den Igor Arenazak kontatuko ditu xehetasunak elkarriketaren tartean, *Uda giroan* irra-tsaioan, 11:00etan.

Eskoriatzako San Pedro jaiek emandakoa gaur, astelehena, telebistan

Gazte koadrilen arteko I. jokoak, nagusien danborrada edota 'herrixa' elkartuz ikusgai

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA Sanpedro jaietan murgilduta daude eskoriatzarrak eta kalean jasotako festa giroa, telebista bitartez ikusi ahal izango da gaur, astelehena, *Debagoiena zuzenean* saioan 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean. Imanol Gallego kazeta-ria eta bere alkandora ibili dira egubakoitzetik sanpedroetan ger-tatutakoak jasotzen eta momen-turik dibertigarrienak erakutsi-ko dira gaurko saioan.

Zapatuko txupinazoarekin hasi zituzten jaiak Eskoriatzan eta ondoren izan zen kale giroa

ere jaso du Goienak. Arratsaldean ospatu zen gazte kuadrillen arte-ko I. jokoak ere ikusi ahal izan-go dira eta baita urtero moduan gauez egin zen nagusien danbo-rrada ere. Atzo, domeka, bandak eguerdian eman zuen kontzertua ikusi ahal izango da eta joan diren urteotako ikuskizunek izandako arrakasta ikusita, aurt-en ere eskoriatzarrek sortutako emanaldia izan zen Eduardo Gorosarri plazan; *herrixa elkar-tuz*. Hori ere jasoko da saioan. Gaurko kuadrillen arteko jokoak edota haurren danborrada ere



Zapatu gauean egin zen nagusien danborradan jasotako une bat. | GOIENA

Egubakoitzean jaien saio berezia, 19:10ean eta 22:00etan

jasoko dira. Eta bihar, martitze-na, ospatuko den Euskal Jaia eta buruhandien txirrindulari las-terketa ere ikusi ahal izango dira, hain justu bihar eskainiko den *Debagoiena zuzenean* saioan, Txomin Madinak aurkeztuta.

Saio berezia, egubakoitzean Egubakoitzean, berriz, sanpedroek eman dutenaren jaien saio bere-ziarekin disfrutatzeko aukera egongo da Goiena telebistan. Asteburuan ere eskainiko da saio berezia, jaiekin gozatzeko.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Sara Zubia
Uztailaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, maittia! Ze azkar pasatzen dan denbora! Egun politt-politta pasatu zure urtebetetzean eta patxo pila bat etxeko danon partetik! Asko maitte zaittugu!



OÑATI
Mertxe Arriaran
Uztailaren 4an, 71 urte.
Zorionak munduko ama eta amama onenari! Eskertzekua da zure borondate eta laguntza. Patxo pila bat etxekoan danon partetik! Asko maitte zaittugu!



OÑATI
Odei Palacin Aldea
Uztailaren 4an, 7 urte.
Zorionak, Odei! Dagoeneko zazpi urte! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Eneritz Zulueta Algorta
Uztailaren 4an, 2 urte.
Geure itsas laminari, zorionak eta musu handi bat!



OÑATI
Ane Buquete
Uztailaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa, zure hirugarren urtebetetzean! Primeran ospatu eta ondo pasatu zure egunean, etxeko danen eta, bereziki, lbairan partetik. Muxuak!



ARETXABALETA
Itsasne Barandiaran Amozarrain
Ekainaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Itsasne! Oso ondo pasatu zure egunien. Edarto ospatuko ditugu zure zazpi urtiak! Muxu potolo bat! Aitatxo, amatxo, aitiba, amama, tio, tia eta Josu.



ANTZUOLA
Peru Kortabarria Arana
Ekainaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Peru. San Martzial eguneko gure mutiko politenarentzat muxu asko, aitaren, amaren eta Loreren partetik.



BERGARA
Markel Larrañaga Fernandez
Ekainaren 30ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu. Muxu pila bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Eider Sandoval Guerra
Ekainaren 29an, 9 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zure eguna. Bederatzi belarri tirakada eta milaka musu zuretzat, etxekoan partetik.



BERGARA
Elene Contreras Arakistain
Ekainaren 29an, urtebete. Zorionak, txiki! Zure eguneroko irribarreari esker gure bizitza alai-alai da. Maite zaitugu. Patxo handi bat, batez ere Juneren partetik.



OÑATI
Haizea Zubia
Gure etxeko printzesiak, ekainaren 29an 4 urte beteko dittu! Zorionak, Haizea! Txokolatezko patxo pillia eta ondo ospatu! Asko maitte zaittugu, matraka!



OÑATI
Helene Olalde Agiriano
Ekainaren 29an, 6 urte. Etxekoan partetik, zorionak eta muxu handi bat.



ARETXABALETA
Orkatz Angulo Martinez
Ekainaren 28an, 3 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta pastel asko jan gabe... Etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Pakita Carames Oliva
Ekainaren 28an, 62 urte. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta astebukaeran bazkari on batekin ospatuko dugu. Milaka patxo Unairen eta Beñiaten partetik! Asko maite zaitugu!



BERGARA
Markel Garitano Atxa
Ekainaren 27an, 2 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta patxo handi bat. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ARRASATE
Paulo eta Jon Abasolo
Paulok ekainaren 28an, 8 urte eta Jonek 30ean, zenbait gehiago. Zorionak eta muxu pila bat gure txapeldunei. Alaitz eta Ainhoa.



BERGARA
Gorka Alberdi Garitano
Ekainaren 27an, 7 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatzea opa dizugu zure urtebetetze egunean! Etxekoan eta lagun guztien partetik, batez ere Jokinek. Muxu handi bat!



OÑATI
Laiatz Altube
Ekainaren 27an, urtebete. Zorionak, polittiori! Urte askotarako etxekoan partetik eta muxu goxoak batez ere hainbeste maite zaituen zure ahizpatxo Lexuriren partetik.



OÑATI
Markel Kortabarria
Ekainaren 26an, 6 urte. Zorionak, Markel! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Maitte zaittugu!



BERGARA
Iker Bolibar Amor
Ekainaren 26an, 5 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Markel Elorza Arkauz eta Asier Elorza
Ekainaren 25ean, 3 urte. Zorionak! Aurten be bixon eguna ospatuko dogu familixa eta lagunekin! Besarkada eta patxo handi bat danon partetik!



ARRASATE
Gorka Maria Seco
Ekainaren 24an, 21 urte. Zorionak, Gorka! Sanjuanak lagun, primeran ospatu deizula zure urtebetetzia! Muxu handi bat eta zorionak etxeko danen partetik, bereziki Aner eta Unax!



ARRASATE
Maddi, Maria eta Zuria
Mariak ekainaren 29an, Maddik 30ean eta Zuriak uztailaren 20an. Zorionak Maddi, Maria eta Zuria. Familiakoan partetik. Ondo ibili eta jarraitu alaitasun horrekin.



ARAMAIO
Ikebe Jauregi Ibabe
Ekainak 30ean. Zorionak eta musu handi bat Zubitzakuen partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Anouk Izagirre Santamaria
Antzuola 3,510 Kilo. Ekainaren 24a. Gurasoak: Irene eta Andoni. Argazkian, Anouk amaren besoetan.



Markel Palacios Mayor
Aramaio 3,320 Kilo. Ekainaren 21a. Gurasoak: Maider eta Agus. Markel amarekin eta aitarekin.



Aaron Blanco Laria
Arrasate 3,430 Kilo. Ekainaren 21a. Gurasoak: Ana Cristina eta David. Argazkian, Aaron gurasoekin.



Laoulad Khadad
Arrasate 3 Kilo. Ekainaren 25a. Gurasoak: Dahi eta Brahim. Argazkian, Laoulad txikia argi-argi.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,
zorionak!
Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Emakume izena	Akuarela	Atsegina
	Espainiako hiriburua	Harridura	Behorra arreske
	Apala		
	Basa		
Emakume izena	Igorri		
Lezamako	Toka, dago		
			Bokala
			Omen, aipu
* Bergarako auzoa			
Laborarien lanabesa			Bizkaieraz, iratzea, garoa
		Kopuru jakin bat	
		Ogi, hitz elkartzeetan	
Landare mota			Praseo-dimioa
Jakinduria			Tona, labur-labur

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

1	V	K	I	T	V	L	E	V
	K	O	T	O	I		B	B
2	E	E	V		D	O	2	I
	B	V	2	V	Γ	G	O	
Γ	E	2	V	M	V		V	
	D		B	I	D	V	Γ	I
				X	U	M	E	V
				A	M	D	B	Γ
				M		U		A

E	S	O	R	E	Q	P	O	R	E
O	A	R	T	I	Z	A	R	T	
S	E	S	A	U	O	P	E	S	
I	R	I	K	R	I				
L	E	L	N	O	M	B	E	L	
N	A	T	I	Y	X	O	B	N	
A	S	E	A	L	U	R	A		
E	C	I	A	U	L	X	I	A	
M	A	R	T	E	P	O	E	S	

4	6	8	2	1	2	9	7	3	1
6	1	2	4	9	8	5	3	6	4
2	6	9	1	7	6	5	4	3	8
6	9	6	1	7	3	5	4	2	8
3	6	1	2	4	7	8	9	5	6
5	3	4	7	6	1	2	8	5	9
6	9	1	2	4	7	8	3	5	6
1	6	4	2	8	7	3	5	9	6
7	8	5	6	4	9	3	1	2	8
2	9	3	1	5	7	6	4	8	2



Ezetz igarri!
Inondik ez, pinuak sagarrrik ez dute eta

SUDOKUA

	9						4	
		5	6		9			
			2	8	3	7		9
	4							
	5						7	3
8	2		7		5		9	6
4	3	8			6	9		2
	1				8			
	7				2	8		

HIZKI SALDA

M	A	R	T	E	P	O	E	S
E	C	I	A	U	L	X	I	A
R	S	E	A	L	U	R	R	A
K	A	T	I	Y	X	O	B	N
U	R	A	N	O	M	B	E	L
R	U	T	E	W	I	K	R	I
I	N	E	A	U	O	P	E	S
O	A	R	T	I	Z	A	R	T
S	O	R	E	Q	P	O	R	E

EZETZ IGARRI!

Pinu batetik sagarra bajatu nahi duzu. Alde batetik sagarretaraino heltzen den arkaitz pilo bat dago, beste aldetik eskailera bat. Nondik igoko zinateke?

Kontuz, Godzilla etxeko lorategian!

Lorategiko ipotxen bizitza gogorra da: euria egin edo eguzkia irten, beti kanpoan. Inguruan Godzilla izatea bakarrik falta zitzaien!
www.nopuedocreer.com



"Nire kolaboratzaileak kataluniarrak dira, baina denak zoragarriak"

DAVID BISBAL | ABESLARIA

Gura barik bada ere, tarteka denok esan ohi ditugu komeni ez diren gauzak, edo komeni ez diren moduan. Badirudi horixe gertatu zitzaiola Almeriako abeslariari Kataluniako irrati esatari batek egindako elkarrizketan. Subkontzientea jostalari dagoenean...
RAC1



Max. **24°**
Min. **11°**

Goizean goiz behe-lainoa sortuko den arren, berehala desegin eta eguzkia izango da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-06-30

HAMARREKOA

Izaskun Landaia 1995ean sartu zen zinegotzi moduan Ugaoko Udalean, eta 2007tik 2013ra bertako alkate izan ostean, duela urte eta erditik Emakundeko zuzendaria da | TXOMIN MADINA

"Uste dut emakume denok nabaritu dugula genero diskriminazioa"

1. Ez gaude ez martxoaren 8aren, ezta azaroaren 25aren bueltan ere. Ohikoa da Emakundeko zuzendaria elkarrizketatzea?

Zorionez gero eta interes gehiago sortzen dute berdintasunarekin zerikusia duten gaiek. Gure helburua berdintasuna urteko 365 egunetan lantzeko aukera eta beharra dagoela adieraztea da. Beraz, zorionak horrela ikusten duzenoi.

2. Kontziliazioak, zenbat du utopiatik?

Ez dut uste utopia denik, baina erreza ere ez da; neurri baten gure gizartearen eredia aldatu behar da. Etxekoena, enpresena eta administrazioarena, denon inplikazioa behar da. Ziur nago denok helburu berdinarekin lan egiten badugu hobetzeko aukera dugula.

3. Egiten denaz gain, zer gehiago egin daiteke genero indarkeriaren kontra?

Funtsezkoa da indarkeriaren erroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza dagoela identifikatzea. Balioak aldatzeak garrantzia handia du eta hausnarketa denok egin behar dugu, norberak bere erantzukizuna du-eta.

4. Genero kuotak: alde edo kontra? Zergatik?

Urteek eta zenbakiak diote berdintasuna ez dela berez lortuko. Neurriak hartu behar dira, bestela, aski prestatuta egon arren, emakumeak ez dira esparru konkretu batzuetan inoiz egongo.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Berdintasuna oinarri duen gizarte bat eraikiko nuke, argi utziko luke-eta gizarteko kide guztion onerako dela"

5. Bada genero politikak gizoneniko baztertzailak direla salatzen duenik...

Datuei erreparatuta, bertan behe-geratzen da argudio hori. Berdintasunaren alde egiteak, gure gizartea beste era batera antolatzeke proposamena egiten du: aldaketak suposatzen ditu, baina ez du inor baztertzen. Erreakzio horretan pribilegioak galtzeko beldurra dago.

6. Erraza da sektore pribatua berdintasun politiken onurez konbentzitzea?

Hor ere gauzak aldatzen doaz, baina egia da gauza asko egiteko daudela. Horregatik mantentzen ditugu enpresendako diru laguntzak, eta materiala ere sortzen dugu. Aipatzekoak dira berdintasun ziurtagiria lortu duten 94 enpresak, beste batzuentzat ere du bihurtu nahi ditugunak.

7. Zuk zeuk, sufritu izan duzu genero diskriminaziorik?

Uste dut emakume denok, momentu baten edo bestean, era batera edo bestera, nabaritu dugula. Hau onartzea ez da erraza, ikasitakoa zalantzan jartzea suposatzen du-lako eta beste era batera jokatzera behartzen zaituelako. Prozesu bat da, aberasgarria, norberaren ahalduntzea landu behar da-eta.

8. Politikari izateko garai onak dira?

Garai onenak, agian; ikustarazteko politika gizarteari zerbitzu bat egiteko dela; eta garai haue-tan lanarekin, konpromisoarekin eta inplikazioarekin gauzak hobetzen saiatzeko gaudela.

9. Ikusiko dugu inoiz emakume-rik Lehendakari?

Emakumeen boto eskubidea lortzeko, 100 urtetik gorako lana egin behar izan zen. Berdintasunaren inguruko egoera aldatzeak den-bora asko darama: norberaren balioak, sinismenak eta jarrerak aldatu behar dira, ikasitakoa berri-kasi. Emakumeak Lehendakari izateko prestatuta daude, soberan; gizartearen sinesmenak eta balioak dira aldatu beharrekoak.

10. Imajinatu arratsalde oso bat inongo ardurarik barik duzula. Zertarako aprobetxatuko duzu?

Zibilizaziotik kanpora joan eta naturaz gozatzeko; adibidez, Gorgeiara joateko. Ibilbide horretan etxekoen konpainia badaukat, primeran.

AZKEN BERBA

MARKOS
BALENTZIAGA



Foruduntza

Espaniako errege-erreginen mudantza-renak urrunduz badoaz ere, Gobernuak errege zaharraren babeserako eratu duen aforamendua oso deigarria egiten da. Aforamendu edo foruduntza hori ez da ohikoa ez zabalean, ez abiarazi.

Haur umegorriena ere konturatzen da halako indarreko aforamendua —erregealdi joaneko jarduera oro babestuko du— antolatu beharra badago, gorde beharrekoa ere sabanaren luze-zabaleko elefante-talde handiena baino neurri handiagokoa dela, bolo-bolo dabiltzan zurrumurruez harago.

Baina errege zaharra aforatu behar horrek ez orain artekoak bakarrik, baizik hemendik aurrerako haren ibilerak ere bere aterpean hartuko ditu. Bistan da erregearen asmoetan ez dagoela Rouco monsinorearekin —erretiratua hura ere— kafea hartzea bourbon-koparen aromaz edo Madrileko trafikotxoaz berriketari, edota "La Roja"-ri txalo jotea, adin batetik aurrera hori egitea ariketa fisiko gomen-dagarria izan badaiteke ere, ez dira-eta "betiko garai onak" horretarako.

Zer jarri nahi du errege izanak itzal-gordean hain begi estuko aforamendu-sareaz?

SAN PEDROAK 2014

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | SAN PEDROAK 2014, ESKORIATZAKO JAIAK
ASTELEHENA, EKAINAK 30, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: SAN PEDROAK 2014, ESKORIATZAKO JAIK
EGUBAKOITZA, UZTAILAK 4, 19:15 ETA 22:00



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena